



HERNANI

1960 – 2021

Motibazio politikoko indarkeria
eta giza eskubideen urraketa larriak

—

Violencia de motivación política
y graves violaciones de derechos humanos

HERNANI

1960 – 2021

Motibazio politikoko indarkeria eta giza eskubideen urraketa larriak

Violencia de motivación política y graves violaciones de derechos humanos

Arratsalde on

Udal talde politikoen izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu gaur dokumentu garrantzitsu honen aurkezpena etorri zareten guztioi.

Hernaniko Udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari enkargatu zion lan hau egitea. 2017an izan zen hori. Orduz geroztik, urte batzuk igaro dira eta bidean lan eskerga eta esfortzu handia egon da. Eskerrak eman nahi dizkiogu Javier Bucesi gure herriko historia ezagutarazteko egin duen lanarengatik eta proiektuarekin erakutsi duen inplikazioarengatik.

2015eko azaroan, Memoriaren Harria jarri genuenean, abiatu genuen bide hura zaila eta neketsua izan da, baina fruituak eman ditu. Lan honetan Hernanin eta hernaniarrei gertatutako Giza Eskubideen urraketa larriak dokumentatu eta jaso ditu Aranzadik. 1960tik gaur egun arte. Azken 40 bat urteetan Giza Eskubideen 1.046 urraketa kasu eta 707 biktimei identifikatu ditu.

Eta, horrekin lotuta, aipamen berezia egin nahi dut memoria lan hau osatzeko modu aktiboan parte hartu duten herritarrei. Horietako batzuk gaur hemen zaudete. Eskerrik asko zuen eskuzabaltasunagatik. Zuei esker gaurko eta etorkizuneko hernaniarrok gure herriaren errealtatea ezagutzeko aukera izango baitugu.

En nombre del Ayuntamiento, queremos agradecer a la Sociedad de Ciencias Aranzadi el gran trabajo de investigación y documentación que ha realizado. Sin embargo, tal y como se reconoce en el prólogo, la colaboración ciudadana ha sido crucial. Por ello, nos gustaría hacer una mención especial a aquellas víctimas y familiares que han colaborado activamente en la investigación.

Somos conscientes de que recordar la historia reciente es especialmente doloroso. Por ello, precisamente, en nombre de todos y todas las representantes del Ayuntamiento, quiero agradecer la enorme generosidad de aquellas víctimas que han aportado su testimonio y han ayudado a elaborar este documento. Otros esperamos se animen en el futuro.

Algunas de ellas estáis hoy aquí. Gracias a vuestra generosidad, los y las hernaniarros de hoy y las

generaciones futuras podremos conocer la historia/ realidad de nuestro pueblo de la manera más veraz posible. El objetivo de este trabajo no es realizar el Relato de lo ocurrido, sino visibilizar el sufrimiento y el GRAN dolor padecido como consecuencia de todas las violaciones de Derechos Humanos.

Lan honen helburua ez da Errelatoa egitea izan, baizik eta jasandako Giza Eskubideen urraketa guzti-guztien atzean dagoen sufrimendu eta samin HANDIA azalaraztea.

Baina sufrimendu hori azaleratzea eta errekonozitzea ez da alferrikakoa izan. Gure herrian gertatu dena –EGIA– jakitea, BIKTIMA GUZTIEN sufrimendu hori onartzeko eta BIKTIMA GUZTIEN errekonozimendurako lehenengo urratsa delako. Inor ahaztu gabe. Dokumentu honetan agertzen diren biktimei guztiek baitaukate memoriarako eta errekonozimendurako eskubidea.

2015etik gaur egun arte bizikidetzaren aldeko pausoak eman ditugu. Gure desadostasunen gainetik aurrera egiteko konpromisoari eutsi diogu.

Desberdintasunak eta desadostasunak egonda ere, denok bat egiten dugu kontu batean: iragana ezin dugu errepikatu. Eta ados gaude iragana ezagutzeak eta onartzeak aurrera egiteko balio behar digula. Edozein indarkeria motaren aurka.

Sabemos que el próximo paso es el reconocimiento de todas las víctimas y profundizar en el conocimiento de la verdad. Siempre desde la oposición a cualquier tipo de violencia. Y ese es nuestro compromiso.

Desberdintasunek ezin baitute oztopo izan bizikidetzarako. Desberdintasunak izan daitezela herri honen aberasgarri. Gure herriko ehunka biktimei zor diegu.

Eskerrik asko.

Biteri Kultur Etxea. Hernani. 2023ko otsailaren 8a

(Hernaniko Alkatearen hitzak, Udal talde politikoko guztien izenean, aurkezpen ekitaldian)

2022ko abendua

ARGITARATZAILEA / EDITA:

Hernaniko udala / Aranzadi Zientzia Elkartea

EGILEA / AUTOR:

Javier Buces Cabello

PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO:

Juantxo Agirre-Mauleon, Javier Buces Cabello

IKERLARI KOLABORATZAILEAK / INVESTIGADORES COLABORADORES:

Jesús M. Gómez, Leire Padilla, Miren García, Marijose Hernández, Rebeca Martínez

DISEINU ETA MAKETAZIOA / DISEÑO Y MAQUETACIÓN:

Oihana Pagola (didart.eu)

AZALEKO IRUDIA / IMAGEN DE CUBIERTA: Nagore Legarreta

ITZULPENAK / TRADUCCIONES:

Saretik Hizkuntza Zerbitzuak S.L.

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN:

Leitzaran Grafikak S.L.

ISBN 978-84-17713-55-3

L.G. / D.L. D 00674-2022

AURKIBIDEA ÍNDICE

HITZAURREA PRÓLOGO	4
SARRERA INTRODUCCIÓN	6
METODOLOGIA METODOLOGÍA	10
HERNANIKO KRONIKA CRÓNICA DE HERNANI (Jesús M. Gómez).....	20
1. TESTUINGURU HISTORIKOA CONTEXTUALIZACIÓN HISTÓRICA.....	72
1960-1975.....	74
1976-1982.....	82
1983-2021	91
2. HILDAKOAK FALLECIDOS.....	106
Bizitzeko eskubidearen urraketa Violación del derecho a la vida	114
Biktimak Las víctimas.....	118
Motibazio politikoko indarkeriaren ondoriozko beste heriotza batzuk	
Otras muertes a consecuencia de la violencia de motivación política	134
Borrokan hildakoak, argibide nahikorik ez duten kasuak	
Fallecidos en enfrentamiento, casos con insuficiente aclaración	137
3. SEGURTASUN FISIKOAREN, PSIKIKOAREN ETA MORALAREN URRAKETA	
VIOLACIÓN A LA INTEGRIDAD FÍSICA, PSÍQUICA Y MORAL	144
4. PERTSONEN AURKAKO MEHATXU LARRIAK	
AMENAZAS GRAVES CONTRA LAS PERSONAS	168
5. ESTORTSIO EKONOMIKOA EXTORSIÓN ECONÓMICA	176
6. MOTIBAZIO POLITIKOKO ATENTATUAK ONDASUN MATERIALEN AURKA	
ATENTADOS DE MOTIVACIÓN POLÍTICA CONTRA BIENES MATERIALES	182
7. GIZA ESKUBIDEEN BESTE URRAKETA BATZUK	
OTRAS VIOLACIONES DE DERECHOS HUMANOS	196
8. MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIAK KALTETUTAKO BESTE PERTSONA BATZUK	
OTRAS PERSONAS AFECTADAS POR LA VIOLENCIA DE MOTIVACIÓN POLÍTICA	208
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA	224
EPILOGOA EPÍLOGO	230

HITZAURREA PRÓLOGO

2014ko maiatzean, gure herriko elkarbizitza hobetzearen alde lan egiteko beharretik abiatuta, bizikidetza mahaia jarri zen martxan, modu oso diskretuan. Orduz geroztik, Hernaniko udalean ordezkaritza duten sentsibiltate politiko guztiek osatu dute elkarriketarako gune hau.

Aurrera pauso bat ematea suposatu zuen lehen ekintza publikoa Ave Maria parkean Memoriaren Harria jartzearena izan zen, 2015eko azaroaren 10ean. Gure herriarentzako mugarri bat, zeinetan espektro politiko osoko hernaniarrek parte hartu baitzuten. Ekitaldi horretan jarritako harria abiapuntua izan zen oroimena berreskuratzeko bide zail eta beharrezkoan.

Mahaia osatzen genuenok lehenengo momentutik ikusi genuen ezinbestekoa zela gure herriaren errealitatea eza-gutzea. Jaso gabe zegoen errealitatea, isilarazi egin zutelako edota zati bat soilik ikusi nahi izan genuelako. Hala, Aranzadi Zientzia Elkarteari enkargu bat egin zitzaion, Hernanin 1960tik 2018ra gertatutako giza eskubideen urraketak identifikatu eta dokumentu batean jasotzekoa. Ordura arte egindako dokumentazio-lan eskergaren lehen txostena 2019ko urtarrilean aurkeztu genuen. Txostenaren lehen bertsioa *“Motibazio politikoz urratu diren giza eskubideak eta beste sufrimendu batzuk, Hernanin eta hernaniarrei gertatuak (1960–2018)”* izan zen. Hernaniko historia hurbile-na ezagutarazteko ikerketa-lan oso garrantzitsua.

Aranzadik egindako prozesuan egiaztatu da hernaniarrek bizi izan zuten errealitatea oso gogorra izan zela eta dela. Gaur, beren lekukotza eman duten guztiei eskerrak eman beharrean gaude, beren samina gaindituz eskuzabal-tasunez erakutsi dizkigutelako beren bizipenak eta errealitatea. Testigantza horiek gabe, eskuartean duzuen liburu hau ezingo zen idatzi. Nahiz eta jakin badakigun beste testigantza batzuk, gure historiaren parte ere badirenak, agian jaso gabe geratu direla.

Liburu honetan giza eskubideen eta motibazio politikoko indarkeriarekin lotutako 1046 urraketa kasu jaso dira, 707 biktima identifikatu direlarik, eta udaleko indar politiko guztiek hartutako konpromiso irmoaren isla. Testigantza eta informazio bilketa honek aurrera jarraitzen du “hernanioroimena.eus” web orriaren bitartez.

Horregatik guztia-erengatik, beharrezko ikusi dugu lan hau hernaniar guztien eskura jartzea. Iragana ezin da aldatu, baina egia eza-gutzea ezinbesteko urratsa da ondorioak gainditzeko, bizikidetza lantzeko eta, erreparazioarekin eta

De la necesidad de trabajar por y para mejorar la convivencia en nuestro pueblo en mayo de 2014, echó a andar, de forma muy discreta, la mesa de la convivencia. Desde entonces, este espacio de diálogo ha estado conformado por todas las sensibilidades políticas con representación en el Ayuntamiento de Hernani.

La primera acción pública que supuso dar un paso hacia adelante fue la colocación en el parque Ave María, de la Piedra de la Memoria el 10 de noviembre de 2015. Un hito para nuestro pueblo que contó con la participación de hernaniarros de todo el espectro político. La piedra colocada supuso un punto de partida en el camino de recuperación de la memoria, un camino tan complicado como necesario.

Desde el primer momento, todas las personas integrantes de la mesa entendimos que era imprescindible conocer la realidad de nuestro pueblo. Una realidad que no estaba recogida, bien por haber sido silenciada bien porque solo habíamos querido ver parte de la misma. Así, se encargó a la Sociedad de Ciencias Aranzadi la identificación de las vulneraciones de derechos humanos ocurridas en Hernani desde 1960 hasta 2018 y su plasmación en un documento. En enero de 2019 presentamos el primer informe del intenso trabajo de documentación realizado hasta el momento. El Informe denominado *“Violaciones de Derechos humanos y otros sufrimientos de motivación política ocurridos en Hernani o a personas de Hernani (1960–2018)”* fue la primera versión. Un trabajo de investigación muy importante para dar a conocer la historia más cercana de Hernani.

En el proceso realizado por Aranzadi se ha comprobado que la realidad vivida por los y las hernaniarros fue y es muy dura. Hoy tenemos que agradecer a todas las personas que han dado su testimonio que, superando su dolor nos han mostrado con generosidad sus vivencias y su realidad. Sin su testimonio, este libro que tenéis entre vuestras manos no se podría haber escrito. Aunque somos conscientes de que otros testimonios, que también forman parte de nuestra historia pueden no estar recogidos.

En este libro se contabilizan 1046 casos de violaciones de derechos humanos y otros actos derivados de la violencia de motivación política, se identifican a 707 víctimas y es reflejo de un firme compromiso adquirido por todas las fuerzas políticas del Ayuntamiento. Este trabajo de recogida de testimonios y de información se sigue realizando a través de la página web “hernanioroimena.eus”.



«Gaur, beren lekukotza eman duten guztiei eskerrak eman beharrean gaude, beren samina gaindituz eskuzabaltasunez erakutsi dizkigutelako beren bizipenak eta errealitatea. Testigantza horiek gabe, eskuartean duzuen liburu hau ezingo zen idatzi»



«Hoy tenemos que agradecer a todas las personas que han dado su testimonio que, superando su dolor nos han mostrado con generosidad sus vivencias y su realidad. Sin su testimonio, este libro que tenéis entre vuestras manos no se podría haber escrito»

justiziarekin batera, liburu honetan azaleratu dena berriro errepika ez dadila bermatzeko.

Espero dugu egia berreskuratzeko bidean ematen ditugun pausoez erreparaziorantz eramango gaituztela, eta etorkizunean urrats horiek gure buruari eragin diogun sufrimendua gainditzeko tresna bihurtzea.

HERNANIKO UDALA: EH BILDU, EAJ-PNV, ELKARREKIN
PODEMOS-ORAIN HERNANI eta PSE-EE/PSOE

Por todo esto, hemos considerado imprescindible ponerlo a disposición de los y las hernaniarras. El pasado no se puede cambiar, pero saber la verdad es el paso imprescindible para superar las consecuencias, trabajar la convivencia y, junto a la reparación y la justicia, garantizar que lo que ha aflorado en este libro, no se vuelva a repetir.

Esperamos que los pasos que sigamos dando en la recuperación de la verdad nos lleven hacia la reparación y que en el futuro se convierta en un instrumento que nos permita superar el sufrimiento que nos hemos infligido.

AYUNTAMIENTO HERNANI: EH BILDU, EAJ-PNV, ELKARREKIN
PODEMOS-ORAIN HERNANI y PSE-EE/PSOE

SARRERA INTRODUCCIÓN

2017an, Aranzadi Zientzia Elkarteak ikerketa-proiektu bat jarri zuen martxan 1960tik hasi eta gaurdaino Hernanin eta hernaniarren aurka (udalerrian edo beste leku batzuetan) gertatutako motibazio politikoko indarkeriaren eta giza eskubideen urraketa larrien irismena ezagutzeko.

2014az geroztik udalerriko indar politiko guztien artean lortutako adostasunean du jatorria proiektu honek (urte hauetan guztietan legealdiak aldatu arren). Elkarbizitza mahaiaren eta biktimekin egindako lanaren bidez eramán da aurrera proiektua. Gizarte eraldatzeko prozesuetan adituak diren pertsonen koordinatu dute lana biktimekin. Adostasun horri, udal-ordezkarien inplikazioari eta Hernaniko beste eragile sozial batzuen inplikazioari esker, ikerketaren lehen faseko emaitzei buruzko hasierako txostena aurkeztu zen 2018ko abenduan. Ordurako, giza eskubideen urraketa larriak eta motibazio politikoko indarkeriaren ondoriozko beste sufrimendu batzuk pairatu zituzten 416 pertsona zeuden identifikatuta. Halaber, erakunde publiko eta pribatuen ondasun materialen aurkako 182 atentatu dokumentatu ziren, eta hamar elkarrizketa egin ziren.

Hala ere, txosten hau argitaratu zenetik eta 2020ko iraillean *hernanioroimena.eus* webgunea aurkeztu zenetik, herriarrek proiektuarekiko zuten inplikazioa nabarmen igo zen. Horri esker, aukera izan dugu ikerketarekin jarraitzeko, datu berriak eskuratzeko, biktima eta kaltetu gehiago identifikatzeko, eta giza eskubideen urraketa larrien kasu gehiago dokumentatzeko.

Hala, argitalpen hau idazten amaitzean, giza eskubideen urraketa larrien 505 biktima dokumentatu dira, baita motibazio politikoko indarkeriak kaltetutako 202 pertsona ere, indarkeria horren emaitza heriotza edo zauriak izanik. Era berean, erakunde publikoen eta pribatuen ondasun materialen aurkako 244 atentatu identifikatu dira. Dena den, dokumentatutako kasuak eta horiek ziurtatzen dituzten proben kopurua nabarmen igo diren arren, 2018ko txostenean adierazten zen moduan, datuak ezin dira behin betikotzat hartu, batez ere, hiru faktoreren ondorioz.

Lehenik eta behin, kasu batzuetan, dokumentatutako urraketak zehatzago berretsi ahal izateko froga-elementuen inguruan ikertzen jarraitu behar da. Horretarako, kaltetutako pertsona gehiagok parte hartzeaz gain, lurraldeko eta estatuko artxibotarako sarbidea beharko litzateke, batez ere, gobernu-, polizi- eta justizia-artxiboetarako. Gertatutakoa modu fidagarrian jakiteko froga-elementu erabakigarriak egon litezke,

En 2017 la Sociedad de Ciencias Aranzadi puso en marcha un proyecto de investigación para conocer el alcance de la violencia de motivación política y los casos de graves violaciones de derechos humanos acontecidos en Hernani y contra hernanias (en el municipio o en otros lugares) a partir de 1960 y hasta la actualidad.

Este proyecto tiene su origen en el consenso logrado por todas las fuerzas políticas representadas en el municipio a partir de 2014, a través de la mesa de Convivencia (a pesar de los cambios de legislatura durante todos estos años) y el trabajo con las víctimas coordinado por personas expertas en procesos de transformación social. Fruto de este consenso, de la implicación de los representantes municipales y otros actores sociales de Hernani, en diciembre de 2018 se presentó un primer informe sobre los resultados de la primera fase de la investigación. Para entonces, estaban identificadas 416 personas que habían padecido graves violaciones de derechos humanos y otros sufrimientos derivados de la violencia de motivación política. Asimismo, se documentaron 182 atentados contra bienes materiales de instituciones públicas y privadas, y se realizaron una decena de entrevistas.

Sin embargo, a partir de la publicación de este informe y de la presentación de la web *hernanioroimena.eus* en septiembre de 2020, la implicación de la ciudadanía en el proyecto aumentó de manera considerable. Esto ha permitido seguir implementando la investigación, obteniendo nuevos datos, identificando a un volumen mayor de víctimas y afectados, y ampliando el número de casos de graves violaciones de derechos humanos documentados.

De este modo, al cierre de la redacción de esta publicación, se han documentado 505 víctimas de graves violaciones de derechos humanos, además de 202 personas afectadas por la violencia de motivación política con resultado de muerte o heridas. Asimismo, se han identificado 244 atentados contra bienes materiales de entidades públicas y privadas. No obstante, y a pesar del aumento significativo de casos documentados y del número de pruebas que los certifican, tal y como se señalaba en el informe de 2018, los datos no podrán ser considerados como definitivos debido fundamentalmente a tres factores.

En primer lugar, hay casos en los que es preciso seguir investigando en torno a los elementos de prueba que pudieran corroborar de manera más concisa aquella o aquellas vulneraciones documentadas. Para este cometido, no solo sería preciso una mayor participación de las personas afectadas, sino que



Hernanin eta hernaniarren aurka giza eskubideak urratzea eta motibazio politikoko beste sufrimendu batzuk izeneko txostena aurkeztea. 2018ko abendua (HUA).

Presentación del informe Vulneración de Derechos Humanos y otros sufrimientos de motivación política ocurridos en Hernani y contra hernaniarras. Diciembre de 2018 (AMH).



«Argitalpen hau idazten amaitzean, giza eskubideen urraketa larrien 505 biktima dokumentatu dira, baita motibazio politikoko indarkeriak kaltetutako 202 pertsona ere, indarkeria horren emaitza heriotza do zauriak izanik. Era berean, erakunde publikoen eta pribatuen ondasun materialen aurkako 244 atentatu identifikatu dira»

ziurrenik, artxibo horietan. Aipatutako artxibo horiek irekizake egiletzari buruzko frog-elementu gehiago eman litzake hainbat kasutan, esaterako, Murillo Chacónen kasuan. Horrez gain, hainbat hernaniarren heriotza zer egoeratan gertatu zen jakiteko frog-elementuak ere eman litzake, batez ere, polizia-agenteekin izandako erasoetan gertatutako heriotzen kasuan edota jatorri politikoko indarkeriarekin lotutako gertakarietatik eratorritako beste heriotza batzuen kasuan. Hala-ber, artxibo horiek eskuratzek frog-elementuak gehi ditzake giza eskubideen urraketa batzuetan, frog-elementu bakarra kaltetutako pertsonen edo ingurukoen ahozko lekukotza denean; hori gertatzen da hamarnaka tortura-salaketatan, estorsio ekonomikoko kasuetan edota mehatxu larrien kasuetan.

Bigarrenik, ahozko lekukotzak biltzen jarraitu behar da, zuzeneko informazioa eta biktimen eta haien ingurukoen sufrimendua benetan ezagutzeko oinarritzko frog-elementuak baitira. Baina, gainera, lekukotza horiek beste itxura bat ematen diote ikerketaren xedeari; izan ere, giza eskubideen urraketen biktimak humanizatzea eta bistaratzea ahalbidetzen dute. Halaber, kontrakoak diren eragileen aldetik urraketak jasan dituzten pertsonen lekukotzak jasotzean, eta lekukotza horiek ikerketa-lan berean erlazionatzean, besteen sufrimenduaren aurrean ez ikusiarena egiteko pretentsioa murrizten da, eta elkar ulertzeko aukerak areagotzen dira.

Bestetik, giza eskubideen urraketa mota larri batzuek –batez ere, pertsonen aurkako mehatxu larriak eta estorsio ekonomikoa– zailtasun erantsia dakarte, sufritu duten pertsonen identifikazioari dagokionez. Hori dela eta, proiektu honen helburuak betetzeko eta berresteko, kasu horien ikerketa-eta dokumentazio-lanarekin jarraitu behar dugu.

Dena den, argitalpen honen ondoren sor litekeen informazio guztia *hernanioroimena.eus* webgunera eraman daiteke.

Azkenik, aipatzekoa da txosten honen helburua ez dela kontakizunaren inguruko inolako dialektikatan sartzea. Orrialde hauen xedea ez da gertatutakoa baloratzea, lan hori beste eragile batzuei baitagokie, eta, eragile horiek, horretarako materiala eta edukia topatuko dute txosten honetan.

además se necesitaría poder tener acceso a archivos de ámbito provincial y estatal, principalmente archivos gubernamentales, policiales y judiciales, en los que probablemente puedan hallarse elementos de prueba determinantes para un conocimiento fidedigno de lo acontecido. La apertura de estos archivos citados podría aportar mayores elementos de prueba en casos como los de Murillo Chacón en cuanto a la autoría, pero también sobre las circunstancias que rodearon a la muerte de varios hernanieras, principalmente en enfrentamientos con agentes policiales, así como otros fallecimientos derivados de hechos vinculados a la violencia de raíz política. Asimismo, este acceso a archivos podría añadir elementos de prueba que reforzaran algunas de aquellas violaciones de derechos humanos que cuentan con el testimonio oral de las personas afectadas o allegados como único elemento de prueba, tales como en decenas de denuncias de tortura, casos de extorsión económica o amenazas graves.

En segundo lugar, resulta necesario seguir profundizando en la recogida de testimonios orales, en cuanto fuente primaria de información y elemento de prueba fundamental para el conocimiento real del sufrimiento de las víctimas y sus allegados. Pero además, estos testimonios otorgan otro cariz al objeto de investigación, ya que permiten humanizar y hacer visibles a las distintas víctimas de diferentes vulneraciones de derechos humanos. Asimismo, cuando se recogen testimonios de personas que han padecido vulneraciones diferentes y por agentes opuestos, y estas a su vez se ponen en relación a través de un mismo trabajo de investigación, se reduce la pretensión de ignorar el sufrimiento ajeno y aumentan las posibilidades de comprensión mutua.

Por otra parte, existen ciertas tipologías de graves violaciones de derechos humanos, en especial aquellas relacionadas con las amenazas graves contra las personas y la extorsión económica, que entrañan una dificultad añadida con respecto a la identificación de las personas que la han padecido. Por ello, resulta imprescindible para la veracidad y el cumplimiento de los objetivos de este proyecto continuar con el trabajo de investigación y documentación.



«Al cierre de la redacción de esta publicación, se han documentado 505 víctimas de graves violaciones de derechos humanos, además de 202 personas afectadas por la violencia de motivación política con resultado de muerte o heridas. Asimismo, se han identificado 244 atentados contra bienes materiales de entidades públicas y privadas»

Behin txosten hau egin eta gertakariak ezagututa, egokiak eta aproposak balira, beharrezkotzat jotzen diren balorazioak edota aitortpenak egin daitezke. Gure lana, hortaz, beste bat da. Guri, Gizarte Zientzietako ikerlari gisa, gure txostenaren xedearren gainean eta aipatutako erreferentziazko epean gertatutako gertakariak modu faktikoan jasotzea dagokigu. Hori guztia, azken batean, gertatutakoa modu objektiboan ezagutzeko eskubideari dagozkion ildo batzuei jarraituz. Eskubide horrek izan behar luke aitortpen- eta justizia-printzipioen oinarria edo premisa.

En cualquier caso, toda aquella información que pudiera generarse con posterioridad a esta publicación, podrá trasladarse a la web *hernanioroimena.eus*

Por último, debemos mencionar que este informe no pretende incorporarse a ningún tipo de dialéctica en torno al relato. Desde estas páginas no pretendemos valorar lo sucedido, ya que esa labor corresponde a otros agentes, quienes van encontrar en este informe material y contenido para hacerlo. Si fueran pertinentes y oportunos, es a partir de este informe, una vez conocidos los hechos, cuando se podrán suceder las valoraciones o reconocimientos que se consideren necesarios. Nuestra labor, por tanto, es distinta. A nosotros como investigadores de las Ciencias Sociales nos corresponde la recogida fáctica de los hechos acaecidos sobre el objeto de nuestro informe y en el periodo de referencia señalado. Todo ello, conforme a unas directrices que atienden en última instancia al derecho a conocer objetivamente lo sucedido; derecho que es la base o premisa sobre la que se deberán articular los principios de reconocimiento y justicia.

METODOLOGIA **METODOLOGÍA**

1960tik gaurdaino Hernanin edo handik kanpo motibazio politikoko indarkeriak kaltetutako hernaniarrak identifikatzea izan da liburu honen helburu nagusia, baita udalerrri horretan jaioak edo bertako bizilagunak izan ez arren, Hernanin indarkeria mota hori jasan duten pertsonak identifikatzea ere. Halaber, testuinguruaren gaineko lanketa ere egin dugu, ikerketa honek kontuan hartzen baitu dokumentatutako gertakariak kokatzen diren denbora-tarteak (edo denbora-tarteak).

Bestetik, argitalpen hau proiektu honetarako berariaz sortutako datu-base batean bildutako informazioaren laburpena da, eta bertan sartu dira, ondo egiaztatu ondoren, dokumentatutako kasu bakoitzaren oinarri diren froga-elementuak. Hortaz, ikerketa-proiektu honetan erabilitako metodologiak uneoro izan duen diskrezio- eta konfidentzialtasun-irizpidea dela eta, garrantzi gehien duten datuen berri soilik eman dugu.

Hori dela eta, ikerketa pertsonengan zentratzea izan da helburu nagusia, pertsonak baitira azken 50 urteetan (eta, ondorioz, aldi historiko ezberdinetan) euskal gatazka izenarekin ezagutzen den testuinguruan gertatutako motibazio politikoko indarkeriaren hartzaileak. Horretarako, funtsezkoa izan da lehen mailako iturrietara jotzea (artxiboko dokumentuetara). Dena den, berriro ere, lehen mailako iturrietara edo iturri ofizialetara jotzeko izan dugun zailtasuna aipatu behar dugu, batez ere, legeak ezarritako mugen ondorioz. Emilio Majuelo historialariak orain dela gutxi adierazi duenez, horixe da indarkeria politikoen arloko ekoizpen historiografikoa urria izatearen arrazoi nagusietako bat¹.

Datu pertsonalak babesteko eskubidearen inguruko legedia da eragozpenik handiena. Datuak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulua, “Datuen komunikazioa” izenekoak, honela dio:

“1. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak hiru-garren bati komunika dakizkioke, soilik lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen legezko funtzioekin zuzenean lotuta dauden helburuetarako, eta interesdunaren aurretiazko baimenarekin”².

Dena den, baimena behar dela dioen arau orokorrak badu salbuespen bat 11. artikuluen 2. puntuan. Hortaz, gure xederako, a) ataleko salbuespena aipatu behar dugu:

El presente libro ha tenido por objeto principal la identificación de las y los hernaniarras afectados por la violencia de motivación política, en Hernani o fuera del municipio, así como de aquellas personas que sin ser naturales o vecinas de este municipio padecieron de alguna forma este tipo de violencia en Hernani, a partir de 1960 y hasta la actualidad. Asimismo, se ha llevado a cabo un trabajo de contextualización, ya que esta investigación tiene en cuenta el espacio temporal (o espacios temporales) en el que se sitúan los hechos documentados.

Por otra parte, esta publicación es una síntesis del conjunto de la información recopilada en una base de datos creada específicamente para este proyecto, en la cual se han integrado, una vez contrastados, todos aquellos elementos de prueba que fundamentan cada uno de los casos documentados. Por tanto, la razón por la que únicamente hacemos públicos los datos de mayor relevancia es el criterio de discrecionalidad y confidencialidad que ha marcado en todo momento la metodología aplicada en este proyecto de investigación.

Por tanto, el objetivo principal ha sido centrar la investigación en el factor humano, en cuanto receptor de la violencia de motivación política acontecida en el marco del conocido como conflicto vasco en los últimos 50 años; y, en consecuencia, abordando periodos históricos diferenciados. Para ello, el acceso a fuentes primarias (a documentos de archivo) ha sido fundamental. No obstante, es preciso apuntar una vez más la dificultad de acceso a las fuentes primarias u oficiales, debido fundamentalmente a las restricciones legales, una cuestión que recientemente ha señalado el historiador Emilio Majuelo como una de las causas principales de la escasa producción historiográfica en materia de violencia política¹.

El escollo fundamental viene dado por la legislación en relación al derecho a la protección de datos personales. La Ley Orgánica de Protección de Datos dice en su artículo número 11 “Comunicación de datos” lo siguiente:

“1. Los datos de carácter personal objeto del tratamiento solo podrán ser comunicados a un tercero para el cumplimiento de fines directamente relacionados con las funciones legítimas del cedente y del cesionario con el previo consentimiento del interesado”².

1 Majuelo, 2020, 283-296 or.

2 3/2018 Lege Organikoa.

1 Majuelo, 2020, pp. 283-296.

2 Ley Orgánica, 3/2018.

“a) Lege batek lagapena baimentzen duenean”³.

Hortaz, eta bizirik dauden pertsona fisikoei dagokienez, interesdunen baimena behar da, lege batek lagapena baimentzen duenean izan ezik. Hala, Espainiako Ondare Historikoa-ren Legeak dokumentu hauen kontsulta arautzen du 57.1. artikuluan:

“c) Pertsonen segurtasunari, ohoreari, bizitza pribatuaren eta familiaren intimitateari eta norberaren irudiari eragin diezaioketen eta izaera poliziala, prozesala, klinikoa edo bestelako izaera duten datu pertsonalak biltzen dituzten dokumentuak ezin izango dira publikoki kontsultatu, eragindako pertsonen berriazko baimenik ematen ez badute, edo eragindako pertsona hil eta hogeita bost urte igaro arte, betiere hil zen eguna ezagutzen bada, eta ezagutzen ez bada, dokumentuak kontsultatu ahal izateko berrogeita hamar urte igaro beharko dira, dokumentuko datatik hasita”⁴.

Nolanahi ere, puntu honetan beharrezkoa da kontsultatutako informazio ofizialaren egiazkotasunaren gainean hausnartzea. Zer fidagarritasun dute diktadura bete-betean zegoen Estatu bateko txosten polizialek, judizialek eta gobernadore zibilen txostenek, kontuan izanda ez zirela giza eskubideak errespetatzen eta atxilotuek edo auzipetuek ez zutela zuzenbide-estatu batek berezkoak dituen bermerik?⁵⁶ Mikel Aizpuru historialariaren hitzetan: “Nola jakin dezakegu zer puntutara arte fida gaitezkeen egiaztatu ezin dugun informazio batez, baldin eta informazio hori tratatu txar psikiko eta fisikoen bidez giza erresistentzia makurtzearen bidez jasoa izan badaiteke, atxilotuen aurkako salaketa eta zigorra frogatzeko elementu gisa erabiltzeko helburuarekin?”⁷

Adibide gisa, 1973ko ekainaren 21ean Hernanin atxilotua izan ondoren, Guardia Zibilaren kalabojoetan modu basatian torturatu zutela salatu zuen R.I.A.-k Kriminologiaren Euskal Institutuko (KREI) espezialisten aurrean⁸. Haren lekukotasuna zen frogak bakarra. Aitorpen hori jaso zen aldi berean, Guardia Zibilak atxiloteta horren inguruan egindako parteak, hau da, bertsio ofiziala, topatu zuen Aranzadiko

Sin embargo, la regla general de la necesidad de consentimiento se exceptúa en el punto 2 del artículo 11, siendo conveniente a nuestros efectos traer a colación la excepción del apartado a)

“a) Cuando la cesión está autorizada en una Ley”³.

Por lo tanto, y en lo referente a las personas físicas vivas, habrá que contar con el consentimiento de los interesados, salvo que la cesión esté autorizada en una Ley. En este sentido, la Ley de Patrimonio Histórico Español regula la consulta de estos documentos en su artículo 57.1:

“c) Los documentos que contengan datos personales de carácter policial, procesal, clínico o de cualquier otra índole que puedan afectar a la seguridad de las personas, a su honor, a la intimidad de su vida privada y familiar y a su propia imagen, no podrán ser públicamente consultados sin que medie consentimiento expreso de los afectados o hasta que haya transcurrido un plazo de veinticinco años desde su muerte, si su fecha es conocida o, en otro caso, de cincuenta años a partir de la fecha de los documentos...”⁴.

En cualquier caso, es preciso reflexionar en este punto sobre la veracidad de la información oficial consultada. Los informes policiales, judiciales, y de los gobernadores civiles de un Estado en plena dictadura, donde no se respetaban los derechos humanos ni el detenido o enjuiciado contaba con las garantías propias de un estado de derecho⁵, ¿qué fiabilidad tienen?⁶. En palabras del historiador Mikel Aizpuru: “¿cómo determinar hasta qué punto podemos fiarnos de una información que no podemos verificar, que pudo ser fruto del doblegamiento de la resistencia humana mediante los malos tratos psíquicos y físicos, y que tenía como principal objetivo servir de elemento probatorio de la acusación y condena de los detenidos?”⁷.

A modo de ejemplo, R.I.A. denunció ante especialistas del Instituto Vasco de Criminología (IVAC-KREI) haber sido torturado brutalmente en calabozos de la Guardia Civil tras su detención el 21 de junio de 1973 en Hernani⁸. Era su testimonio la única prueba. Al tiempo que se recogía esta declaración, el

3 *Ibidem*.

4 16/1985 Legea.

5 Fernández, 2018a, 99. or.

6 Buces, 2018a, 11. or.

7 Aizpuru, 2016, 231. or.

8 KREIk emandako informazioa.

3 *Ibidem*.

4 Ley 16/1985.

5 Fernández, 2018a, p. 99.

6 Buces, 2018a, p. 11.

7 Aizpuru, 2016, p. 231.

8 Información aportada por el IVAC-KREI.



«Argitalpen hau proiektu honetarako berariaz sortutako datu-base batean bildutako informazioaren laburpena da, eta bertan sartu dira, ondo egiaztatu ondoren, dokumentatutako kasu bakoitzaren oinarri diren froga-elementuak»

ikerketa taldeak Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan: “23ko goizean, komisariako kalabozoetan zela, komu-nera joateko baimena eskatu zuen eta, komunetik irtetean, angelu zuzeneko ertza zuen zutabe baten aurka bota zuen bere burua bi aldiz jarraian; lesio larriak eragin zizkion bere buruari, eta, horregatik, hiriko Ospitalean ingresatu behar izan zuten”⁹. Giza eskubideak errespetatzen ez zituen dikta-dura antidemokratiko eta bidegabe batean, zer sinesgarritasun du Guardia Zibilaren txosten batek tortura-salaketa baten aurrean?

Iturri ofizialak zalantzan jartzea, batez ere, diktaduraren garaioak (baina ez horiek bakarrik), ez da soilik aintzat hartu behar atxilotuen eta/edo torturatuen kasuan, heriotza eragin duten kasu larriagoetan ere aplikagarria baita. Ikusiko dugun moduan, heriotza-kasu batzuetan, bertsio ofizial mugatu batek ez ditu behar bezain argi utzi, Estatuko Segurtasun Indarren eskuetan edo haien ekintzen ondorioz hildako pertso-nekin. Hori argituz gero, hildako horietako batzuk bizitzeko eskubidearen urraketa baten biktimatzat jotzea eragin lezake, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik. Izan ere, biktima babesik gabe zegoen egoera batean gerta zitekeen heriotza, edo polizia-agenteei indarra modu neurrigabea erabili izanaren ondorioz. Beste modu batera esanda, Estatu-ko Segurtasun Indarrek bizitzeko eskubidea urratu izanaren biktimatzat har daitezke, “nahasmendu, abusu eta beste arrazoi batzuegatik”¹⁰.

Hori dela eta, aurrekoa kontuan hartuta, eta motibazio politikoko indarkeriaren irismena benetan ebaluatzeko hel-buruz, artxiboetan kontsultatutako datu ofizialak kontrastatu egin ditugu orain dela gutxiko hainbat argitalpen eta azter-lanetan gaiari buruz jasotzen diren informazioekin (esate-rako, KREIk torturen gainean egindako azterlana, aurrez ai-patu duguna, edota Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutuak ETak mehatxatutako pertsonen buruz egindako azterlana), eta, bereziki, 2013an Hernanin Euskal Memoria-ren Fundazioak egindako ikerketarekin; azken horrek be-rebiziko garrantzia duen oinarri dokumentala eta biktimen

equipo de investigación de Aranzadi hallaba en el Archivo His-tórico Provincial de Gipuzkoa el parte de la Guardia Civil sobre esta detención, es decir, la versión oficial: “en la mañana del 23, hallándose en los calabozos de Comisaría, solicitó permiso para ir a los servicios y cuando salía de los mismos se lanzó de cabeza por dos veces consecutivas contra la esquina de una columna de sección cuadrangular, produciéndose lesiones calificadas de pronóstico grave, por lo que hubo de ser ingresado en un Cen-tro Hospitalario de esta ciudad”⁹. En una dictadura en la que no se respetaban los derechos humanos, antidemocrática e ilícita, ¿qué credibilidad tiene un informe de la Guardia Civil frente a una denuncia de torturas?

Estos cuestionamientos sobre la fiabilidad de las fuentes oficiales, fundamentalmente (pero no únicamente) durante el período dictatorial, no solo deben tenerse en cuenta con res-pecto a las personas detenidas y/o torturadas, sino que también son aplicables a casos más graves con resultado de muerte, y que como veremos, una versión oficial restringida, ha podido dejar con insuficiente aclaración los hechos ocurridos en torno a per-sonas fallecidas a manos o por acción previa de las Fuerzas de Seguridad del Estado. Este esclarecimiento podría desembocar en la consideración de algunos de esos fallecidos como víctimas de una violación del derecho a la vida desde el punto de vista del derecho internacional de los derechos humanos, en tanto que las muertes podrían haberse producido en una situación de indefensión de la víctima o de desproporcionalidad del uso de la fuerza por parte de los agentes policiales. Dicho de otro modo, podrían ser consideradas víctimas de una violación del derecho a la vida por parte de las FSE, “por confusión, abusos y otros motivos”¹⁰.

Por ello, teniendo en consideración lo anterior, y con el objetivo de evaluar realmente el alcance de la violencia de mo-tivación política, los datos oficiales consultados en los archivos han sido contrastados con las informaciones que sobre la ma-teria se recogen en diferentes publicaciones y estudios recientes (tales como el citado estudio sobre torturas del IVAC-KREI o del Instituto Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto en rela-ción a las personas amenazadas por ETA), y de manera especial la investigación realizada por la Fundación Euskal Memoria en

9 Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua, 1973, Gobernu Zibilaren Funtsa, 3678/0.

10 Landa, 2008, 27. or. Carmena, 2013, 9-10. or.

9 AHPG, SIGC, 1973, Fondo Gobierno Civil, c. 3678/0.

10 Landa, 2008, p. 27. Carmena, 2013, pp. 9-10.



«Esta publicación es una síntesis del conjunto de la información recopilada en una base de datos creada específicamente para este proyecto, en la cual se han integrado, una vez contrastados, todos aquellos elementos de prueba que fundamentan cada uno de los casos documentados»

identifikaziorako oinarria eskaintzen ditu¹¹. Halaber, heme-roteka kontsultatu dugu, dokumentatutako kasuak kokatzen diren aldi historiko bakoitzerako. Azkenik, gertatutakoaren gaineko ezagutza zehatzagoa izateko, indarkeria horrek zuzenean kaltetutako pertsona batzuekin edo haien familiarte-koekin harremanetan jarri gara eta elkarrizketa batzuk egin dizkiegu. Lekukotzak jasotzea funtsezkoa izan da ikerketa pertsonengan zentratzearen helburua betetzeko.

Bestalde, aipamen berezia egin behar diogu “indarkeria politikoa” kontzeptuari; ezaugarri hauek dituen ikerketa batean tentazio moralizatzailetik ihes egin behar dugula iruditzen zaigu, Sophie Baby-k trantsizioari buruzko bere lanean proposatzen duen moduan,¹² “etikaren gaia testuinguruaren azterketara mugatuz”. Halaber, aipatutako egileak eta González Callejaren moduko indarkeria politikaren teori-koek dioten gisan, hiru dira indarkeria hori izaera politiko-koa dela zehazten duten irizpideak: helburua, nahitasuna eta ondorioa. Hau da, helburu politikoa eta intenzionalitate politikoa duten eta ondorio politikoa eragiten duten ekintzak, sorreran nahitakoak izan ala ez¹³.

ESPARRU KRONOLOGIKOA

Aurrez esan dugun moduan, dokumentatutako motibazio politikoko indarkeria-kasuak testuinguru historikoan kokatu ditugu. Ondorioz, hiru aldi historiko bereizi ditugu: bigarren Frankismoa (1960-1975), Trantsizioa (1976-1982) eta Demokrazia (1983tik aurrera). Aldi berean, hiru aldi horiek testuinguru orokor batean biltzen dira, euskal gatazka politikoa izenez ezaguna. Dena den, azken hamarkadetan gertatu den motibazio politikoko indarkeriaren definizio hau ez dute onartzen edo ez zaie egokia iruditzen eragile politiko eta sozialen gehiengoari. Hori dela eta, ikerketa honek barne hartzen dituen urteetan zehar erregistratutako motibazio politikoko indarkeria testuinguruan kokatzeko tresna gisa baino ez dugu erabiliko lan honetan, irakurketa alderdikoak

2013 en Hernani, la cual aporta una base documental y de identificación de víctimas de vital importancia¹¹. Asimismo, se ha consultado la hemeroteca para cada uno de los períodos históricos en los que se contextualizan los casos documentados. Por último, para acercarnos a un conocimiento más preciso de lo acontecido, se ha contactado y se han llevado a cabo una serie de entrevistas a personas afectadas directamente por esta violencia o familiares de las mismas. Esta recogida de testimonios ha resultado fundamental para cumplir con el objetivo marcado de centrar la investigación en el factor humano.

Por otra parte, debemos hacer una mención especial al concepto de violencia política, entendiendo que en un estudio de estas características debemos huir de la tentación moralizante, “relegando la cuestión de la ética al análisis contextual”, tal y como propone Sophie Baby en su obra relativa a la transición¹². Asimismo, al igual que la citada autora o teóricos de la violencia política como González Calleja, son tres los criterios que determinan cuál es la violencia que consideramos de carácter político: el objetivo, la intencionalidad y el efecto. Es decir, aquellos actos en los que se da un objetivo político, una intencionalidad política y producen un efecto político, pudiendo ser en origen deseados o no¹³.

MARCO CRONOLÓGICO

Como se ha señalado anteriormente, se ha llevado a cabo una labor de contextualización histórica de los casos de violencia de motivación política documentados. En consecuencia, se han diferenciado tres períodos históricos: segundo Franquismo (1960-1975), Transición (1976-1982) y Democracia (a partir de 1983), dentro de un contexto general que pervive durante estos tres períodos y que se ha dado en llamar conflicto político vasco. No obstante, esta definición de la violencia de motivación política ocurrida en las últimas décadas no es aceptada o no resulta adecuada para el conjunto de los agentes políticos y sociales, por lo que su uso en este trabajo pretende ser meramente una herramienta contextualizadora relativa a la violen-

11 Etxeberria *et al.*, 2017. Intxaurre *et al.*, 2016. Euskal Memoria, 2013. Hala ere, esan beharra dago ikerketa honek ez zuela udal-ordetzaritzaz zuten alderdi politikoa guztien babesa jaso.

12 Baby, 2018, p. 41.

13 *Ibidem*, p. 44.

11 Etxeberria *et al.*, 2017. Intxaurre *et al.*, 2016. Euskal Memoria, 2013. No obstante, es preciso señalar que este estudio no obtuvo el apoyo de todos los partidos políticos con representación municipal.

12 Baby, 2018, p. 41.

13 *Ibidem*, p. 44.

edo subjektiboak justifikatzeko asmorik gabe, Euskal Herria¹⁴ izenez ezaguna den eremuan (hau da, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Frantziako Estatuari dagokion lurralde-demarkazioa, Ipar Euskal Herria edo Communauté Pays Basque izenekoa) eta Espainiako eta Frantziako estatuetak gainerako eskualdeetan, non aipatutako gatazkatik eratorritako indarkeria-ekintzak gertatu diren.

Halaber, badakigu zalantzak sor daitezkeela bereizi ditugun hiru aldi historikoen eta, are gehiago, emandako izendapenaren egokitasunaren gainean, baina ukaezina da aldi bakoitzaren amaierako daten ondoren ziklo berri bat hasten dela.

Bestetik, ikerketa honen abiapuntu gisa 1960. urtea aukeratu izanari dagokionez, 1950eko urteen amaieratik 1960ko urteen hasierara hainbat gertakari izan ziren, eta horrelako ikerketa baten hasierako data gisa 1960. urtea ezartzen duen esparru kronologikoa aldatzeko arrazoiak eman ditzakete. Izan ere, 1956ko otsailaren 10ean erregimen frankistaren lehen salbuespen-egoera deklaratu zen, hiru hilabetez luzatu zena. Zuzenbide Fakultateko ikasle madrildarren talde baten adierazpena izan zen salbuespen-egoera horren iturburua. *Sindicato Español Universitario* (SEU) sindikatuari aurre egiteko saiakera izan zen adierazpen hura, eta milaka pertsona batu zitzaizkion berehala¹⁵. 1958ko abenduan *Euskadi Ta Askatasuna* erakundea sortu zuen ikasle talde abertzale batek. Ikasle horiek 1952az geroztik klandestinitatean lanean ari ziren, *Ekin* proiektuaren bidez¹⁶. Santiago de Pablaren hitzetan, *Euskadi ta Askatasuna* “oposizioko protagonista nagusia izan zen Euskal Herrian 60ko urteen erdialdetik, edo, gutxienez, jarduera handiena garatu zuen erakundea, eta agintari frankistak kezkatu zituen”¹⁷. ETAk 1968ko ekainaren 7an eragin zuen lehen hildako biktima, baina erakundeak 1959ko abenduan egin zituen lehen ekintza armatuak, Gasteizen, Bilbon eta Santanderren lehergailu artisauak jarrita¹⁸. Gero, 1961eko martxoaren 21ean, Guardia Zibil batzuek “Frantziatik etorritako ustezko ekintzaile armatu” batzuei tiro egin zieten Boluetako (Bilbo) kontrol batean¹⁹. Ondorioz, José Antonio Martín-Ballesteros larri zauritu zen, eta Javier Batarrieta hil egin zen. Bietako batek ere ez zuen zerikusirik inolako

cia de motivación política registrada entre los años que trata esta investigación, tanto en el territorio conocido como Euskal Herria¹⁴, es decir la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra y la demarcación territorial perteneciente al Estado francés denominada Ipar Euskal Herria o Communauté Pays Basque, como en el resto de las regiones de los Estados español y francés donde ha habido actos de violencia derivados del citado conflicto, sin ánimo de justificar lecturas partidistas o subjetivas.

Asimismo, somos conscientes de que los tres períodos históricos diferenciados, y más aún la denominación dada, pueden generar dudas en cuanto a su idoneidad, si bien lo que parece incuestionable es que tras las fechas finales de cada período se inicia un nuevo ciclo.

Por otra parte, en cuanto al año de 1960 como punto de partida de esta investigación, hay varios episodios entre finales de la década de 1950 y comienzos de 1960 que podrían ofrecer razones para modificar el marco cronológico por el que se establece el año 1960 como fecha de inicio para una investigación de estas características. A saber, el 10 de febrero de 1956 se declaró el primer estado de excepción del régimen franquista, prolongándose durante tres meses, y cuyo origen fue un manifiesto de un grupo de estudiantes madrileños de la Facultad de Derecho en un intento de hacer frente al *Sindicato Español Universitario* (SEU), y al que pronto se unieron miles de personas¹⁵. En diciembre de 1958 nació *Euskadi Ta Askatasuna*, una organización creada por un grupo de estudiantes abertzales que ya desde 1952 venían trabajando en la clandestinidad a través del proyecto *Ekin*¹⁶; y que, de acuerdo con lo señalado por Santiago de Pablo, “fue la principal protagonista de la oposición en el País Vasco desde mediados de los años 60 o al menos la organización que mayor actividad desplegó y preocupó a las autoridades franquistas”¹⁷. La primera víctima mortal de ETA no se produjo hasta el 7 de junio de 1968, si bien las primeras acciones armadas de esta organización se llevaron a cabo en diciembre de 1959, tras la colocación de explosivos artesanales en Vitoria, Bilbao y Santander¹⁸. Posteriormente, el 21 de marzo de 1961, miembros de la Guardia Civil abrieron fuego en Bolueta (Bilbao) contra supuestos “activistas armados

14 2004az geroztik, Euskaltzaindiak Euskal Herria izendapena proposatzen du “Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Garaia eta Beherea) eta Zuberoa batera izendatzeko”. EUSKAL HERRIA IZENDAPENA - Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018).

15 Mesa, 2006, 64-155. or. Ysàs, 2004, 1-3. or.

16 De Pablo, 2019a, 45. or. Garmendia, 1983, 15-18. or. De Pablo, 2015, 355-360. or.

17 De Pablo, 2002, 108. or.

18 Hala ere, ekintza horiek ez zituen inoiz ETAk aldarrikatu, eta zerikusi handiagoa izan zuten erakunde horretako kideen ekintza partikularrekin (Núñez *et al.*, 180. or.)

19 Sainz, 1993, 126. or.

14 La denominación Euskal Herria es la propuesta por la Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia) desde 2004 “para designar conjuntamente a Álava, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Navarra (Baja y Alta) y Zuberoa”: LA DENOMINACIÓN EUSKAL HERRIA - Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018).

15 Mesa, 2006, pp. 64-155. Ysàs, 2004, pp. 1-3.

16 De Pablo, 2019a, p. 45. Garmendia, 1983, pp. 15-18. De Pablo, 2015, pp. 355-360.

17 De Pablo, 2002, p. 108.

18 No obstante, estas acciones no fueron nunca reivindicadas por ETA y tuvieron más que ver con acciones particulares de miembros de esta organización (Núñez *et al.*, p. 180)

jarduera iraultzailerekin²⁰. Lau hilabete geroago, zehazki, uztailean 18an, Donostian tren bat bidetik ateratzen saiatu zen ETA. Frankismoko gudari ohiak zihoazen tren horretan. Ekintzak huts egin zuen, eta erakundeko kide batzuk atxilotu zituzten²¹.

Bestetik, 1960. urtean ez zen lege-aldaketa garrantzitsurik izan errepresioaren arloan (1794/1960 Dekretua salbu²²). Masoneriaren eta Komunismoaren Errepresiorako Legeak indarrean jarraitu zuen 1963ra arte²³, eta 1945ean Erantzukizun Politikoen Legea indargabetu bazuten ere, erantzukizun politikoen gainean irekitako espedienteek haien bidea jarraitu zuten, 1966an dekretu bidez delitu hori iraungita zegoela adierazi zuten arte²⁴. Halaber, 36ko Gerraren preso ohiak kontrolatzeaz arduratzen diren Zaintzapeko Askatasun Zerbitzuaren Tokiko Batzarrek indarrean jarraitu zuten 1970eko urteen hasierara arte. 1969ko apirilaren 1era arte, gatazkatik 30 urtera arte, ez ziren preskribatu kolpisten kontrakoek egindako ustezko delituak. Hain zuzen ere, 1963ko apirilaren 20an Julian Grimau fusilatu zuten, gatazkan egindako delituak egotzita²⁵. Horrez guztiaz gain, jurisdikzio militarrek justizia-administrazioaren organoa izaten jarraitu zuen motibazio politikoko delituetan, *bidelapurreriaren eta terrorismoaren errepresioari* buruzko 1794/1960 eta 9/1968 dekretuetatik aurrera²⁶.

Hori guztia dela eta, puntu honetan gogoratu beharrekoa da gure azterlanaren hasieran diktadura frankistaren aldi jakin batean zentratu dugun arren, diktadura hura eskubideak eta askatasunak urratzen zituen erregimena izan zela bere osotasunean. Hain zuzen ere, indarkeria politikoen arloko ikerketen, lege esparruen eta politika publikoen hasierako urte gisa 1960a finkatzeak arrisku bat du: “erregimen faxista errugabetzea” indarkeriaren erabilera sistematikoari dagokionez, eta oposizioko taldeen erantzunean zentratzea (bereziki, ETA). Ondorioz, diktadura desagertu egingo litzateke “azterketaren xedetik, zeinak diktaduraren eta haren ondorioen erantzun gisa ulertzen duen borroka armatua”²⁷.

Dena den, bada funtsezko arrazoi bat estatu mailan zein erkidego mailan biktimak oroitzeko eta aitortzeko politikak eta indarkeria politikoen ondoriozko giza eskubi-deen urraketa larrien gaineko ikerketak bultzatzeko hasierako urte gisa 1960 finkatu izana azaltzen duena: 1960ko

llegados de Francia”¹⁹, quedando gravemente herido José Antonio Martín-Ballesteros, y falleciendo Javier Batarrita, ambos ajenos a cualquier actividad subversiva²⁰. Cuatro meses más tarde, concretamente el 18 de julio, ETA intentó descarrilar un tren en Donostia en el que viajaban excombatientes franquistas, una acción frustrada que derivó en detenciones de miembros de esta organización²¹.

Por otro lado, no fue 1960 un año de cambios legislativos trascendentales en materia represiva (a excepción del Decreto 1794/1960²²). La Ley de Represión de la Masonería y del Comunismo, permaneció vigente hasta 1963²³, y aunque la Ley de Responsabilidades Políticas quedó derogada en 1945, los expedientes incoados sobre responsabilidades políticas siguieron su curso hasta que en 1966 se declaró por decreto la extinción de este delito²⁴. Asimismo, las Juntas Locales del Servicio de Libertad Vigilada encargadas del control de exreclusos relacionados con la Guerra del 36 continuaron vigentes hasta comienzos de la década de 1970. Hasta el 1 de abril de 1969, 30 años después del final de la contienda, no prescribieron los supuestos hechos delictivos de combatientes contrarios a los golpistas. De hecho, en el fusilamiento de Julián Grimau el 20 de abril de 1963 se aludió a delitos cometidos en la contienda²⁵. A todo esto se suma la permanencia de la jurisdicción militar como órgano de administración de justicia en delitos de motivación política, a partir de los decretos 1794/1960 y 9/1968 *sobre represión del bandidaje y terrorismo*²⁶.

Por todo ello, cabe recordar en este punto que, aun centrandolo el inicio de nuestro estudio en un período determinado de la dictadura franquista, esta fue en su conjunto un régimen vulnerador de derechos y libertades. De hecho, la fijación del año 1960 como génesis de investigaciones, marcos legislativos y políticas públicas en materia de violencia política, corre el riesgo de llevar a “una exculpación del régimen fascista” en su uso sistemático de la violencia para centrarlo en la respuesta de los grupos opositores (especialmente ETA), lo que provocaría que la dictadura desapareciera del “objeto de análisis en el que entender la lucha armada como respuesta al mismo y a sus consecuencias”²⁷.

Sin embargo, la razón fundamental por la que se estableció el año de 1960 para impulsar tanto en el ámbito estatal como

20 Egaña, 2014 (*Gara*, 2014-07-23). Fernández, 2018b, 261-292. or. Sainz, 1993, 122-127. or.

21 Sainz, 1993, 142. or. Fernández, 2016. Pérez, 2021, 234. or.

22 1794/1960 Dekretua.

23 1940ko maiatzaren 1eko Legea.

24 1939ko otsailaren 9ko Legea. Peña, 2012, 177-178. or.

25 Capella, 2009, 59. or.

26 1794/1960 Dekretua. 9/1968 Lege Dekretua.

27 Majuelo, 2021, 287-288. or.

19 Sainz, 1993, p. 126.

20 Egaña, 2014 (*Gara*, 23-07-2014). Fernández, 2018b, pp. 261-292. Sainz, 1993, pp. 122-127.

21 Sainz, 1993, p. 142. Fernández, 2016. Pérez, 2021, p. 234.

22 Decreto, 1794/1960.

23 Ley, de 1 de mayo de 1940.

24 Ley, de 9 de febrero de 1939. Peña, 2012, pp. 177-178.

25 Capella, 2009, p. 59.

26 Decreto 1794/1960. Decreto-ley 9/1968.

27 Majuelo, 2021, pp. 287-288.

ekainaren 27an Amarako (Donostia) tren-geltokian egin-dako atentatua, non Begoña Urroz Ibarrola hil zen, 22 hilabete haurra. Atentatu hori ETari egozten zitzaion ofizialki duela hiru urte arte, baina, 2010ean Iñaki Egaña²⁸ eta 2011n Ainhoa Oiartzabalek²⁹ (Terrorismoaren Biktimen Aitorpenerako eta Babes Integralerako Legea³⁰ onartu zen urte berean), egilerik probaleena DRIL (*Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación*, 1959an espainiar erbesteratuek eta portugaldarrek sortutako erakunde armatua, Frankismoaren eta salazarismoaren aurkakoa) izango zela adierazi zuten³¹. Nolanahi ere, 2019an aitortu zuten ofizialki DRILen biktima gisa, Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroak egindako txostenaren ostean³².

Halaber, estatu zein erkidego mailan hainbat lege-xedapen onartu dira azken urteetan, abiapuntu gisa 1960. urtea ezartzea iradokitzen digutenak. Dena den, batzuetan, lan honetarako garatutako ikerketa-lanak 1950eko urteen amaierara eramango gaitu ezinbestean. Izan ere, hainbat gertaera izan ziren urte haietan: lehen salbuespen-egoera 1956an, ikastolen susperraldia, langile-mugimenduen hazkundera, edota erregimen frankistaren egitura-alaketak, hala nola 1959ko Egonkortze Plana.

Zentzu horretan, azken urteetan Espainiako estatuko erakundeak ahalegin nabarmena egiten ari dira Espainiako eta Frantziako estatuek ezarritako ordenamendu juridikoen arabera subertsiboak edo ihardukitzaileak diren eragile politikoei, eragile sozialei eta talde armatuei egindako giza eskubideen urraketak argitzeko³³. Bultzada eman diote, ez soilik arlo polizial edo judizialei, baizik eta legedi arlotik, *Terrorismoaren Biktimen Aitorpenerako eta Babes Integralerako 29/2011 Legearen bidez*³⁴. Arau horrek Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentro Fundazioaren (FCMVT) sorrera ekarri zuen, 57. artikulua bitartez³⁵.

autonómico políticas de memoria y reconocimiento de víctimas, así como investigaciones sobre graves violaciones de derechos humanos derivadas de la violencia política, fue el atentado del 27 de junio de 1960 en la estación de tren de Amara (Donostia), en la que falleció la niña de 22 meses Begoña Urroz Ibarrola. Oficialmente este atentado se atribuyó a ETA hasta hace apenas tres años, a pesar de que en 2010 Iñaki Egaña²⁸ y en 2011 Ainhoa Oiartzabal²⁹ (el mismo año en el que se aprobó la Ley de Reconocimiento y Protección Integral a las Víctimas del Terrorismo³⁰), apuntaban al DRIL (*Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación*, organización armada antifranquista y antisalarista creada en 1959 por exiliados españoles y portugueses) como autoría más probable³¹. No obstante, no fue reconocida con carácter oficial como víctima del DRIL hasta 2019, tras el informe elaborado por el Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo³².

Asimismo, tanto a nivel estatal como autonómico se han ido aprobando en los últimos años una serie de disposiciones legales que nos sugiere el establecimiento del año 1960 como punto de partida, aunque en ocasiones la labor investigadora desarrollada para este trabajo nos retrotraiga irremediablemente a finales de la década de 1950; debido fundamentalmente a hechos como el primer estado de excepción de 1956, el resurgimiento de las ikastolas, el incremento de las movilizaciones obreras, o cambios estructurales del régimen franquista como el Plan de Estabilización de 1959.

En este sentido, desde instituciones del Estado español se vienen realizando en los últimos años un esfuerzo considerable en el esclarecimiento de vulneraciones de derechos humanos cuyos responsables son agentes políticos y sociales, así como organizaciones armadas, consideradas de carácter subversivo o contestataria³³, con respecto a los ordenamientos jurídicos establecidos por los Estados español y francés. Un impulso no solo desde el ámbito policial o judicial, sino también desde el legislativo mediante la Ley 29/2011, de *Reconocimiento y Protección Integral a las Víctimas del Terrorismo*³⁴; una norma que trajo consigo la creación de la Fundación Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo (FCMVT) a través de su artículo 57³⁵.

28 Egaña, 2010 (*Gara*, 2010-02-12). 2019an Egaña berririo hitz egin zuen gai horren gainean: Egaña, 2019 (*Gara*, 2019-06-26).

29 Oiartzabal, 2011 (*Berria*, 2011-02-02).

30 29/2011 Legea.

31 Halaber, 2010ean, Santiago de Pablok *El Correo* egunkariako artikulua batean adierazi zuen ez zegoela atentatua ETak egin izanaren gaineko iturri fidagarririk, eta egilea DRIL izan zitekeela aipatzen zuen: De Pablo, *El Correo*, (2010-06-19).

32 Fernández eta Aguilar, 2019. De Pablo, 2015, 371-372. or.

33 Baby, 2012, 1-21. or.

34 29/2011 Legea.

35 29/2011 Legea aldatu egin zen 2012ko ekainean, 2013rako *Estatuko Aurrekontu Orokorrari* buruzko irailaren 27ko 17/2012 Legearen bidez. BOE, 2012ko abenduak 28, 312. zk. Aipatutako 29/2011 Legearen 3 bis artikulua gehitu da, aldi berean, indarkeriazko delituen biktimetazko kalte-ordainei buruzko Europako Hitzarmena Berresteko Tresnaren (1983an onartua) 2., 3. eta 8. artikuluekin bat datorrena. Aldaketak, zehazki, honako hau dio: "Lege honetan aitortzen diren laguntzak eta prestazioak ematea indarkeriazko delituen biktimetazko kalte-ordainei buruzko Europako Hitzarmenak ezarritako printzipioen mende egongo da". Bestetik, Hitzarmen horren 8.2. artikulua honakoa ezartzen du: "kalte-

28 Egaña, 2010 (*Gara*, 12-02-2010). En 2019 Egaña volvió a referirse a esta cuestión: Egaña, 2019 (*Gara*, 26-06-2019).

29 Oiartzabal, 2011 (*Berria*, 02-02-2011).

30 Ley 29/2011.

31 Asimismo, en 2010 Santiago de Pablo señalaba en un artículo en *El Correo* que no existía fuentes fidedignas sobre que el atentado lo cometiera ETA, y apuntaba a que el autor pudiera haber sido el DRIL: De Pablo, *El Correo*, (19-06-2010).

32 Fernández y Aguilar, 2019. De Pablo, 2015, pp. 371-372.

33 Baby, 2012, pp. 1-21.

34 Ley 29/2011.

35 La Ley 29/2011 fue modificada en junio de 2012 a través de la Ley 17/2012, de 27 de septiembre, de *Presupuestos Generales del Estado para 2013*. BOE, 28 de

Bestetik, 2011. urteaz geroztik, Eusko Legebiltzarrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak esparru legal propioa bultzatu dute, giza eskubideen arloko nazioarteko legedian oinarrituta. Esparru legal horrek ikuspegi integrala eskaintzen dio azken hamarkadetan EAEn izandako indarkeriaren gaiari³⁶. 1960 eta 1978 artean giza eskubideen urraketa larrien biktimak izandako pertsonak erreparatzeari buruzko 2012ko ekainaren 12ko dekretua³⁷ lehen pausoa izan zen Ordena Publikoko Indarreko kideek egindako “motibazio politikoko indarkeria-ekintzak” eta “sufirimendu bidegabeak” ikertzeaz arduratuko zen Balorazio Batzorde bat sortzeko. Batzorde horrek txosten bat aurkeztu zuen 2017an. Guztira jasotako 239 eskaeretatik, 187 pertsona biktima gisa aitortzen zituen txosten hark, 107/2012 Dekretuaren arabera. 187 pertsona horiek giza eskubideen urraketa mota ezberdinen biktimak dira. Haien azterketa bi funtsezko irizpideren arabera egiten da: alde batetik, gertakaria existitu zela frogatzea, eta bestetik, pertsona bakoitzak jasan zuen urraketa adieraztea, eta urraketa horren inpaktu fisiko edo psikologikoak, “ondorioak uzten dituztenak”³⁸. Era berean, gaur egun 1978tik 1999ra bitarteko giza eskubideen urraketen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko lanean ari dira³⁹. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzak eta *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak 1960. urtea ezartzen dute *memoria hurbila*⁴⁰ deitzen diotenaren gaineko azterlanen hasierako data gisa.

Nafarroako lurraldeari dagokionez, 16/2019 Foru Legeak eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimak aitortu eta erreparatu nahi ditu, 1950etik aurrera eta gaur egun arte⁴¹.

1975. urteari eta sistema demokratiko bateranzko trantsizio gisa ezagutzen dugun aldiaren hasierari dagokionez, Francoren heriotza izan zen gertakari erabakigarria, ziklo berri bat ireki baitzen orduan. Laburtuz, 1976ko abenduaren 15ean Erreforma Politikorako Legea onartu zen. Ondoren, 1977ko ekainaren 15ean, lehen hauteskunde

Por su parte, desde el año 2011, tanto el Parlamento Vasco como los diferentes gobiernos de la Comunidad Autónoma Vasca, vienen impulsando un marco legal propio basado en la legislación internacional en materia de derechos humanos, el cual aporta un enfoque integral a la cuestión de la violencia en la CAV durante las últimas décadas³⁶. El decreto del 12 de junio de 2012³⁷ de reparación de aquellas personas que habían sido víctimas de graves violaciones de derechos humanos entre 1960 y 1978, fue un primer paso que establecía la creación de una Comisión de Valoración encargada de investigar los hechos de “violencia de motivación política” y “sufrimientos injustos” cometidos por miembros de las Fuerzas de Orden Público. Esta Comisión presentó en 2017 un informe con las 187 personas reconocidas como víctimas en virtud del Decreto 107/2012, de un total de 239 solicitudes. Estas 187 son víctimas de diferentes tipologías de vulneraciones de derechos humanos, cuyo estudio se desarrolla en base a dos criterios fundamentales: mostrar que el hecho existió, y señalar la vulneración que cada una de las personas sufrió y sus impactos físicos o psicológicos “que supongan secuelas”³⁸. Asimismo, en la actualidad se trabaja en el reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos entre 1978 y 1999³⁹. Además, la Secretaría de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco y el Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos *Gogora* establece 1960 como la fecha inicial para los estudios relativos en lo que ha dado en llamar *memoria reciente*⁴⁰.

Respecto al territorio navarro, la Ley Foral 16/2019 pretende reconocer y reparar a las víctimas de actos de motivación política provocados por grupos de extrema derecha o funcionarios públicos, a partir de 1950 y hasta nuestros días⁴¹.

En lo que respecta a la fecha de 1975 y el inicio del período conocido como transición a un sistema democrático, lo que

ordaina murriztu edo bertan behera utz daitezke biktimak edo eskatzaileak delinkuentzia antolatuan parte hartzen badu edo indarkeriazko delituak egiten dituen erakunde bateko kidea bada” (17/2012 Legea). Aldaketa horretan oinarrituta, ukatu egin zaizkie kalte-ordainak talde armatuakotako kideak izan zitezkeen terrorismoaren biktimen familiartekoei.

36 Fernández eta Hristova, 2019.

37 107/2012 Dekretua.

38 Martín, 2017.

39 5/2019 Legea.

40 Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzaren bidez eta *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren bidez hartutako terminologia.

41 16/2019 Foru Legea.

28 de diciembre de 2012, nº 312, introduciéndose un nuevo artículo 3 bis de la citada Ley 29/2011, y que a su vez guarda relación, con los artículos 2, 3 y 8 del Instrumento de Ratificación del Convenio Europeo sobre indemnizaciones a las víctimas de Delitos violentos (aprobada en 1983). La modificación en concreto dice lo siguiente: “La concesión de las ayudas y prestaciones reconocidas en la presente ley se someterá a los principios que, para ser indemnizadas, se establecen en el Convenio Europeo sobre indemnización a las víctimas de delitos violentos”. Por su parte, este Convenio, en su artículo 8.2, establece que “se podrá reducir o suprimir asimismo la indemnización si la víctima o el solicitante participa en la delincuencia organizada o pertenece a una organización que se dedica a perpetrar delitos violentos” (Ley 17/2012). En base a esta modificación han sido denegadas las indemnizaciones a familiares de víctimas del terrorismo que pudieron pertenecer a grupos armados.

36 Fernández y Hristova, 2019.

37 Decreto 107/2012.

38 Martín, 2017.

39 Ley 5/2019.

40 Terminología adoptada por el Gobierno Vasco a través de la Secretaría de Paz y Convivencia y del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos *Gogora*.

41 Ley Foral 16/2019.

demokratikoak egin ziren apirilean Adolfo Suarezrek onartutako lege-dekretu batetik abiatuta. Erregimen frankistaren aurkako sindikatu eta alderdi nagusiak legeztatu zituzten arren, iraultzailetzat jotzen diren erakundeek legez kanpo jarraitzen zuten. Hori dela eta, beste sigla batzuk erabili behar izan zituzten hauteskundeetara aurkezteko. 1977ko urrian 1977ko Amnistiaren Legea onartu zuten, ehun preso politiko inguru aske uztea, aurrekari penalak ezabatzea eta zigortutako funtzionario zibilak lanera itzultzea ekarri zuena⁴². Gerora, nazioarteko erakundeek salatu egin zuten lege hura, oztopo bat zelako 36ko Gerran eta ondorengo diktaduran zehar egindako giza eskubideen aurkako delituak epaitzeko orduan.

Halaber, indarrean jarraitzen zuten Frankismoaren garaiko lege eta erakunde nagusiek, hala nola 1959ko Ordena Publikoaren Legeak; polizia talde ezberdinen jardura arautzen zuen lege hark. 1978ko abenduaren 6an Espainiako Konstituzioa onartu zuten, erreferendum bidez. Hala, ia amaitutzat jo zuten sistema demokratiko baterantzko trantsizio-aldia. Hala ere, Gorteak eta udalak berritzea geratzen zen oraindik; 1979ko udaberrian egin zen hori, legegintza-hauteskundeen eta udal-hauteskundeen bidez. Halaber, 1979ko abenduaren 18an Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartu zuten, euskal gizarteak berretsita. Dena den, euskal gizartea politikoki zatitu zen lege esparru berria onartu zutenen eta 1978ko Konstituzioaz geroztik ezarritako lege esparrua hausteko eskatzen jarraitzen zutenen artean; azken horiek ez zuten onartzen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Nafarroatik bereiztea, eta autodeterminazio-eskubidea aldarrikatzen zuten. 1981eko otsailaren 23an estatu-kolpea ematen saiatu ziren, baina huts egin zuten. Militarren goi-karguek aldaketa politikoa baldintzatzeko edo mugatzeko egindako saiakeratzat har daiteke.

1982ko urrian, Konstituzioa onartuz geroztiko bigarren hauteskunde orokorrak egin zituzten (Lehenak 1979an izan ziren). Hainbat egileren arabera, hauteskunde-prozesu horrekin amaitu zen trantsizioa, baina oraindik ere, hainbat gai geratu ziren zintzilik, esaterako, autonomien eskumenen banaketa edota indarkeria fisikoaren monopolioa zuten erakundeen aldaketa (armada eta polizia taldeak)⁴³. Nolanahi ere, motibazio politikoko indarkeriari dagokionez, euskal gatazkak presente jarraitu zuen, eta aurreko aldietan ere gertatzen ziren giza eskubideen urraketek jarraitu egin zuten. 2011ko urtarrilaren 10ean, ETak su-eten “iraunkorra” iragarri zuen, eta, urriaren 20an, jardura armatuaren behin betiko amaiera. Aldi berean, Nazioarteko Egiaztatze Batzordea eratu zen, bake-eta segurtasun-prozesuetan nazioarteko esperientzia zuten sei

resulta determinante es que tras la muerte de Franco se abrió un nuevo ciclo. A modo de síntesis, el 15 de diciembre de 1976 se aprobó la Ley para la Reforma Política. Posteriormente, el 15 de junio de 1977, se celebraron las primeras elecciones democráticas a partir de un decreto-ley aprobado en abril por Adolfo Suarez. A pesar de la legalización de los principales sindicatos y partidos opositores al régimen franquista, continuaban ilegalizadas organizaciones consideradas rupturistas o revolucionarias, por lo que éstas tuvieron que recurrir a otras siglas para presentarse a los comicios. En el mes de octubre de aquel año de 1977 fue aprobada la Ley de Amnistía, que supuso la puesta en libertad de aproximadamente un centenar de presos políticos, así como la eliminación de antecedentes penales y la reintegración laboral de los funcionarios civiles sancionados⁴². No obstante, posteriormente esta Ley ha sido denunciada por organismos internacionales ante el obstáculo que supone a la hora de poder juzgar delitos de lesa humanidad cometidos durante la Guerra del 36 y la posterior dictadura.

Asimismo, seguían vigentes las principales leyes e instituciones del Franquismo, entre ellas la Ley de Orden Público de 1959 por la que se regía la actividad de los diferentes cuerpos policiales. El 6 de diciembre de 1978 se aprobaría en referéndum la Constitución española, dándose prácticamente por finalizado el período de transición hacia un sistema democrático. Sin embargo, quedaba la renovación de las Cortes y los Ayuntamientos a través de las elecciones legislativas y municipales celebradas en la primavera de 1979. Asimismo, el 18 de diciembre de 1979 fue aprobado el Estatuto de Autonomía del País Vasco, refrendado por la sociedad vasca, pero que generó una división política entre aquellos que aceptaron el nuevo marco legal y los que seguían reclamando la ruptura con el marco legal establecido a partir de la Constitución de 1978, rechazando la separación de las provincias de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa de Nafarroa, y reclamando el derecho de autodeterminación. El 23 de febrero 1981 se produjo un frustrado golpe de Estado, en lo que puede considerarse un acto más de la cúpula militar en su intento de condicionar o limitar el cambio político.

En octubre de 1982 se llevaron a cabo las segundas elecciones generales desde la aprobación de la Constitución (Las primeras fueron en 1979). Con este proceso electoral varios autores dan por cerrada la transición, si bien aún quedaron pendiente cuestiones como el reparto competencial de las autonomías o la mutación de las instituciones que ostentaban el monopolio de la violencia física (Ejército y cuerpos policiales)⁴³. En cualquier caso, en materia de violencia de motivación política, el conflicto vasco siguió presente, sucediéndose violaciones de derechos humanos que ya se daban en los períodos anteriores. El 10 de enero de 2011 ETA anunció un alto el fuego “permanente”, y el

42 46/1977 urriaren 15eko Amnistiari buruzko Legea,.

43 Baby, 2018, 34-37. or. Wihelmi, 2016, 327-332. or. Maravall eta Santamaría, 1988, 112-164. or.

42 Ley 46/1977, de 15 de octubre, de Amnistía.

43 Baby, 2018, pp. 34-37. Wihelmi, 2016, pp. 327-332. Maravall y Santamaría, 1988, pp. 112-164.



Egilea/autor: Ramon M. Zabalegi

pertsonako talde batez osatua. ETAk 2017ko apirilaren 8an armak entregatu zituenean amaitu zen batzordearen lana. Gaur egun, gatazkari dagokionez, biktimen aitorpena eta presoan egoera dira interes publiko handiena sortzen duten bi gaiak⁴⁴.

20 de octubre el cese definitivo de la actividad armada. En paralelo se constituyó la Comisión Internacional de Verificación (CIV), compuesta por grupo de seis personas con experiencia internacional en procesos de paz y seguridad, cuyo trabajo culminó con la entrega de armas por parte de ETA el 8 de abril de 2017. En la actualidad, el reconocimiento de las víctimas y la situación de los presos son las dos cuestiones que más interés público están produciendo en lo concerniente al conflicto⁴⁴.

44 Domínguez (Zuz.), 2017.

44 Domínguez (Dir.), 2017.

HERNANIKO KRONIKA 1960-2021

(Jesús M. Gómez)



CRÓNICA DE HERNANI 1960-2021

(Jesús M. Gómez)

Ez da erraza azken hirurogei (60) urteetako Hernaniko kronika orrialde gutxi batzuetan azaltzea;

hau da, 1960tik 2021era demografiaren, ekonomiaren, hiri-gintzaren, gizartearen, kulturaren... arloetan herrian gertatutakoa. Arlo horietako bakoitzean, eta beste batzuetan, Hernanik izan duen bilakaera XX. mendearen bigarren erdian baldintzatuta egon da *España*-ko, *Vascongadas*-eko eta *Guipúzcoa*-ko testuinguru politikoagatik, ekonomikoagatik...; eta Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako testuinguruagatik, XXI. mendeko lehen bi (2) hamarkadetan.

Bigarren Frankismoa (1960-1975; Frankismo berantiarra deitzen zaio 1968tik 1975erako tarteari) deritzona da kontakizun honen abiapuntua, nahiz eta, halabeharrez, 1950eko hamarkadako azken urteak ere aipatu behar ditugun. Francisco Franco Bahamonde hil zenean (1975eko azaroaren 20) **Trantsizioa** deritzon aldia hasi zen, 1982ra arte iraun zuena, zehazki, **1982ko urriaren 28ra** arte. Data horretan hauteskunde orokorrak egin ziren, PSOEk irabazi zuen eta Frankismoaren oinordekoek Espainiako Gobernua utzi zuten (egile batzuek kronologian lehenago kokatzen dute amaiera-data, eta beste batzuek beranduago ere bai). Orduan hasi zen **aldi demokratikoa** deritzona, ia berrogei (40) urte, gaur egunera arte.

Hortaz, aldi horietan banatuko dugu 1960tik 2021era-ko Hernaniko kronika, lan honetan ezarritako aldiekin bat etorriz.

Dena den, uste dugu kontakizun honen kasuan ego-kiagoa izango litzatekeela bi (2) alditan banatzea. Batetik, 1960tik 1979ra; 1960tik, lan honen hasieratik, 1979ra, II. Errepublikaren (1931-1936) ondoren lehen udal-hauteskundeak egin eta udal-korporazio berriak eratu ziren datara. Eta, bestetik, ordutik (1979) 2021era, gaur egunera. Hain zuzen ere, une hartatik aurrera, 1979tik aurrera, erabat aldatu zen herriko bizitzaren “norabidea”. Hori dela eta, Hernaniko kronika hau aurkezteko orduan ez gatzazkio estuki lotuko hasieran proposatutako aldien banaketari. Izan ere, tematikoki, erreferentzia asko lotuta daude aurreko aldiekin, eta asko aurreko aldietako egoeren eta gertakizunen ondorioak dira. Gainera, badakigu lan honetan gorabehera, efemeride, erreferentzia... asko esan gabe geldituko direla.

No es sencillo plasmar en pocas páginas

la crónica de Hernani en los últimos sesenta (60) años, lo vivido en la localidad demográfica, económica, urbanística, social, culturalmente... en los años que van de 1960 a 2021. La evolución de Hernani en todas y cada una, y otras, de esas áreas viene mediatizada por la coyuntura política, económica... de España, de las Vascongadas, de Guipúzcoa durante la segunda mitad del siglo XX; de España, Euskadi, Gipuzkoa en las dos (2) primeras décadas del siglo XXI.

El denominado **segundo Franquismo** (1960–1975, se llama tardo Franquismo a los años que van de 1968 a 1975) es el punto de partida de este relato, aunque debamos irremediablemente hacer referencias a los últimos años de la década de 1950. Tras el fallecimiento del dictador Francisco Franco Bahamonde (20 de noviembre de 1975) da comienzo el periodo denominado de la **Transición**, entre esa fecha y 1982, más concretamente, hasta el **28 de octubre de 1982**, cuando se celebraron las elecciones generales con las que, con la victoria del PSOE, los herederos del Franquismo abandonaron el gobierno de España (autores circunscriben cronológicamente su fecha de finalización anterior, o incluso, posteriormente). Entonces se abre la denominada **etapa democrática**, casi cuarenta (40) años que nos llevan a la actualidad.

Así pues, esos son los periodos en que dividiremos la crónica de Hernani entre 1960 y 2021, en consonancia con la periodización establecida en el presente trabajo.

No obstante, somos de la consideración de que hubiera sido más apropiado para este relato, dividirla en dos (2) periodos: entre 1960 y 1979, desde 1960, fecha de inicio de este trabajo, hasta 1979, fecha de la constitución de las nuevas corporaciones locales tras las primeras elecciones municipales desde la II República (1931–1936); y desde entonces (1979) hasta 2021, hasta la actualidad. Es a partir de ese momento, desde 1979, cuando verdaderamente cambia definitivamente su “rumbo” la vida municipal. Es por ello por lo que a la hora de presentar esta crónica local hernaniarra no nos ceñiremos estrictamente a la periodización inicialmente planteada ya que temáticamente, muchas referencias están relacionadas, muchas de ellas son consecuencia de situaciones y realizaciones en anteriores etapas. Además, en esa labor, somos conscientes de que muchas vicisitudes, efemérides, referencias... quedarán en el tintero.



Hernani, ikuspegi orokorra (1960). Hernani, vista general (1960).

Hernani, 1960 – 1975

1960an hasiko dugu Hernaniko kronika, zehatzago esanda, 1950eko hamarkadako azken urteetan. Eta Francisco Franco diktadorearen heriotzara arte luzatuko dugu, 1975eko azaroaren 20ra arte.

1960ko hasieran, 1959eko abenduaren 31n, 12.591 biztanle zituen Hernanik. Urte hartako udalaren lehen Osoko Bilkura 1960ko urtarrilaren 13an egin zen, Tiburcio Aguirre Zumalacarregui presidentea zela, 1954 eta 1966 artean alkatetza izan zena. Aldi honetako hurrengo alkatea Fermín Altuna Aguirresarobe izan zen (1966-1976).

Udalbatzak tratatu beharreko lehen puntuetako batek “egungo” txistularien kontratua berritzeari egiten dio erreferentzia: “*actuarán en todas las recepciones de personas oficiales y tocarán alborada y en el kiosko los días previstos*”. Paseo de los Tilos berritzeko deitutako ideien lehiaketaren epaiaren berri eman zen: 10.000 pezetako saria eman zioten Miguel Álvarez Torresi (proiektu hura ez zen inoiz gauzatu); eta ezohiko “F” aurrekontua onartu zen (949.578,75 pezeta) zilegiak erosteko. Eta, presazkotzat jo ondoren, *Ispizua* kalea luzatzea onartu zuten, *carretera del Circuito*-ranzko norabidean. Han kokatuko ziren anbulatorioa eta, lursailak Auxilio Social erakundeari laga ondoren, haurtzaindegi bat. 1961eko ekainaren 24an, San Joan egunean, inauguratu ziren bi eraikinak⁴⁵.

Hernani, 1960 – 1975

Comenzamos la crónica de Hernani en 1960, más concretamente en los últimos años de la década de 1950. Y se prolongará hasta el fallecimiento del dictador Francisco Franco el 20 de noviembre de 1975.

Hernani contaba a comienzos de 1960, a 31 de diciembre de 1959, con 12.591 habitantes. Y la primera sesión plenaria del Ayuntamiento de ese año, el 13 de enero de 1960, es presidida por Tiburcio Aguirre Zumalacarregui, alcalde entre 1954 y 1966. A él le sucedería en este periodo, Fermín Altuna Aguirresarobe (1966-1976).

Uno de los primeros puntos a tratar por la corporación hace referencia a la renovación del contrato de los “actuales” txistularis, que “*actuarán en todas las recepciones de personas oficiales y tocarán alborada y en el kiosko los días previstos*”. También se da cuenta del fallo del concurso de ideas convocado para la reforma de la *Plaza de los Tilos*, concediendo un premio de 10.000 pesetas a Miguel Álvarez Torres (ese proyecto no se llevaría nunca a cabo); se aprueba el Presupuesto extraordinario “F” (949.578,75 pesetas) con destino a la compra de Zilegis. Y tras declaración de urgencia, se aprueba prolongar la calle *Ispizua* en dirección a la carretera del Circuito, donde se emplazarían el ambulatorio y, después de ceder terrenos a la entidad de Auxilio Social, una guardería infantil. Ambos edificios se inauguraron el día de San Juan, 24 de junio, de 1961⁴⁵.

45 HUA/AMH//1.1. Aktak. Osoko Bilkurako akten liburua, 1957 urt. 02 - 1960 abu. 17.

45 HUA/AMH//1.1. Actas. Libro de actas del Pleno Municipal, 1957 ene. 02 - 1960 ago. 17.



Anbulatorioa (edo "Casa del Médico"), 1961eko San Joan egunean, ekainaren 24an, inauguratu zena.

Ambulatorio (o Casa del médico), inaugurado el día de San Juan, 24 de junio, de 1961.

Horrela hasi da Hernaniko kronika 1960. urtean. Eta ezinezkoa da kronika hori ulertzea, testuingurua azaldu gabe.

Frankismoak iraun zuen ia berrogei (40) urteak (1936/1939-1975) ez ziren berdinak izan. Bizirauteko, testuinguruko zirkunstantzietara egokitzen joan zen, batez ere, nazioarteko eskaeretara. Dena den, une bakar batean ere ez zion uko egin haren izaera erreakzionarioari, ezta azken urteetan ere. Eta, noski, ez zion erantzun gizartea aldarrikatzen ari zen askatasun-nahiari. Baina 1960ko hamarkadan benetako haustura historikoa gertatzen hasi zen Espainian eta, hortaz, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan edo Hernanin. XX. mendeko eraldaketa ekonomiko eta sozialik erabakigarriena gertatzen hasi zen, urte horietan jaio baitziren gizarte industrial, hiritarra...

Gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, "euskal berezitasuna" izan behar dugu kontuan. Euskal gizarteak, hau da, euskal nazionalismoak, Frankismoan bizirautea lortu zuen, hasiera batean modu ezkutuan (zirkulu pertsonaletan eta/edo familian), eta gero apur bat modu irekiagoan, nortasunarekin lotutako alderdiak hedatzeko saiakerari esker, hala nola hizkuntza (*vascuence* / euskara) eta euskal kultura. Horretarako, beste batzuen artean, talde kultural-artistikoak, abesbatza-taldeak, dantza-taldeak, mendi-taldeak... sortu ziren. Kasu askotan, antzeko ideologia zuten apaizen laguntza izan zen horretarako. Haien laguntzarekin, galarazpen ofizialak saihestu ahal izan zen eta, aipatu dugun moduan, ideologia hori eta nortasunarekin lotutako sentimendu horiek bizi-rik mantentzea lortu zen.

Gipuzkoan, *bigarren Frankismoko* mugarririk garrantzitsuenetako bat 1950eko eta 1960ko hamarkadetan gertatutako

Así es como arranca la crónica de Hernani en el año 1960, crónica que no se puede entender sin hacer referencia a las coyunturas circundantes.

Los casi cuarenta (40) años de Franquismo (1936 / 1939–1975) no fueron uniformes; fue adaptándose, para sobrevivir, a las circunstancias que la coyuntura, sobre todo internacional, le exigía; eso sí, sin despojarse en ningún momento de su existencia, incluso hasta en los últimos años, de su carácter reaccionario, y por supuesto, sin responder a las ansias de libertad que iba reclamando la sociedad. Pero es en la década de 1960 cuando comienza a producirse una verdadera ruptura histórica en España, y por extensión, en las Vascongadas, Gipuzkoa o Hernani; comienza a producirse la transformación económica y social más determinante del siglo XX, años en los que nacieron la sociedad industrial, urbana...

A ello, para el caso de las *Vascongadas*, hemos de tener en cuenta la "especificidad vasca". La sociedad vasca, el nacionalismo vasco, clandestinamente primero (en círculos personales y/o familiares), algo más abiertamente después, consiguió sobrevivir al Franquismo gracias al intento de difundir aspectos identitarios, como la lengua (*vascuence* / euskara) y cultura vascas mediante la creación de, entre otros, grupos cultural-artisticos, grupos de coros, danzas, grupos de montaña... para lo que contaron, en muchas ocasiones, con la colaboración de sacerdotes de ideología afín. La actuación de ellos posibilitó esquivar las prohibiciones oficiales, y, como hemos dicho, mantener viva esa ideología, esos sentimientos identitarios.

Uno de los hitos definitorios del *segundo Franquismo* en Gipuzkoa fue el *boom* demográfico que se produjo en las décadas de 1950 y 1960. En la década de 1950 dio comienzo un

HERNANIKO BIZTANLERIA, 1900 - 1975 POBLACIÓN HERNANIARRA, 1900 - 1975

URTEA AÑO	BIZTANLE KOPURUA HABITANTES
1900	3.671
1910	4.214
1920	5.291
1930	6.078
1940	7.570
1950	8.501
1960	12.591
1970	23.481
1975	28.088

HERNANIRA IRITSITAKO HERNANIARRAREN JATORRIZKO PROBINTZIAK PROVINCIAS DE PROCEDENCIA DE HERNANIARRAS LLEGADOS A HERNANI



1940 baino lehen
Antes de 1940



1941 - 1956 artean
Entre 1941 y 1956



1956 - 1961 artean
Entre 1956 y 1961

boom demografikoa izan zen. 1950eko hamarkadan, espainiar eta euskal gizartearen eraldaketa-prozesua hasi zen. “Espainiar mirari ekonomikoa” deritzonaren gerizpean, ordura arte ezagutzen ez zen garapen demografiko migratzailea gertatu zen. Hala, Espainiako eskualde ugariak milaka pertsona etorri ziren euskal lurretara, baita Hernanira ere.

Hernaniko biztanleria pixkanaka hazten ari zen XX. mendeko lehen hamarkadetatik, eta hazkunde hori nabarmenagoa izan zen mendearen erdialdean.⁴⁶

XX. mendeko lehen sei (6) hamarkadetan ia laukoiztu egin zen Hernaniko biztanleria, 3.671 biztanletik 12.591ra. Hazkunde hori uniforme izan zen lehen bost (5) hamarkadetan, eta apartekoa 1950etik aurrera. 1950-1960ko hamarkadan Hernaniko biztanleria 8.501 izatetik 12.591 izatera pasatu zen (+4.090 biztanle); 1960 eta 1975 artean, aldi honetako azken hamabost (15) urteetan, Hernanik nabarmen bikoiztu zuen bere biztanle-kopurua: 12.591tik 28.088ra pasatu zen (+15.497)⁴⁷.

Bi dira biztanleriaren hazkunde horren arrazoiak: hazkunde naturala bera eta, batez ere, herrira etorritako mugimendu migratzailea. Biztanle kopuruak gora egitearen eta Hernanira ailegatutako mugimendu migratzailearen arrazoiak, beste faktore batzuen artean, herriko egitura ekonomikoan gertatutako eraldaketan izan zuen jatorria, Gipuzkoako eta Hernaniko ehun industrialak sortzen zuen erakarpenean. Ehun industrial hori hamarkada batzuk lehenago ezarri zen. 1950eko hamarkadaren amaierara arte ez zion mesederik egin Frankismoko politika ekonomiko autarkikoak, baina mantentzen eta garatzen jakin zuen, batez ere, ekimen pribatuari esker.

Hernaniko gizartea industrializatzen hasi zen XIX. mendean amaieratik eta XX. mendean hasieratik. Orduan, herrian fabrikak edo industria-establezimenduak jartzen hasi ziren, hasten ari zen iraultza industrialaren gerizpean.

proceso de transformación de la sociedad española, y vasca; amparado por del denominado “milagro económico español” se produjo un, hasta entonces no conocido, desarrollo demográfico migratorio que atrajo a tierras vascas, también a Hernani, a miles de personas desde distintas regiones de España.

Hernani, poblacionalmente, venía creciendo paulatinamente desde los primeros decenios del siglo XX; incremento que se hace más notable a mediados de siglo.⁴⁶

La población hernaniarra a lo largo de las seis (6) primeras décadas del siglo XX prácticamente se cuadruplica, pasando de 3.671 a 12.591 habitantes. Este crecimiento, uniforme en las primeras cinco (5) décadas, es extraordinario a partir de 1950. En el decenio 1950 - 1960 el número de hernaniarras pasa de 8.501 a 12.591 (+ 4.090 habitantes); entre 1960 y 1975, en los últimos quince (15) años de esta etapa, Hernani duplicó ampliamente su número de habitantes: pasó de 12.591 a 28.088 (+ 15.497)⁴⁷.

Dos razones explican este aumento poblacional, el crecimiento natural propio y, sobre todo, el movimiento migratorio vivido hacia la localidad. La razón de este crecimiento de población, de este movimiento migratorio hacia Hernani, hay que buscarla, entre otros, en la transformación que se produce en la estructura económica local, en la atracción que producía el tejido industrial guipuzcoano, el tejido industrial hernaniarra. Un tejido industrial implantado desde décadas antes que, si bien no se vio favorecido por la política económica autárquica franquista hasta finales de la década de 1950, sí supo mantenerse y desarrollarse, sobre todo, gracias a la iniciativa privada.

La sociedad hernaniarra ya venía “industrializándose” desde finales del siglo XIX y comienzos del siglo XX. Entonces comenzaron a asentarse en la localidad establecimientos fabriles o industriales al amparo de una incipiente revolución industrial. En 1898 entra en funcionamiento la central de Lastaola; a comienzos del siglo XX encontramos en Hernani fábricas de fundición de hierro, curtidos, almidón, tejidos, ladrillos

46 Kontuan izan behar dugu 1986ko otsailera arte, Lasarte auzoaren desanexioaren data, Lasarte-Oriako udalerrria eratu zen data, kuantifikazio honetan eta hurrengoetan, biztanleria horren datuak sartu direla.

47 Gomez, 1993, 85-86. or.

46 Hemos de tener en cuenta que hasta febrero de 1986, fecha de la desanexión del barrio de Lasarte, fecha de la constitución del municipio de Lasarte-Oria, en esta y siguientes cuantificaciones se incluyen los datos de dicha población.

47 Gomez, 1993, pp. 85-86.



Garai ezberdinetan herrian finkatutako bi industria hernaniar: Santiago Carrero jantzigintza tailerrak (XX. mendearen hasieran), eta Electroquímica de Hernani (1950eko hamarkadan).

Dos industrias hernaniarras, asentadas en la localidad en distintas épocas: Talleres de confección Santiago Carrero (comienzos del s. XX), y Electroquímica de Hernani (década de 1950).

1898an Lastaolako zentrala funtzionatzen hasi zen. XX. mendearen hasieran, askotariko fabrikak zeuden Hernanin: burdin-galdategiak, zurratuak, almidoia, ehunak, adreiluak edo paper-fabrikak... Industria txikiak, kasu batzuetan garrantzi handia izatera iritsiko zirenak: “Fundiciones del Norte”, “La Perfecta” zurratuen fabrika, “Montes y Cía.”, “Remy” almidoi-fabrika, “Fábrica de Tejidos del Pirineo”, “Cerámica de Hernani” eta “Cerámica San Miguel” (gero “CHAYVA S.A.” edo “ARISTEGUI Material Refractorio”, 1916an adreilu erregogorrrak fabrikatzen hasi zena), “Biyak bat” eta “Mendia - Papelera del Urumea” paper-fabrikak. 1936ko Gerraren ondoren, 1940ko hamarkadan, “Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga”, edo “Papelera del Norte”-ren txanda izango zen; industria kimikoak, hala nola “Policloro S.A.” edo “Electroquímica de Hernani S.A.”; eta, 1950eko hamarkadan, “Danak Bat S.A.”, “Transpacar S.A.” eta “Pedro Orbegoza y Cía” galdaketa-entresa. (1953)⁴⁸. Enpresa horiez gain, aurrerago, beste industria eta tailer batzuk sortzen joan ziren, batzuk handiagoak eta beste batzuk txikiagoak.

Ehun industrial horren ondorioz gertatu zen halako hazkunde demografikoa. Arrazoi horrengatik etorri ziren hainbeste pertsona askotariko probintzietatik, batzuk gertutik eta beste batzuk urrutiagotik.

Mugimendu migratzailea eragin zuen garapen industria- la azaltzean aintzat hartu behar dugu Frankismo “garatzai-leak” sustatutako “espainiar mirari ekonomikoa” deritzona. Fenomeno hark eraldaketa sozial handia ekarri zuen, baina gizarteak aldarrikatzen zituen aldaketa politiko desiratuak ez ziren iristen.

o papeleras... pequeñas industrias que, en algunos casos, llegarían a tener relativa importancia: “Fundiciones del Norte”, Fábrica de curtidos “La Perfecta”, “Montes y Cía.”, Fábrica de almidón “Remy”, “Fábrica de Tejidos del Pirineo”, “Cerámica de Hernani” y “Cerámica San Miguel” (luego “CHAYVA S.A.” o “ARISTEGUI Material Refractorio”, que comenzaría a fabricar ladrillo refractario en el año 1916), las papeleras “Biyak bat” y “Mendia - Papelera del Urumea”. Tras la Guerra de 1936, en los años 1940, vendrían la “Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga”, o la “Papelera del Norte”, industrias químicas como “Policloro S.A.” o “Electroquímica de Hernani S.A.”; y en los 1950 “Danak Bat S.A.”, “Transpacar S.A.” y la empresa de fundición “Pedro Orbegoza y Cía.” (1953)⁴⁸. Junto a estas empresas, en adelante, irían surgiendo otras industrias y talleres de mayor o menor entidad.

Es motivado por este tejido industrial por el que se produce aquel crecimiento demográfico, es por lo que gran número de personas, desde distintas provincias, cercanas y más alejadas, se ven atraídas hacia la localidad.

Hemos de tener en cuenta a la hora de explicar ese desarrollo industrial, consecuencia por el que se produce ese movimiento migratorio, el denominado “milagro económico español” promovido por el Franquismo “desarrollista”, que dio lugar a una gran transformación social, eso sí, no acompañada de los ansiados cambios políticos que la sociedad comenzaba a reclamar.

A finales de la década de 1950, la economía española, tras veinte (20) años de autarquía e intervencionismo, se encontraba al borde del abismo. Para hacer frente a esa situación,

⁴⁸ Larrañaga eta Iruretagoyena, 1964, 52-56. or.

⁴⁸ Larrañaga e Iruretagoyena, 1964, pp. 52-56.



Papeletera Guipuzcoana de Zicuñaga SA, 1940ko hamarkadatik Hernanin. Aceros y Fundiciones del Norte Pedro Orbeago y Cia, 1950eko hamarkaren erdialdean Hernanin kokatu zena.

Papeletera Guipuzcoana de Zicuñaga S.A., en Hernani desde la década de 1940. Aceros y Fundiciones del Norte Pedro Orbeago y Cia., empresa instalada en Hernani a mediados de la década de 1950.

1950eko hamarkadaren amaieran, hoguei (20) urtez autarkia eta interbentzionismoa gailendu ondoren, espainiar ekonomia amildegiaren ertzean zegoen. Egoera horri aurre egiteko, 1957an izendatutako teknokraten gobernuak (Opus Deirena) “Egonkortze eta Liberalizazio Plana” jarri zuen martxan. Espainiar politika ekonomikoari norabide berri bat ematea zen xedapen horien helburua, mendealdeko europar ekonomiekin lerrotatzen saiatzeko. Une hartatik aurrera espainiar ekonomiak aurrekaririk gabeko hazkundea izan zuen, eta gizartea eraldatu egin zen. Eskulana eskura egoteak lagundu zuen horretan, batez ere, bizi-baldintza hobek behar eta horien bila etorritako landa-inguruneko pertsonen eskulana.

Lurraldeko garapen ekonomikoari (industrial) lotutako modernizazio-prozesu honek lehen sektorearen atzerakada ekarri zuen, eta hirugarren sektorearen garapena, baita azpiegiturretan esku-hartze ugari ere. Gipuzkoako bigarren industrializazioa deitzen zitzaion horretan, nabarmentzekoak ziren ekoizpen metalurgikoaren gailentasuna (Gipuzkoako industriaren % 50), paper-industria indartsua eta, migratzaile horien etxebizitza-beharraren ondorioz, eraikuntza. Horren isla ikus dezakegu Hernanin. Esaterako, herrian ezarri zen *Aceros y Fundiciones del Norte Pedro ORBEGOZO y Cia.* (1953), edo lehen aipatutako paper-fabrikak, esaterako, *Papeletera del Norte* edo *Papeletera Guipuzcoana de Zicuñaga S.A.* (1940 eta 1975 artean, Hernanin ekoitzi zen Espainiako paperaren heren bat, Tolosa eta Errenteriako paper-ekoizpenarekin batera)⁴⁹.

Baina Gipuzkoako industria gabeziak pilatzen joan zen, eta diktaduraren amaieran agerian geratu ziren. Politika ekonomiko autarkikoaren ondorioa izan zen hura, isolamendu

el gobierno de tecnócratas (del Opus Dei) nombrado en 1957 puso en marcha un “Plan de Estabilización y Liberalización”, disposiciones con el fin de dar una nueva dirección a la política económica española, intentando alinearla con las economías europeas occidentales. A partir de ese momento la economía española experimentó un crecimiento sin precedentes que acabó transformando la sociedad. A ello contribuyó la disponibilidad de mano de obra, sobre todo proveniente de una población rural en busca, y con necesidad, de mejores condiciones de vida.

Este proceso modernizador ligado al desarrollo económico (industrial) del territorio trajo consigo el retroceso del sector primario, y el desarrollo, también, del sector terciario, y numerosas intervenciones en infraestructuras. A destacar en la denominada segunda industrialización guipuzcoana la preeminencia de la producción metalúrgica (50% de la industria guipuzcoana), la pujante industria papelera, y consecuencia de la necesidad de vivienda para aquella población migrante, la construcción. Reflejo de ello lo encontramos en Hernani, caso de la implantación en la localidad de *Aceros y Fundiciones del Norte Pedro ORBEGOZO y Cia.* (1953), o de las anteriormente mencionadas papeleras, entre otras, *Papeletera del Norte* o *Papeletera Guipuzcoana de Zicuñaga S.A.* (en Hernani, junto a la producción papelera de otros municipios como Tolosa y Rentería, se produjo un tercio de la producción papelera de España entre 1940 y 1975)⁴⁹.

Pero la industria guipuzcoana iría acumulando carencias que tras el final de la dictadura quedarían al descubierto; consecuencia ello de la política económica autárquica franquista, que supuso un aislamiento comercial, un déficit tecnológico y una

49 Aragón eta Echeberria, 2017, 481. or.

49 Aragón y Echeberria, 2017, pp. 481.

komertziala, gabezia teknologikoa eta ekoizpen baxua ekarri baitzituen hark. Ondorioz, XX. mendearen azken laurdena zaila izan zen Gipuzkoako enpresentzat. Ia mende batean zehar eraikitako industria-ehuna behera zioan. Bizitzaren kostuaren igoera izan zen krisialdiaren lehen sintometako bat, eta langabezia-tasak ordura arte ezagutzen ez ziren mailalara igo ziren.

Hirugarren sektoreari dagokionez, errenta maila eta lurraldearen garapen ekonomikoa kontuan hartuta, legokiokeena baino garapen-maila txikiagoa zuen. 1970eko hamarkadaren hasieran, hirugarren sektoreari Gipuzkoako BPGaren %39 baino ez zegokion. Egoera defizitaria zen azpiegituretan, ekipamenduetan, osasungintzan, hezkuntzan... Diktaduraren ondorengo lehen udal-hauteskundeetan aukeratutako udal-korporazioek egin behar izan zioten aurre egoera horri, 1979tik aurrea.

Merkantzien zein ibilgailuen errepideko zirkulazioak gora egin zuen eta, horren aurrean, bide-sarearen modernizazioa izan zen garai hartako beste alderdi nabarmen bat. N-1, N-634 eta bigarren mailako hainbat ardatzetan oinarritu zen modernizazioa⁵⁰. Lan nagusiak N-1 zabaltzea (Hernaniko Lasarte auzoan ere bai), biztanle gehien zituzten herrietan saihesbideak eraikitzea eta A-8 autobidea irekitzea izan ziren. Hernanin, XX. mendearen hasieran *carretera del Circuito* ireki ondoren, 1949ko azaroaren 2an Karabelgo biaduktua inauguratu zen⁵¹; biaduktu horrek Florida auzoko Norteko Trenbideko trenbide-pasabidea saihesteko balio zuen, eta Astigarraga eta Hernani lotzen zituen (*"Proyecto de supresión del paso a nivel con el F.C. del Norte en Hernani. Camino vecinal de San Sebastián por Astigarraga a Hernani"*, José M. Gabarain ingeniariarena, 1945). Urtetan ez ziren hobekuntza gehiago edo inbertsio berriak egin eskualdeko bide-sarean. Ondorioz, Zinkoenean eta herriko bide askotan pilatu zen herriko errepideko zirkulazioa. Gainera, kontuan izan behar da merkantzien garraioa eta ibilgailu kopurua hazi egin zirela. Hernani inguruko trafikoa hobetuko zuketuen proiektuak idatzi, idatzi ziren, baina ez ziren gauzatu: beste batzuen artean, *"Proyecto de empalme de la carretera de Astigarraga con la carretera de Goizueta"* (1980an idatzi zen horren aldaera bat), *"Proyecto de variante para la supresión de la travesía de Hernani"* (1973), *"Anteproyecto de un tramo de la Autovía de San Sebastián a Urnieta por Astigarraga"* (1974).

Garapen ekonomiko-industrial horren ondorioz, eta gertatutako *boom* migratzailearen ondorioz, migratzaileak ailegatzen ziren herrietan, esaterako Hernanin, eraikuntza-jarduera indartu zen. Migratu zuen pertsona kopuru handi

reducida productividad. Eso hizo que el último cuarto del siglo XX fuera complicado para la empresa guipuzcoana. Se estaba desmantelando el tejido industrial levantado durante casi un siglo. El incremento del coste de la vida fue uno de los primeros síntomas de esa crisis, y se dispararon las tasas de paro hasta niveles desconocidos.

En referencia al sector terciario, éste tenía un nivel de desarrollo inferior al que le correspondería dado el nivel de renta y desarrollo económico del territorio. A comienzos de la década de 1970 el sector terciario tan solo aportaba el 39% del PIB guipuzcoano. La situación era deficitaria en infraestructuras, equipamientos, en sanidad y educación... situación a la que tuvieron que hacer frente los Ayuntamientos elegidos tras las primeras elecciones locales tras el fin de la dictadura, y siguientes, a partir de 1979.

Otro de los aspectos destacados de esta época fue, ante el aumento continuo de tráfico rodado, tanto de mercancías como de vehículos, la modernización de la red viaria que giraba en torno a la N-1, N-634 y varios ejes secundarios⁵⁰. Las principales obras fueron el desdoblamiento de la N-1, también a su paso por el barrio hernaniarra de Lasarte, la construcción de variantes en las localidades más pobladas, y la apertura de la autopista A-8. En Hernani, tras haberse abierto a comienzos del siglo XX, la *carretera del Circuito*, el 2 de noviembre de 1949 se inauguró el viaducto de Carabel⁵¹, que salvaba el paso a nivel del Ferrocarril del Norte en el Barrio de la Florida, y unía Astigarraga con Hernani (*"Proyecto de supresión del paso a nivel con el F.C. del Norte en Hernani. Camino vecinal de San Sebastián por Astigarraga a Hernani"*, del ingeniero José M. Gabarain, 1945). La no realización, durante años, de más mejoras, o nuevas inversiones en la red viaria comarcal, provocó que en Zinkoenea, y en un considerable número de vías urbanas, se concentrara el tráfico rodado de la localidad, más teniendo en cuenta el aumento de tránsito de transportes de mercancías, y el número de vehículos. Sí se redactaron proyectos, proyectos que no llegarían a ejecutarse, que hubieran mejorado el tráfico circundante a/de Hernani: entre otros, el *"Proyecto de empalme de la carretera de Astigarraga con la carretera a Goizueta"* (una variante de él se redactó en 1980), el *"Proyecto de variante para la supresión de la travesía de Hernani"* (1973), el *"Anteproyecto de un tramo de la Autovía de San Sebastián a Urnieta por Astigarraga"* (1974).

Ese desarrollo económico-industrial, y el *boom* migratorio asociado en las localidades receptoras, caso de Hernani, se plasmaría en una intensa actividad constructiva. Provocó, ante la necesidad de vivienda y habitabilidad que se estaba produciendo para acoger al gran número de personas que migraron,

50 Aragón eta Echeberria, 2017, 482. or.

51 Elizondo, 1996, 29-24. or. Ergobiatik hasita, Urumea ibaiaren eskuinaldetik jarraituta, Nafarroara doan errepidearen ingurura iristen da, eta Zinkoenean zuzenduta, Urumea ibaia eta Norteko Trenbidea saihesten ditu hogei (20) arku osatutako biaduktu baten bidez.

50 Aragón y Echeberria, 2017, pp. 482.

51 Elizondo, 1996, pp. 29-24. Partiendo de Ergobia, continuando por la margen derecha del río Urumea, llega a las proximidades de la carretera a Navarra, y dirigiéndose a Cinco-enea salva el río Urumea y el F.C del Norte por medio de un viaducto formado por veinte (20) arcos.



Karabel – Orbegozo biaduktua, eta Zinkoenea plaza, 1960ko hamarkadan. Viaducto de Carabel – “Orbegozo” y Plaza de Zinkoenea en la década de 1960.

hori hartzeko, etxebizitzak eta bizilekuak behar ziren. Horrek, gutxi planifikatutako hirigintza-garapen espekulatzailea eragin zuen; garapen desordenatua, kaotikoa ez esatearren. Joera horren ondorioz, Hernaniren gisako herriak nabarmen hazi ziren: Hernaniko biztanleria % 125 inguru hazi zen 1960-1975 artean. Arazo horiei aurre egiten saiatzeko, 1950eko hamarkadaren amaieran etxebizitza babestuenak eraikitzen hasi ziren, eta 1960ko hamarkadatik aurrera ekimen pribatuak ugaritu ziren. Sortzen hari zen kontrolik gabeko hirigintza arautzen saiatzeko asmoz, *hirigintza-antolamendurako planak* idatzi ziren probintzia eta udalerrri mailan (Hernaniko Antolamendurako Plan Orokorra 1953–1954koa da, eta 1966-1967an berrikusi zen). Plan horiek ez ziren inoiz guztiz bete.

Ordurako, 1950eko hamarkadaren amaierarako, eraikita zeuden “Grupo José Antonio” (Sagastialde auzoa), *Barrio del Puerto* eta *Plaza Jabier Ibarrolaburu* (Portu auzoa / Ibarrolaburu plaza). Eta, beste batzuen artean, Lizeaga, Zikuñaga, Antziola (“Cuesta de la Muerte”)... auzoak eraikitzen joan ziren, eta kale hauek zabaldu eta/edo luzatu ziren: *Ispizua*, Elcano, *Travesía del Mercado* (Txirrita), Orkolaga... Familia ugari topatu zuten bizilekua toki horietan. Ondoren, 1970eko hamarkadaren hasieran, Florida auzoko (Etxeberri auzoa) edo Karabel auzoko (Karabel kalea, Aingura/Oleta plaza...) etxebizitza-blokeak eraiki ziren. Bloke horietako batzuk lotuta zeuden une horretan oraindik ere garrantzitsua zen *Aceros y fundiciones del Norte Pedro Orbegozo y Cia* fabrikari.

Horrek guztiak, gainera, ondorio sozialak (sustraitzekoak), kulturalak eta abar ekarri zituen. Migratzaileak lanera etorri ziren, ondoren haien familiak ere ekarri ahal izateko. Alokairua edo erositako etxebizitza ordaindu ahal izateko lan egin zuten. Orduko hartan Gipuzkoara eta Hernanira iritsi ziren pertsona guztiak ez ziren arrazoi beretatik etorri, eta ez zituzten zailtasun berak izan, ezta ibilbide bera ere. Batzuk oinarritzko beharreetatik etorri ziren, lanik eta etxebizitzarik ez zutelako; beste batzuek haien bizimodua eta/edo ekonomia hobetu nahi

un desarrollo urbanístico en ocasiones poco planificado y especulativo; cuando menos, desordenado, por no decir, caótico. Fruto de esta tendencia, localidades como Hernani, entre otras, crecieron notablemente: Hernani, poblacionalmente, entre los años 1960–1975 creció en torno al 125%. Para tratar de dar solución a esos problemas se comenzó, ya en los últimos años de la década de 1950, a construir vivienda protegida, y en la década de 1960 proliferaron las iniciativas privadas. Intentando reglamentar el descontrolado urbanismo que se estaba produciendo, se redactaron provincial y localmente *planes de ordenación urbanística* (el Plan General de Ordenación de Hernani data de 1953-1954, revisado en 1966-1967), planes que nunca se llegaron a cumplir en su totalidad.

Para entonces, a finales de la década de 1950, ya se habían construido el “Grupo José Antonio” (Sagastialde auzoa) y la barriada del Barrio del Puerto y la Plaza Javier Ibarrolaburu (Portu auzoa / Ibarrolaburu plaza), y, entre otras actuaciones, se irían construyendo los Barrios Liceaga, Zikuñaga, Anciola (la “Cuesta de la Muerte”)... y los ensanches y/o prolongaciones de las calles *Ispizua*, Elcano, *Travesía del Mercado* (Txirrita kalea), Orkolaga... donde numerosas familias encontraron su residencia. Después, a inicios de la década de 1970, se edificarían bloques de viviendas del Bº de la Florida (Etxeberri auzoa) o del Bº Carabel (Karabel kalea, Aingura / Oleta plaza...), bloques algunos de ellos ligados a la todavía, en ese momento, importante factoría *Aceros y fundiciones del Norte Pedro Orbegozo y Cia*.

Todo ello, además, trajo consigo consecuencias sociales (de arraigo), culturales... Los inmigrantes habían llegado a trabajar, para después poder traer a sus familias desde el lugar de origen. Trabajaron para poder pagar el alquiler o la vivienda adquirida. No todas las personas que en aquel entonces llegaron a Guipúzcoa, a Hernani, lo hicieron por las mismas razones, ni se enfrentaron a las mismas dificultades, ni tuvieron las mismas trayectorias. Unos lo hicieron por necesidades básicas, sin empleo ni vivienda; otros, buscando progreso y/o promoción



Lizeaga auzoa ("Catanga"), 1964 urtean eraikitzen ari zen garaian. Geroago, Antziola auzoa ("Cuesta de la Muerte") eraiki zen.

El Bº Liceaga ("Catanga"), en construcción, en 1964. Algo más tardía es la construcción del Bº Anziola ("Cuesta de la Muerte").

zituzten... Batzuk haurrak zirela etorri ziren, beste batzuk gazte eta heldu zirela... Batzuk, urteak igaro ondoren, sorlekura itzuli ziren. Beste batzuk, gehienak, Hernanin finkatu eta integratu ziren behin betiko; haien itxaropenak eta haien ondorengoan ase zituzten.

Beste alderdi batzuei dagokienez, iritsitako gehienek gaztelaniaz hitz egiten zuten, ohitura ezberdinak zituzten, etab. Horrek nolabaiteko bereizketa soziala eta kulturala sortu zuen "bertakoen" eta etorkinen artean; bi taldeak "erasotuak" sentitzen ziren, eta batzuetan elkarren aurka jartzen ziren ("baserritarrak" vs. "maketoak" - "belarrimotzak" - "(man) txurrianoak"). Horrek isla izan zuen harreman sozialetan, gaztelaniaren ezagutzan, euskararen ezagutzan... Urteak eta belaunaldiak igarota, egoera horiek gainditzeko joan ziren, (elkar)bizitzarako eremuak berdinak izan baitziren: ikastetxea, lan arloa, aisialdia...

Bestetik, Frankismoak gelditu egin zuen XX. mendearen hasieratik espainiar gizartean gertatutako "eraldaketa sozial handia". Gerraren ondorengo lehen bi hamarkadetako espainiar gizartea "erreprimtua, katolizatu eta autarkikoa" zen. Erreprimtua, Frankismoak errotik erauzi nahi izan zuelako XX. mendearen hasierako hamarkadetan gizarteak lortu zuen guztia, eta jardura guztiak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak...) zorrotz kontrolatzen zituelako *Alderdi Bakarrak* (*Falange Española Tracionalista de las JONS*) eta haren mendeko erakundeek. Gizarte katolizatu, Eliza katolikoak ordurako galduta zuen eragin soziala berreskuratu baitzuen hezkuntza-sistema eta eremu publikoak menderatuta, zere monia zibiko-erlijiosoen agertoki iraunkorrak izanik. Gizarte autarkikoa, kanpoko mundutik isolatua; gose- eta miseria-garai luzea eragin zuen horrek, eta biziraupen mailara eraman zuen gizartea.

económica... unos vinieron niños, otros jóvenes y adultos... Unos, con el paso de los años, volvieron a sus lugares de origen, otros, los más, acabaron instalándose e integrándose definitivamente en Hernani; colmaron sus expectativas y las de sus descendientes.

En otro orden de cosas, la mayoría de los llegados era de habla castellana, con costumbres distintas, etc. lo que produjo cierta separación, social y cultural, entre "locales" e inmigrantes, sintiéndose ambos colectivos "violentados" y en momentos enfrentados ("casero" vs. "maketo" - "belarrimotza" - "(man) churriano"). Ello se reflejaría en el ámbito de las relaciones sociales, en el conocimiento del castellano... en el conocimiento del euskera... Con el paso de los años y de las generaciones, esas situaciones fueron superándose ya que los espacios de (con)vivencia fueron los mismos: escuela, ámbito laboral, ocio...

En otros ordenes, el Franquismo detuvo la "gran transformación" social que se produjo en la sociedad española desde inicios del siglo XX; la sociedad de las dos primeras décadas de la posguerra española se caracterizó por ser una sociedad "reprimida, catolizada y autárquica". Reprimida porque el Franquismo se propuso erradicar todo lo que la sociedad había ido consiguiendo durante las primeras décadas del siglo XX, y porque todas las actividades (económicas, sociales, culturales...) fueron sometidas a un estricto control del partido único (*Falange Española Tradicionalista de las JONS*) y de sus organismos dependientes. Una sociedad catolizada porque la Iglesia recuperó la influencia social perdida por medio del control del sistema educativo y del dominio de los espacios públicos, escenarios permanentes de ceremonias cívico-religiosas. Una sociedad autárquica, aislada del mundo exterior, que provocó un largo periodo de hambre y miseria que llevó a la sociedad a niveles de subsistencia.



Frankismoaren zehar, Eliza katolikoak bere eragin soziala berreskuratu zuen, eta horren adierazle izan zen espazio publikoak menderatzea, zeremonia zibiko-erlijiosoen agertoki iraunkorrak. "Ariketa espiritualak", orduko Plaza de España.

Durante el Franquismo, la Iglesia católica recuperó su influencia social, y demostración de ello fue el dominio de los espacios públicos, escenarios permanentes de ceremonias cívico-religiosas. Celebración de unos ejercicios espirituales en la entonces Plaza de España.

EMAKUMEA DIKTADURA FRANKISTAN ZEHA

Emakumeak ere izan ziren Frankismoaren errepresioaren biktimak. II. Errepublikan lortzen joan ziren eskubideei dagokienez, atzerapena ekarri zuen erregimenak. Emakumeen eskubideak indargabetu edo mugatu egin zituen, bai eremu publikoan, bai eremu pribatuan. Familia-eredu katoliko tradizionala gailendu zen, non emazteak senarraren mende egon behar zuen guztiz; emakumea etxeko eremura "mugatu" zuen. Oztopo ugari jarri zituen emakumeek lan egin zezaten, bereziki, ezkonduak; horiek senarraren baimena behar zuten norbaitek kontrata zitzan. Emakumeak lana utzi behar zuen ezkonduetakoan; neurri horiek ez zuten galarazi emakumeek lan egitea, baina "familia mantentzeko" baka-rrik (senarraren baimena indarrean egon zen diktadorea hil ondoren arte).

Sección Femenina-ren Patronato de Protección de la Mujer zeritzonaren bidez, emakumeen moralitatearen "kontrol zorrotza" egiten zen, eta "moralki onartezinak" ziren jar-rrerak jazartzen zituen. Eta Eliza katolikoak ahaleginak egin zituen balio tradizionalak ezartzeko, arlo pribatuan zein publikoan.

1950eko hamarkadan hasi zen aldatzen emakumeen egoera eta, batez ere, 1960ko hamarkadan, urte horietako eraldaketa ekonomiko eta sozialen ondorioz. Aldaketa horien eraginez, emakumeen soldatapeko lan "legala" areagotu egin zen, familia-egiturak pixkanaka aldatzen ari baitziren.

LA MUJER DURANTE LA DICTADURA FRANQUISTA

Las mujeres también fueron víctimas de la represión franquista. El régimen supuso un retroceso en los derechos que habían ido adquiriendo durante la II República. Se abolieron o restringieron sus derechos tanto en el ámbito público como en el privado. Se impuso el modelo de familia católica tradicional basado en la total subordinación de la esposa al marido, "reduciéndolas" al ámbito doméstico. Se pusieron innumerables obstáculos al trabajo de las mujeres, especialmente de las casadas, que necesitaban de la autorización del marido para poder ser contratadas; la mujer en cuanto se casaba tenía que dejar su trabajo, aunque, sin embargo, estas medidas no pudieron evitar que lo hicieran, pero por "razones de subsistencia familiar" (esa autorización del marido estuvo vigente hasta después de fallecido el dictador).

A través del llamado *Patronato de Protección de la Mujer*, de la Sección Femenina, se llevó a cabo un "estricto control" de la moralidad femenina, persiguiendo las conductas consideradas "moralmente inaceptables". Y la Iglesia católica se esforzó en imponer los valores tradicionales tanto en el ámbito privado como público.

La situación de las mujeres comenzó a cambiar en la década de 1950, y sobre todo en los años 1960 como consecuencia de las transformaciones económicas y sociales que se produjeron en esos años. Esos cambios supusieron un progresivo incremento del trabajo asalariado "legal" de las mujeres, consecuencia de una paulatina alteración en las estructuras familiares.



Hezkuntza frankista sexista zen, nesken eta mutikoen arteko bereizketa zorrotza ezarri baitzuen. Mojen eskolako "femeninoa" klasea (1960), eta Viteri eskoletako ikasleak, mutikoak (1968). La educación franquista era sexista, establecía la estricta separación entre niñas y niños. Clase "femenina" del Colegio de Las Monjas (1960); alumnos de las Escuelas Viteri, en 1968.

HEZKUNTZA-SISTEMA FRANKISTA

Frankismoko hezkuntza-sistema autoritarioa, katolikoa, sexista, nazionalista (espainiarra), dogmatikoa, doktrinala eta erreakzionarioa zen, eta edozein berrikuntza pedagogikoren aurkakoa. Eta horrela mantendu zen diktaduraren amaiera arte. II. Errepublikako hezkuntza-sistemaren aurkakoa zen; horrelakoa zen sistema errepublikarra: demokratikoa, laikoa, hezkidetzaren bidez sexuen arteko berdintasuna sustatzen zuena, berdinzalea, herrialdeetako hizkuntzak eta kulturak integratzen zituen, anitza, eta berrikuntza pedagogikoei irekia.

Autoritarismoa izan zen Frankismoko hezkuntza-sistemaren funtsezko ezaugarrietako bat; haren printzipioak: batasuna, hierarkia, obediencia eta diziiplina. Hezkuntza-programetan presente zegoen katolizismoa, eta izaera erlijiosoa inposatzen zen. Nazionalismoa (espainiarra) zen sistemaren giltzarrietako bat, izaera nazional *indartsu eta bateratua* eratzeko. Hizkuntza espainiarra derrigorrezkoa zen, eta prestakuntzarako "tresna". Hezkuntza-sistema frankista sexista zen, eta mutilak eta neskak zorrotz bereizten zituen; hezkidetzaren sistema pedagogikoa Mugimendu Nazionalaren printzipioen aurkakoa zen.

Dogmatismoa presente zegoen diziiplina guztietan, are gehiago Historia ikasgaian, alderdi bakarraren (FET y de las JONS) eta Eliza katolikoaren doktrinen mende baitzegoen. Historia iraganaren interpretazio hutsa zela uste zuten, doktrinatzeko balio zuena, eta ez irakasteko.

ZENTSURA FRANKISTA

Erregimen frankistak debekatu egin zituen egunkari liberalak, errepublikarrak eta ezkerrekoak, eta horien ondasunak konfiskatu egin zituen Estatuak... Adierazpen-askatasuna desagertu egin zen eta komunikabide guztiek aurretiazko zentsura zuten:

EL SISTEMA EDUCATIVO FRANQUISTA

El sistema educativo franquista es definido como autoritario, católico, sexista, nacionalista (español), dogmático, doctrinal y reaccionario, y opuesto a cualquier innovación pedagógica. Y así se mantuvo hasta el fin de la dictadura. Lo contrario del sistema educativo de la II República: democrático, laico, promotor de la igualdad de sexos mediante la coeducación, igualitario, integrador de lenguas y culturas regionales, plural, abierto a las innovaciones pedagógicas.

El autoritarismo fue uno de los rasgos esenciales del sistema educativo franquista; sus principios: unidad, jerarquía, obediencia y disciplina. El catolicismo se manifestaba en los programas educativos, imponiendo el espíritu religioso. El nacionalismo (español) era una de las piedras angulares del sistema, formando en un espíritu nacional *fuerte y unido*. La lengua española era obligatoria e "instrumento" de formación. El sistema educativo franquista era sexista, establecía la estricta separación entre niños y niñas; el sistema pedagógico de coeducación era contrario a los principios del Movimiento Nacional.

El dogmatismo estaba presente en todas las disciplinas, más evidente si cabe, en la enseñanza de la Historia, que estaba supeditada a las doctrinas del partido único (FET y de las JONS) y de la Iglesia Católica. La historia estaba considerada como una simple interpretación ideológica del pasado que servía para adoctrinar y no para enseñar.

LA CENSURA FRANQUISTA

El régimen franquista prohibió los periódicos liberales, republicanos y de izquierdas y sus bienes fueron incautados por el Estado... La libertad de expresión desapareció y todos los medios quedaron sometidos a la censura previa: no era posible "expresarse" social, política, culturalmente... si no fuera con el permiso de la autoridad competente.

ezin zen “adierazpen” sozialik, politikorik, kulturalik... egin, autoritate eskudunaren baimenik izan ezean.

Lehen Frankismoan zehar (1939-1959), hedabide nagusia irratia izan zen, eta Estatuak kontrolatzen zuen. 1950eko hamarkadaren amaieratik aurrera, telebista bilakatu zen komunikabide nagusia, baina helburu bera zuen: “integrazio” soziala eta gizartearen desmobilizazioa. TVE 1956an hasi zen emititzen, eta 1966an bigarren katea jarri zuen martxan.

“Eraldaketa” 1960ko hamarkadan hasi zen. 1975 arte, diktadura amaitu arte, aldaketa ekonomiko eta sozial sakonak gertatu ziren baina, aipatu dugun moduan, ez zen aldaketa politikorik izan. Frankismoko programa politiko-ekonomiko-sozial berriaren helburua herritarren ongizate materiala handitzea lortzea zen, eta herritarrek desmobilitatzea, hala, erregimenari nolabaiteko zilegitasuna emateko, instituzionalizatzeke eta denboran irauteko.

1966ko martxoan *Prentsaren eta Inprimategien Legea* onartu zen, eta 1967ko ekainean *Askatasun Erlijiosorako Legea*. Horiek ez zuten gizartea desmobilitatu; aitzitik, justu kontrakoa gertatu zen, nolabaiteko irekitasuna ahalbidetu zuten. Lehenak aurrerapen txiki bat ekarri zuen, aurretiazko zentsura kendu baitzuen. Dena den, oraindik ere, zigor administratibo, zibil eta penal gogorrek aurreikusten zituen legea urratzen zutenentzat. Bigarrenak, Vatikanoko II. Kontzilioaren orientabideetan oinarrituta bazegoen ere, Espainiako batasun espiritualaren bermea Eliza Katolikoa zela mantentzen zuen. Dena den, Frankismoaren aurkako sektore katoliko aurrerakoak agertzen hasi ziren. Horiek (erlijiosoen ere bai) langileen eta ikasleen protestetan parte hartu zuten, eta elizak eta lokalak uzten zituzten bilerak egiteko. Hala, “gatazka zaharrak” berpizten hasi ziren, eta berriak ireki ziren, eskubide politikoak, ekonomiko-laboralak, kulturalak... identitarioak aldarrikatzeko. 1960ko hamarkadaren amaieratik 1975ean diktadura amaitu zen arte, ondoz ondoko gobernu frankistek gatazka horiei aurre egin behar izan zieten.

LUISTARREN PARROKIAKO GAZTEDIA

Hernanin, gizartea “mobilizatzen” hasi zen elizako tokiko sektore batzuen “laguntzarekin”, eta 1940ko hamarkadaren erdialdean *Luistarren Parrokiako Gaztedia* sortu zen: *Hernaniko Luistarrak*.

Hernaniko gizarteak eta gazteek, San Joan bataiatzailearen parrokiako apaizen babesean, euskara eta euskal kultura, tradizioak eta kirolak mantentzea eta hedatzea lortu zuten. Horretarako, *San Luis Gonzagaren* omenez, *antzerki-saioak*, euskal dantzen emanaldiak, bertso-saioak eta *ezkerpareta* frontoiko pilota-txapelketak antolatzen zituzten, betiere Gipuzkoako Gobernu Zibilak eskatutakoa betez. *Jai handi* haien egitarauak euskaraz ere egin ziren, eta “*Boletín Privado de la J.P. de Luises*” argitaratu zen.

Durante el primer Franquismo (1939-1959) el medio de mayor difusión fue la radio, controlada por el Estado. A partir de finales de la década de 1950, la televisión se convirtió en el medio de comunicación por excelencia, pero con el mismo objetivo: la “integración” social y la desmovilización del país. TVE comenzó a emitir en 1956, a partir de 1966 puso en marcha un segundo canal.

La “transformación” comenzó a producirse en la década de 1960. Hasta 1975, hasta el final de la dictadura, fueron años de profundos cambios económicos y sociales, que, sin embargo, como decíamos, no estuvieron acompañados de cambios políticos. El nuevo programa político-económico-social del Franquismo se fijó como objetivo conseguir aumentar el bienestar material de la población, a la vez que desmovilizarla, y así dotar de cierta legitimidad al régimen y completar su institucionalización y perdurabilidad.

La aprobación de la *Ley de Prensa e Imprenta* en marzo de 1966, y de la *Ley de Libertad Religiosa* (junio de 1967) de alguna forma, no desmovilizaron a la sociedad, si no, más bien, permitió todo lo contrario, permitió un cierto aperturismo. La primera, supuso un tímido avance al suprimir la censura previa, aunque seguía imponiendo duras sanciones administrativas, civiles y penales a aquellos que la infringieran. La segunda, si bien amparada en las nuevas orientaciones del Concilio Vaticano II, mantenía a la Iglesia Católica como garante de la unidad espiritual de España. Sin embargo, iban surgiendo sectores católicos, contrarios al Franquismo y progresistas, que participaron (incluso religiosos) en protestas obreras y estudiantiles, además de facilitar iglesias y locales como centros de reunión. Con todo ello, comenzaron a revivir “viejos conflictos”, y se abrieron otros nuevos en reivindicación de derechos políticos, económico-laborales, culturales... identitarios, a los que los sucesivos gobiernos franquistas tuvieron que hacer frente desde los años de finales de la década de 1960 hasta 1975, hasta el fin de la dictadura.

JUVENTUD PARROQUIAL DE LUISES

En Hernani, en la línea de “movilización” de la sociedad con la “colaboración” de sectores eclesiásticos locales, a mediados de la década de 1940 surge la *Juventud Parroquial de Luises*, los *Luises de Hernani*.

La sociedad hernaniarra, la juventud hernaniarra, al amparo de los sacerdotes de la Parroquia de San Juan Bautista, consiguió mantener, y difundir, el euskera, la cultura, tradiciones y deportes *euskaldunes* con la organización, en honor de *San Luis Gonzaga*, de *veladas* teatrales, exhibiciones de bailes vascos, actuaciones de los *bersolaris* y torneos de pelota en el frontón *ezkerpareta*, siempre tras *acceder a lo solicitado* el Gobierno Civil de Guipúzcoa. Los programas de aquellas *grandes fiestas*, incluso, se editaron en euskera; y se publicó el “Boletín Privado de la J.P. de Luises”.



1950 eta 1970eko hamarkaden artean Hernanin egin ziren kultura eta kirol jardueretako irudiak: antzerki emanaldiak, euskal dantzen erakustaldiak, lñudeak eta artzaiak, bertso jaialdiak, hitzaldiak... Horietan jende ugari biltzen zen, baita beste herri batzuetatik etorritako izen handiko pertsonak ere.

Imágenes de distintas actividades cultural - deportivas celebradas en Hernani durante las décadas de 1950 y 1970: representaciones teatrales, bailes vascos, lñudes y artzais, festivales de bertsolaris, conferencias... a las que asistía numeroso público, incluso de renombre, desde otras localidades.



Hernaniko gazteek parte hartzen zuten emanaldi haietan, mutilek zein neskek: antzezlanetan (*Zintzotasuna* zinema-aretoan); *euskal dantza*-taldeetan; musika-emanaldietan; txistu, trikitixa eta dultzaina emanaldietan... eta antolatutako gainerako jardueretan. *Torneo de Pelota Inter-Juventudes Parroquiales* izeneko pilota-txapelketa ospe handia izatera iritsi zen, eta lurraldeko pilotaririk onenek parte hartu zuten. Eta bertsolari ugari abestu zuten, hala nola Basarrik, Uztapidek, Xalbadorrek...

Antzerki eta musika emanaldiak, *Kultur Asteak* eta hernaniar garrantzitsuen omenaldiak antolatu ziren, eta euskal kulturako pertsona garrantzitsuek parte hartu zuten: *P. Lecuona*, *Arza* (Artze) eta *Beobide jaunek*, *Aristi* eta *Satrustegi* hizkuntza-akademikoek...

Dantza solteko eta euskal folkloreari buruzko eskolak eman ziren udalak utzitako lokaletan, Perkaiztegi kaleko haurren eskolan, baita euskara *ikasteko* eta *perfekzionatzeko* ikastaroak ere. Mendi Gain Mendiko Sekzioaren bidez, Santa Barbaran San Inazio (uztailak 31) jaiak antolatzen hasi ziren.

Euskal gizarteak, Hernaniko gizarte "nazionalistak", bizi-rik iraun zuen Frankismoan, nortasunarekin lotutako alderdiak hedatzen saiatu zirelako, hala nola euskal hizkuntza eta euskal kultura-taldeak sortuz. Hasieran ideologia bereko apaizen laguntza izan zuten eta gero, 1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970ekoaren hasieran, izaera laikoagoa izan zuen mugimenduak, baina beti San Luis Gonzagaren babesean antolatzen ziren ekimenak, eta horri esker debeku ofizialak saihestu ahal izan ziren.

Laikoagoa izanik, 1970eko hamarkadan, Luistarren Parrokiako Gaztediaren oinordekoa izan zen **Centro Cultural de Jóvenes de Hernani** HARRI BURNI / Hernaniko Luistar Gaztedia.


Tomaban parte jóvenes hernaniarras, tanto chicos como chicas, en las actuaciones teatrales (en el Salón Cinema *Zintzotasuna*), grupos de *bailes vascos*, actuaciones musicales y de *txistularis*, *triki-trixa* y *dulzaineros*... y demás actividades organizadas. Gran renombre llegó a tener el *Torneo de Pelota Inter-Juventudes Parroquiales* en el que llegaron a jugar los pelotaris más destacados de la provincia. Y actuaron *bersolaris* como Basarri, Uztapide, Xalbador...

Organizaron representaciones teatrales y musicales, *Semanas Culturales* y homenajes a hernaniarras destacados, con programaciones que contaron la presencia de importantes personalidades vascas: *P. Lecuona*, Sres. *Arza* (Artze) y *Beobide*, académicos de la lengua Sr. *Aristi* y *P. Satrustegi*...

Impartieron clases de baile al suelto y folklore vasco en los locales cedidos por el Ayuntamiento en la escuela de párvulos de la Calle Percaiztegui, y también cursos de *aprendizaje* y *perfeccionamiento* del euskera. A través de la Sección de Montaña Mendi Gain, comenzaron a organizar las fiestas de San Ignacio (31 de julio) en Santa Bárbara.

La sociedad vasca, la sociedad "nacionalista" hernaniarra, sobrevivió al Franquismo gracias al intento de difundir aspectos identitarios, como la lengua y la cultura vascas mediante la creación de este y otros grupos, inicialmente con la colaboración de sacerdotes afines, luego, ya a finales de la década de 1960 y en los primeros años de la de 1970, de carácter más laico, aunque siempre bajo el amparo de San Luis Gonzaga, lo que posibilitó esquivar las prohibiciones oficiales.

Mas laico, pero sucesor de la Juventud Parroquial de Luises, y ya en la década de 1970, el **Centro Cultural de Jóvenes de Hernani** HARRI BURNI / Hernaniko Luistar Gaztedia,



Beste gauza batzuen arten, San Luis jaiak antolatzen jarraitu zuten ekainean, Sanjoan jaien aurretik, eta 1980ko hamarkadaren hasieran Gazte Festak antolatzen hasi ziren, azaroan. Euskara "sustatzeko" ikastaroak ere ematen zituzten.

1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970ekoaren hasieran Hernanin jarduten zuen beste erakundeetako bat **Juventud Mixta de Actividades Artístico-Culturales KIMU ALAI** zen. *Bertso-saioak*, euskara-ikastaroak eta *Iñude eta Artzaaien* konpartsa antolatu zituzten.

1972ko hasieran Juan Olano Garayar (*Juanito Olano*) hil zen, kulturaren eta arteen zale sutsu hernaniarra. Jarduera ugari sustatu zituen garapen sozialaren alde (EPO - Langile Eskola Profesionala garatzen lagundu zuen) eta euskal ohituren eta kulturaren alde. Parte-hartze nabarmena izan zuen arlo oso anitzetan, hala nola prestakuntzan, kulturaren, kirolen, ikuskizunetan... Hernanin pilota-txapelketak antolatu zituen, Mendi Gain federatu zuen eta *Euskal Ezkontza* antolatu zuen, beste gauza batzuen artean. Hura eta haren ibilbidea gogoratzeko, 1972ko abenduaren 14tik 17ra kultur-jardunaldi batzuk antolatu ziren, eta **Juan Olano Fundazio Artistiko-Kulturala** (udalerrri mailakoa, udalaren parte-hartzearekin) eratzeke oinarriak finkatu ziren, Hernaniko alderdi kulturala eta artistikoa berpizteko helburuz. Urte horretatik 1978/1979ra hainbat topaketa eta jardunaldi antolatu zituen fundazioak, hala nola Hernaniren historiari buruzko hitzaldiak, "*Villa de Hernani*" literatura-saria, haurren abesbatzen ikastetxe arteko jaialdiak, argazki-lehiaketak eta gastronomia-lehiaketak, hamabostaldi pedagogikoak, naturari buruzko jardunaldiak, kirol-asteak, zahartzaroari omenaldiak... eta *Euskal Hamabostaldia*, 1978ko irailaren 1etik 15era. Historiaren, kulturaren, hizkuntzaren, letren... arloko euskal pertsonaiarik nabarmenenek parte hartu zuten horietan.

siguió entre otros, organizando las Fiestas de San Luis durante el mes de junio, en vísperas de los Sanjuanés, y ya a comienzos de los años 1980, las Fiestas de la Juventud, en el mes de noviembre. También, impartiendo cursillos "para la promoción" del euskera.

Otras de las entidades que a finales de la década de 1960 y comienzos de los años 1970 realizaban su actividad en Hernani fue la **Juventud Mixta de Actividades Artístico-Culturales KIMU ALAI**, que organizaron recitales de *bertsolaris*, cursos de euskera, y la comparsa de *Iñudes y Artzaías*.

A comienzos de 1972 falleció Juan Olano Garayar (*Juanito Olano*), hernaniarra apasionado por la cultura y las artes, que promovió numerosas actividades en favor del desarrollo social (colaboró con la EPO - Escuela Profesional Obrera) y de las costumbres y cultura vascas. Se implicó notablemente en áreas tan dispares como la formación, cultura, deportes, espectáculos... impulsando los torneos de pelota en Hernani, federando Mendi Gain, y organizando, entre otros, la *Boda Vasca*. Para recuerdo de su figura, y recordando su trayectoria, entre los días 14 y 17 de diciembre del mismo año 1972, se organizaron unas jornadas culturales... y se sentaron las bases para la constitución de la **Fundación** (municipal, con participación del Ayuntamiento) **Artístico - Cultural Juan Olano**, con el fin del resurgir del aspecto cultural y artístico de Hernani. Entre ese año y 1978/1979 organizó números encuentros y jornadas como conferencias sobre la historia de Hernani, el Premio literario "*Villa de Hernani*", festivales inter - escolares de coros infantiles, concursos de fotografía y gastronómicos, quincenas pedagógicas, jornadas sobre naturaleza, semanas deportivas, homenajes a la Vejez... y una *Quincena Vasca*, entre el 1 y 15 de septiembre de 1978. En ellas tomaron parte las más destacadas figuras de la historia, cultura, lengua, letras... vascas.



Urumea Ikastola
("Enseñanzas
Urumea") 1963an
sortu zen; 1970/71
ikasturtean, Langile
Ikastola.

La Ikastola Urumea
(Enseñanzas Urumea)
se creó en 1963:
En el curso 1970/71,
Langile Ikastola.



Beste arlo batzuetatik ere egin zioten aurka Frankismoari, hala nola hizkuntzaren arlotik, batez ere, 1966an Prentsaren Lege berria argitaratu ondoren. Irekitasun "apal" bat gertatu zen. 1950eko hamarkadatik baziren ezkutuan euskara-eskolak ematen zituzten *andereñoak*, baina lege berriarekin euskara "normalizatzen joan" zen eta ikastolak sortzen hasi ziren. 1960ko hamarkadan zehar ikastolen sorrera erregularizatzen joan zen. Euskara garatzen eta mantentzen lagundu zuten ikastolek. Izan ere, Frankismoan zehar debekatuta egotera iritsi ez bazen ere, familiaren eremura edo eremu pertsonalera mugatu zen. Hernaniko lehen ikastola *Enseñanzas Urumea* (Urumea Ikastola)⁵² izan zen, 1963an sortua. Gerora, 1970/71 ikasturtean, Langile Ikastola sortu zen⁵³.

Ugaritu egin ziren euskarazko argitalpenak, bertso jaialdiak, euskal jaiak... eta 1966ko urtarrilaren 9an (*Ilbeltza'ren 9'an*) *Jai-aldi berezia* antolatu zuen Santa Barbara Elkarteak

La oposición al Franquismo también se desarrolló en otros ámbitos como el del idioma, la lengua, sobre todo tras la publicación de la nueva Ley de Prensa de 1966. Se produjo una "tímida" apertura. El euskera se pudo "ir normalizando" y se fueron creando ikastolas, si bien ya anteriormente existían *andereños* que desde los años 1950 impartían clases en *vascuence* de forma clandestina. A lo largo de los años 1960 se fue regularizando la creación de las ikastolas que contribuyeron al desarrollo y al mantenimiento del euskera, que, sin llegar a estar prohibido durante el Franquismo, sí que había quedado relegado al ámbito familiar o personal; en Hernani la primera de ellas fue *Enseñanzas Urumea* (Urumea Ikastola)⁵², creada en 1963; y posteriormente, en el curso 1970/71, Langile Ikastola⁵³.

Proliferaron las publicaciones en euskera, bertsolaris, fiestas vascas... y el 9 de enero (*Ilbeltza'ren 9'an*) de 1966 en el Teatro Aitor Antzokia se celebró, organizado por la Sociedad

52 Urumea Ikastola, 2014, 22-28. or.

53 Langile Ikastola eta Rekondo, 2020, 60-67. or.

52 Urumea Ikastola, 2014, pp. 22-28.

53 Langile Ikastola y Rekondo, 2020, pp. 60-67.



Teatro Aitor Antzokian. Bertan parte hartu zuten *Ballet Izartik*, *Vicondoa* akordeoilariak eta (Joxan) *Villar*, (Mikel) *Laboa*, (Julen) *Lecuona*, *Trio Kemen* eta “*Biarriak*” abeslariak. Néstor Basterretxearen eta Fernando Larruquerten “*Pelotari*” filma ere proiektatu zen. (Arantxa) *Gurmendi* andrea eta (Ramón) *Saizarbitoria* jauna izan ziren esatariak edo aurkezleak. Hila-betetan prestatzen ari zen mugimendu baten lehen emanaldietako bat izan zen jaialdi berezi hura. Bi hilabete geroago, martxoan 6an, Irungo Bellas Artes antzokian aurkeztu zen mugimendua: *Ez dok amairu*⁵⁴.

Hamarkada hartan “euskal” jaialdi, errezitaldi... asko antolatu zituzten Hernanin Santa Barbara elkarteak, Elur-Txori elkarteak eta beste erakunde batzuek.

1960ko hamarkadan, aipatu dugun moduan, aldaketa nabarmenak gertatu ziren Espainiako, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gizarteetan, baita hernanikoan ere. Aldaketa horien ondorioz, ohitura, moda, joera kultural, joera musikal... berriak agertu ziren. Funtsean, masen gizarteak sortu zen. Neurri batean, horren isla izan ziren hamarkada haren amaieran eta 1970eko hamarkadaren hasieran Ezkiaga pasealekuan egoten ziren “mobidak”. Bertan jotzen zuten *txistulariek*, 1960ko lehen osoko bilkura hartan kontratua berritu zieten horiek. Hernaniko eta eskualdeko gazteak gustu musikal, kultural... berrietara egokitzen ari ziren; beste batzuk, berriz, *txistulariek* ordezkatzen zituztenak, tradizionalagoak ziren. Gertakari horiek, azkenean, aurrez aurre jarri zituzten euskaldunak eta gaztelaniaz (“espainieraz”) hitz egiten zutenak, hau da,

Recreativa Santa Bárbara, un *Jai-aldi berezia* con la actuación del *Ballet Izarti*, el acordeonista *Vicondoa* y los cantantes (Joxan) *Villar*, (Mikel) *Laboa*, (Julen) *Lecuona*, *Trio Kemen*, “*Biarriak*”, también se proyectó la película “*Pelotari*” de Néstor Basterretxea y Fernando Larruquert. Los locutores, presentadores, fueron la Srta. (Arantxa) *Gurmendi* y el Sr. (Ramón) *Saizarbitoria*. Aquel extraordinario festival fue una de las primeras actuaciones de un movimiento que llevaba meses gestándose, y que dos meses después, el 6 de marzo, se presentó como tal en el Bellas Artes de Irun: *Ez dok amairu*⁵⁴.

No fueron pocos los festivales “vascos”, recitales, etc. que se organizaron en Hernani en esa década, organizados por las Sociedades Santa Barbara, Elur-Txori y otras entidades.

La década de 1960 es en la que, como hemos apuntado, se produjeron notables cambios en la sociedad española, vasca, guipuzcoana... y hernaniarra, cambios que también se dejaron ver en el afloramiento de nuevas costumbres, nuevas modas, tendencias culturales, musicales... en definitiva en el surgimiento de una sociedad de masas. En cierta medida, reflejo de ello fueron las “movidas” que se produjeron a finales de esa década y comienzo de los años 1970 en el Paseo de los Tilos cuando actuaban los *txistularis*, aquellos a los que se les renovó el contrato en la primera sesión plenaria de 1960. La juventud hernaniarra, y de la comarca, se estaba abriendo a otros nuevos gustos musicales, culturales... frente a los más tradicionales que representaban los *txistularis*; fueron episodios que finalmente enfrentaron a jóvenes euskaldunes y de habla castellana

54 Odriozola, 2016, 58-63. or.

54 Odriozola, 2016, pp. 58-63.

beste leku batzuetatik etorritakoak. Hori, halaber, konfrontazio sozialaren eta kulturalaren isla zen.

1960ko hamarkadan zehar langile-mugimendua berpiztu zen. Azken Frankismoko desarrollismo ekonomiko-industrialaren ondoren sortutako langile-klase berria zen mugimendu haren protagonista. Greba egiteak debekatuta jarraitzen zuen arren, eta langile-mugimenduko liderren eta militanteen aurkako zapalkuntza egon arren (poliziaren bortizkeria, buruzagiak erbesteratzea...), *Vascongadas*-eko eta *Guipúzcoa*-ko enpresetan ohikoak izan ziren soldatak eta lanbaldintzak hobetzeko aldarrikatzeko gatazkak eta geldialdiak, baita arrazoi politikoengatik ere. Gipuzkoa lurralderik gatazka suena izan zen 1964an.

Esanguratsuak izan ziren Hernaniko enpresa handienetan egindako lan-geldialdiak eta grebak. Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga enpresan deitutako geldialdia oso adierazgarria izan zen, zuen garrantzi historikoagatik. Emakumeek hartan izandako garrantzia, esan bezala, historikoa izan zen. Hala dio Miren Clementek, Hernaniko paper-fabrikako geldialdien deitzaileetako batek: “*Zikuñagako greba 67an izan zen, beraien konbenioan jarritako arauak ez zituztela errespetatzen konturatu ginen; gero eta gehiago esplotatzen gintuzten eta soldata dezente bat jasotzeko egunean hamabi orduko lana egin behar zenuen. Orduan, hasieran 48 orduko ‘minimotako greba’ bat egin genuen, baino ez ziguten kasurik egin, gero egun oso batez ‘beso eroritako greba’ bat egin genuen, lekutik mugitu gabe eta orduan bai, orduan Guardia Zibila sartu eta bertatik atera gintuzten... Greba mugagabea izan zen, ez baitzuten inor lanerako berrirori onartu*”⁵⁵. Beste enpresa batzuetan ere deitu eta egin ziren grebak, hala nola *Papelera del Norte* eta *Aceros y Fundiciones del Norte Pedro Orbegozi y Cia* enpresetan. Orbegozioko langileei emandako laguntzaren ondorioz eta poliziaren jarduketarengatik salaketaren ondorioz, 1969ko martxoaren 12an Gipuzkoako Gobernu Zibilak hiru hilabeteko zigorra jarri zien Asociación de Padres de Familia elkarteari, Elur-Txori elkarteari eta Santa Barbara elkarteari. Asociación de Padres de Familia elkarteari, “estatutuetan jasotako xede eta helburuetatik nabarmen urruntzeagatik haren jardueretan... lan-arazo konplikatueta eta beste mota batzuetako arazoetan nahasten da... gainera, Ordena Publikoko Indarrei ez die begirunerik...”. Elur-Txori eta Santa Barbara elkartei⁵⁶, “estatutuetan jasotako xede eta helburuetatik nabarmen urruntzeagatik... bereziki konplexuak diren lan-arazoetan nahastegatik... manifestazioekin bat egiteagatik... lan arloko gabezia eta ardurak, etab., ‘era guztietako kalte okerragoak’

(“española”) que llegaban de otras localidades, reflejo asimismo de una confrontación social y cultural.

Se produjo durante la década de 1960, el resurgimiento del movimiento obrero, movimiento protagonizado por una nueva clase trabajadora surgida tras el desarrollismo económico-industrial del último Franquismo. Si bien las huelgas siguieron prohibidas, y pese a la represión contra los líderes y militantes del movimiento obrero (brutalidad policial, destierro de los dirigentes...), fueron habituales en las empresas vascas, y guipuzcoanas, conflictos y paros en reivindicación de mejoras salariales y de las condiciones de trabajo, aunque también por razones políticas. Guipúzcoa fue la provincia más conflictiva en el año 1964.

Significativos fueron los paros laborales y huelgas llevadas a cabo en Hernani, en las más importantes empresas hernanias. Más si cabe, por su trascendencia histórica, la convocada en la Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga; en ella las mujeres tuvieron una relevancia, como decíamos, histórica. Así dice Miren Clemente, una de las convocantes de aquellos paros en la papelera hernaniarra: “*Zikuñagako greba 67an izan zen, beraien konbenioan jarritako arauak ez zituztela errespetatzen konturatu ginen; gero eta gehiago esplotatzen gintuzten eta soldata dezente bat jasotzeko egunean hamabi orduko lana egin behar zenuen. Orduan, hasieran 48 orduko ‘minimotako greba’ bat egin genuen, baino ez ziguten kasurik egin, gero egun oso batez ‘beso eroritako greba’ bat egin genuen, lekutik mugitu gabe eta orduan bai, orduan Guardia Zibila sartu eta bertatik atera gintuzten... Greba mugagabea izan zen, ez baitzuten inor lanerako berrirori onartu*”⁵⁵. También se convocaron, e hicieron, huelgas en otras empresas como *Papelera del Norte* y en *Aceros y Fundiciones del Norte Pedro Orbegozi y Cia*. Consecuencia del apoyo a los trabajadores de Orbegozi y de la denuncia por la actuación de la policía, con fecha de 12 de marzo de 1969, el Gobierno Civil de Guipúzcoa, dispuso la “*suspensión de la Asociación de Padres de Familia, Sociedad Recreativa Elur - Txori y Sociedad Recreativa Santa Barbara*” por tres meses. La Asociación de Padres de Familia por haberse “excedido notablemente en sus actividades, de sus fines y objetivos propios estatutarios... se inmiscuye en problemas laborales complejos y de otra índole totalmente ajena, aparte de... una desconsideración hacia las Fuerzas del Orden Público...”. Las sociedades Elur - Txori y Santa Bárbara⁵⁶, por haberse “excedido notablemente de sus fines y objetivos propios estatutarios, al inmiscuirse... en unos problemas laborales de especial complejidad, adhiriéndose... a cuantas manifestaciones... defectos y responsabilidades de naturaleza laboral, etc., a la vez que se anunciaban ‘peores males de todo

55 Apaolaza, 2003, 198. or.

56 Aguirre, 1997, 58-61. or.

55 Apaolaza, 2003, pp. 198.

56 Aguirre, 1997, pp. 58-61.

iragartzen zituzten bitartean... eta Indar Publikoaren presentzia eta esku-hartzea ez zeudela arrazoituta iradokiz”⁵⁷.

1970eko hamarkadaren hasiera ere markatu zuten protestek, eta aldaketa sozial eta politiko sakona gertatzen ari zela islatu zuten. Are gehiago, *Burgosko Prozesuari* dagokionez. Auzipetuenganako elkartasuna erakutsi zutenak atxilotu eta espetxeratzeak protestarako beste arrazoi bat gehitu zuen.

1974ko krisi ekonomikoak, 1975ean larritu zenak, eta haren ondoriozko inflazioak eta langabeziak indarra eman zien greben eta langile mugimenduen olatuari, Frankismoaren historiako garrantzitsuenari, eta jazarpena gogortu egin zen. Jazarpen-espiral hori bereziki gogorra izan zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Gainera, 1960ko hamarkadan zehar, ase beharreko behar berriak agertzen hasi ziren gizartean, hirugarren sektorearekin lotuta. Gizarteak gero eta nahi handiagoa zuen mendealdeko gizartearen antza izateko, eta aisialdirako eta kulturarako modu berriak bilatzen hasi zen. Bestetik, askatasuna eta aurrerapena aldarrikatzeko ibilgailuak ere izan ziren aisialdia eta kultura. Euskal gizartearen barruan aldaketa handia gertatzen ari zen, eta protagonista berriak sortu ziren: herritarrak.

Hala, 1970eko hamarkadan auzo-mugimenduak sortu ziren aurreko hamarkadetan eraikitako auzoetan. Batez ere, bizileku eremu horiek hobetzea aldarrikatzen zuten, urbanizatu gabe zeudelako, zerbitzu eta ekipamendu gabeziak zituztelako... Hala jaio ziren auzo-mugimenduak. Hori izan zen *Florida* eta *Anziola* auzoen kasua. Dokumentu hau ere argitaratu zuten: “Así son dos barrios hernaniarras: Florida y Anziola. Estudio sociológico de base”. Bertan, eremu horietako errealitatea aurkezteaz gain, horietan eta beste auzo batzuetan zituzten beharrak azaltzen zituzten, hala nola *Sorgintxulon* (kasualitatez, Hernaniko herrigunetik aldenduen zeuden auzoak). Neurri batean, udalak aintzat hartu zituen hurrengo urteetan egindako proiektuetan. Esaterako: Antziola, Villas eta Sorgintxulo auzoetara zihoazen ur-hornidurarako hodiak indartzeko proiektua; Florida auzoan egindako urbanizazio-lanen (bidea zolatu eta espaloiak jarri) eta zerbitzuen (estolderia) proiektua...

Auzo-elkarteen alderdirik interesgarrienetako bat emakumeen parte-hartzea izan zen, nabarmena herri-mugimenduan. Elkarte horien barruan sortu ziren lehen elkarte feministak, 1970eko hamarkadan. Orokorrean, mugimendu horiek zabaltzen joan ziren hurrengo hamarkadetan, diktadorea hil eta erregimena aldatu zenean.

orden’... insinuando además que la presencia e intervención de la Fuerza Pública era injustificada”⁵⁷.

Las protestas marcarían también el inicio de la década de 1970, reflejo de que se estaba produciendo un profundo cambio social y político. Más si cabe, coincidiendo con el *Proceso de Burgos*. La detención y encarcelamiento de quienes se solidarizaron con los procesados constituyó un nuevo motivo de protestas.

La crisis económica de 1974, agravada en 1975, con el consiguiente aumento de la inflación y del desempleo, alimentó la oleada de huelgas y de movilizaciones obreras más importante de la historia del Franquismo, recrudeciéndose la represión. Esta espiral represiva se cebó especialmente en las *Vascongadas*.

Además, a lo largo de la década de 1960 comenzaron a calar en la sociedad nuevas necesidades a satisfacer, relacionadas con el sector terciario. Una sociedad que, cada vez más deseosa de asemejarse a las sociedades occidentales, comenzó a buscar nuevas formas de ocio, cultura... que por otro lado fueron también vehículos de reivindicación de libertades y progreso. Se estaba produciendo dentro de la sociedad vasca un importante cambio, en el que surgirían unos nuevos protagonistas: los ciudadanos, los vecinos.

Alderdi Politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoa aplikatuz, Ezker abertzaleak ezin izan zuen aurkeztu 2003ko maiatzaren 25eko udal-hauteskundeetara, legez kanpo utzi zutelako (3.667 boto baliogabe zenbatu zituzten; horietako asko EH Bildurekin lotuak). Hala, EA/EAJ koalizioak (Eusko Alkartasuna-Eusko Alderdi Jeltzalea) irabazi zituen uda-hauteskunde haiek Hernanin. Hirugarren aldiz, José Antonio Rekondo Sanz izendatu zuten alkate, 2007 arte.

2006ko irailaren 15ean, Hernaniko udalak, osoko bilkuran, “Toki Erakunde Txiki bat eratzeke Ereñotzu-Epele auzoa deszentralizatzeko prozedura hastea” adostu zuen⁹⁵. Deszentralizatutako Toki Entitate Txikia eratzearen egokitasunaren gaineko nahitaezko azterketak egin ondoren, udalbatzak, 2009ko ekainaren 18ko osoko bilkuran, aho batez onartu zuen onartzea eta behin betiko testua idazten hastea. Azkenik, 2010eko urtarrilaren 28ko osoko bilkuran, Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eratzea adostu zen, eta haren lurralde-mugaketa eta zegozkion eskumenak ezarri ziren: bertako ondarea administratzea eta kontserbatzea; landa-garapena eta mendien garapena (mendiko bide publikoak eta etxe eta baserrietarako landa-bideak mantentzea); hiri-mantentzea (espazio publikoak eta urbanizazioak, lorezaintza-lanak), eta Toki Entitate Txikiaren eraikinak mantentzea, garbitzea eta zaintzea.

Horretarako, Hernaniko udalaren ekarpena haztapen-indizea aplikatuta kalkulatu zen, Ereñotzuko biztanle kopuruaren bilakaeraren arabera. Gainera, aparteko diru-ekarpenak egingo zituen udalak, auzoan egindako ezohiko inbertsioei eta proiektuei aurre egiteko.

94 Irazusta, 2020, 46-48. or.

95 HUA/AMH//1.1. Udala osatzeko espedienteak. Ereñotzuko Auzo Udalaren (Toki Entitate Txikia) eratze espedientea, 2006 – 2011.

A iniciativa de estos movimientos en reivindicación de la presencia de la mujer en la localidad, de la presencia de las hernaniarras en la historia y sociedad hernaniarras, en 2014, por acuerdo municipal unánime, se decide el cambio de denominación de la hasta entonces Calle Urumea / Calle Cardaveraz / Kardaberaz kalea. En adelante, se denominará Andre kalea, recuperándose así una denominación popular (también oficial durante algunos años de finales del siglo XIX). El nombre del sacerdote y escritor euskaltzale hernanirra del siglo XVIII, del Padre Cardaveraz, es el que tomó el parque de la villa Goiz Eguzki, el parque del hogar del jubilado: Kardaberaz parkea.

En enero de 2020, por primera vez en Hernani, una hernaniarra, Carmen Adarraga Elizaran, destacada deportista y emprendedora, es reconocida dando su nombre a la zona, al parque colindante a las instalaciones deportivas, a la pista de atletismo, de Sagastialde - Sagastialdeberri⁹⁴.

Con la ilegalización de la izquierda abertzale en aplicación de la Ley Orgánica de Partidos Políticos 6/2002, que no pudo presentarse a las elecciones municipales celebradas el 25 de mayo de 2003 (los votos nulos, muchos de ellos se asignaron a EH Bildu, ascendieron a 3.667), la coalición EA / EAJ - PNV (Eusko Alkartasuna - Partido Nacionalista Vasco) es la vencedora en Hernani de los comicios locales. Es nombrado, nuevamente, por tercera vez, alcalde, hasta 2007, José Antonio Rekondo Sanz.

En 2006, el 15 de septiembre, el Ayuntamiento de Hernani, en sesión plenaria, acordó “iniciar el procedimiento para la descentralización del Bº Ereñotzu - Epele mediante la constitución de una Entidad Local Menor”⁹⁵. Tras los preceptivos estudios sobre la conveniencia de constituir en Entidad Local Menor descentralizada, el Pleno, en sesión del 18 de junio de 2009 acordó por unanimidad su aprobación y proceder a la redacción del texto definitivo. Finalmente, en la sesión plenaria del 28 de enero de 2010 se acordó la constitución de la Entidad Local Menor de Ereñotzu, estableciéndose su delimitación territorial y la relación de competencias propias a ejercer por ella: administración y conservación de su patrimonio; desarrollo rural y de montes (mantenimiento de caminos públicos de montaña, y caminos rurales a casas y caseríos); mantenimiento urbano (espacios públicos y urbanizaciones, trabajos de jardinería) y mantenimiento, limpieza y guarda de los edificios de la Entidad Local Menor.

Para ello, la aportación económica del Ayuntamiento de Hernani se calcularía aplicando el índice de ponderación según la evolución de la población de Ereñotzu, además de aportaciones correspondientes a subvenciones extraordinarias destinadas

94 Irazusta, 2020, pp. 46-48.

95 HUA / AMH // 1.1. Udala osatzeko espedienteak. Ereñotzuko Auzo Udalaren (Toki Entitate Txikia) eratze espedientea, 2006 – 2011.

2003KO MAIATZAREN 25KO UDAL-HAUTESKUNDEAK / ELECCIONES MUNICIPALES DE 2003, MAYO 25*

ERROLDA / CENSO: 15.706
BOTO EMAILEAK / VOTANTES: 9.904 (63,06%)
ABSTENTZIOA / ABSTENCIÓN: 5.802 (36,94%)
TXURIAK / BLANCOS: 231 (2,33%)
BALIOGABEAK / NULOS: 3.657 (36,92)

CONCEJALES		
EAJ-PNV / EA	2.840 (47,21%)	8
PSE-EE / PSOE	1.547 (25,71%)	4
EB-B	958 (15,92%)	3
PP	671 (11,15%)	2

* <http://www.euskadi.eus/www.euskadi.eus. Hauteskundeetako emaitzak / Resultados elecciones.>

Organikoki, Toki Entitate Txikiaren Gobernu hauek osatuko zuten: *auzo-alkatea* eta *Auzo Batzordea*; azken hori, alkateaz gain, lau (4) batzordekidek osatuko dute.

2010eko martxoaren 28an herri-galdeketa egin zen auzoan: *Ereñotzuko Toki Entitate Txikia sortzearen alde al zaude?* 483 pertsonak osatzen zuten errolda, eta 283k eman zuten botoa. Aldeko botoa eman zuten 270ek, eta aurkakoa 13k.

Hala, urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretuaren bidez (GAO, 2010eko urriak 18), *Ereñotzuko Toki Entitate Txikia sortu zen, Hernaniko udal-mugartean*. Ondorioz, 2011ko martxoaren 31n egindako udaleko osoko bilkuran behin betiko adostu zen honako eskumen hauek sortu berri zen erakundeari eskuordetzea, betiere zegokion lurralde eremuan: bide eta eraikin publikoetan lanak egitea; gizarte-zerbitzuak ematea (elbarriak, hirugarren adineko pertsonak, familia eta bizikidetzak, prebentzioa eta bergizarteratzea, osasun-zerbitzua); garraio publikoa; eta idazkaritza nagusia (Udal Erroldaren eta Erakundearen Erregistroaren kontsultak, eta bertako dokumentuak artxibatzea). Eta legez udalari esleitzen zaizkion eskuduntza guztiak, erakundearen eremuko udal-administrazioari dagokionez (azokak eta merkatuak, bide publikoaren okupazioa, auzo-elkarteak, turismoa, merkataritza, hirigintza eta ingurumena, langileak, ogasuna eta ondarea, hezkuntza, kirola, kultura, euskara eta gizarte-politika).

Lehen auzo-alkatea Imanol Lizeaga Urdanpilleta izan zen (Eek *Ereñotzu Ekinez*), eta, harekin batera, hauek osatu zuten Kudeaketa Batzordea (urte hartan bertan hurrengo udal-hauteskundeak egingo ziren arte): Aritz Zerain Miner, Izaskun Bengoetxea Huizi, Ana Santa Kruz Villarrolain eta Paki Lizeaga Agirre. Imanol Lizeagak auzo-alkatearen kargua errepikatu zuen 2015eko hauteskundeetan, eta 2019an Unai Erroizenea Gamiok ordezkatu zuen.

2005eko irailaren 26an, udalak eta Hernaniko herriak hainbat ekintza antolatu zituzten II. Mundu Gerran zehar nazismoaren aurkako borrokan parte hartu zuten hernaniarrrak oroitzeko (Tomás Anabitarte, Florentino Goikoetxea, Juan Manuel Larburu eta Martín Errazkin, beste anonimo

a hacer frente a inversiones y proyectos extraordinarios en el barrio.

Orgánicamente, el Gobierno de la Entidad Local Menor estaría constituido por el *alcalde pedáneo*, y una *Junta Vecinal* compuesta por además del alcalde, cuatro (4) vocales.

El 28 de marzo de 2010 se llevó a cabo una consulta popular en el barrio: *¿Estas a favor de la creación de la Entidad Local Menor de Ereñotzu?* Sobre un censo de 483 personas, 283 emitieron su voto. A favor lo hicieron 270, en contra 13.

Concluyendo, vía Decreto Foral 26/2010, de 7 de octubre (BOG, 18 octubre 2010) *se crea la entidad local menor de Ereñotzu en el término municipal de Hernani*. Y consecuencia de él, el Pleno Municipal celebrado el 31 de marzo de 2011 acuerda definitivamente la delegación de las siguientes competencias a la entidad recientemente creada, siempre en su ámbito territorial correspondiente: ejecución de obras en vías y edificios públicos, prestación de servicios sociales (minusválidos, personas de la tercera edad, familia y convivencia, prevención y resocialización, servicio sanitario), transporte público y secretaría general (consulta del Padrón Municipal, Registro de la Entidad, y archivo de la documentación de la misma). Y todas aquellas atribuciones que se asignan por ley al Ayuntamiento con respecto a la administración municipal en el ámbito de la entidad (ferias y mercados, ocupación de vía pública, asociaciones de barrio, turismo, comercio, urbanismo y medio ambiente, personal, hacienda y patrimonio, educación, deporte, cultura, euskara y política social).

El primer alcalde pedáneo fue Imanol Lizeaga Urdanpilleta (Eek *Ereñotzu Ekinez*), y completaban la Comisión Gestora (hasta la celebración de las siguientes elecciones municipales, ese mismo año), Aritz Zerain Miner, Izaskun Bengoetxea Huizi, Ana Santa Kruz Villarrolain y Paki Lizeaga Agirre. Imanol Lizeaga repitió en el cargo de alcalde de barrio (pedáneo) en las elecciones de 2015; y en 2019, le sustituyó Unai Erroizenea Gamio.

El 26 de septiembre de 2005, el Ayuntamiento, y pueblo de Hernani, organizó una serie de actos en recuerdo de aquellos hernaniarrras (Tomás Anabitarte, Florentino Goikoetxea, Juan Manuel Larburu y Martín Errazkin, de entre otros anónimos)



Zubia, II. Mundu Gerraren testuinguruan aritutako Hernaniko mugalariei omenez, Osinaga bailaran (2006ko urriaren 26an).

Zubia, monumento a los mugalaris hernaniarras durante la II Guerra Mundial, en Osinaga bailara (26 octubre de 2006).

batzuen artean). Horiek, aliatuen hainbat ihes-saretan parte hartu zuten, esaterako, Comète Sarean. Mugalari haiek soldadu eta hegazkinlari aliatu askori lagundu zieten Frantziako eta Espainiako muga klandestinoki gurutzatzen, askatasun irrikatuaren bila. Osinaga bailaran, Loidi etxearen parean, “Zubia” monumentua jarri zen mugalarien lana aitortzeko eta omentzeko. Aurretik, II. Mundu Gerran borrokatutako hernaniar haien familiarteko zuzenak eta Florentino Goikoetxeari eta beste batzuei esker askatasunerako zubia topatu zuten hainbat soldadu eta hegazkinlari britainiarrenak, kanadarrenak... han zirela, Hernaniko udalean adierazpen instituzional bat onartu zen, *Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar batzuk aitortzeko, Europako finkatze demokratiakoari eta askapenari egindako ekarpenagatik, II. Mundu Gerran zehar, nazismoaren aurkako borrokan*⁹⁶.

Hernanin 1936an egindako fusilatzeen 70. urteurrenaren testuinguruan, 2006ko martxoaren 17an, elkarlanerako hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hernaniko udalaren artean, “Hernani-1936-2006” programaren zati bat bultzatzeko. Hitzarmen horren bidez, aipatutako instituzio bakoitzak 75.000 euroko diru-laguntza eman zion Hernaniko udalari, *1936an Hernanin fusilatutako pertsonak oroitzeko monumentu bat eraikitzeko, udal-hilerriaren ingurua birmoldatzeko, hor kokatuko baitzen aipatutako monumentua, eta inguru horretako plazaren urbanizazioa zabaltzeko*⁹⁷. Helburu horrekin, Hernaniko udalak 1936ko Gerra Zibilaren testuinguruan Hernanin fusilatutako pertsonen oroimenez monumentu bat egiteko

que colaboraron, participando en distintas redes de evasión aliadas, caso de la Red Comète, en la lucha contra el nazismo, en el transcurso de la II Guerra Mundial. Aquellos *mugalaris*, que ayudaron a numerosos soldados y aviadores aliados a cruzar clandestinamente la *muga* entre Francia y España en busca de una ansiada libertad, tienen su reconocimiento y homenaje, por medio del monumento “Zubia”, en Osinaga bailara, a la altura de la casa Loidi. Anteriormente, con asistencia de los familiares más directos de aquellos hernaniarras, antiguos combatientes de la II Guerra Mundial y varios de los soldados y aviadores británicos, canadienses etc. que encontraron el *punte* de la libertad gracias a Florentino Goikoetxea y otros, se aprobó en el Ayuntamiento hernaniarra una declaración institucional en *reconocimiento a Florentino Goikoetxea y a otros hernaniarras por su contribución a la consolidación democrática y la liberación de Europa, en su lucha contra el nazismo durante la II Guerra Mundial*⁹⁶.

En el contexto del 70 Aniversario de los fusilamientos de 1936 en Hernani, con fecha de 17 de marzo de 2006 es firmado un “Convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Hernani para impulsar una parte del programa “Hernani 1936-2006”; por el que, en concreto, cada una de las referidas instituciones concedió al Ayuntamiento de Hernani una subvención de 75.000 euros con destino a *erigir un monumento en memoria de las personas fusiladas en 1936 en Hernani, remodelar el entorno del cementerio municipal donde se ubicará el citado monumento, y ampliación de la urbanización de la plaza ubicada en el citado entorno*⁹⁷. Con ese fin, el Ayuntamiento de Hernani convocó

96 Jiménez de Aberásturi, 2006, 105-113. or.

97 HUA/AMH//3.3.7 Ekarpene espediente. Elkarlanerako hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hernaniko udalaren artean, “Hernani 1936-2006” programa bultzatzeko: Hernanin 1936an fusilatutako pertsonak oroitzeko monumentua; herri-hilerriaren inguruaren birmoldaketa (inguru horretako plazaren urbanizazioaren hedapena). 2006-2007.

96 Jiménez de Aberásturi, 2006, pp. 105-113.

97 HUA/AMH//3.3.7. Expedientes de aportaciones. Convenio de colaboración entre Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Hernani para impulsar el programa “Hernani 1936-2006”: monumento en memoria de las personas fusiladas en 1936 en Hernani, remodelación del



Argi-horma (Carlos López de Ceballos), 1936an Hernanin fusilatutako pertsonen omenez, Hernaniko hilerriaren sarreran, 2006ko azaroaren 8an inauguratutako monumentua. Argi-horma (Carlos López de Ceballos), monumento inaugurado a la entrada del cementerio hernaniarra, el 8 de noviembre de 2006, en recuerdo de las personas fusiladas en Hernani en 1936.

2007KO MAIATZAREN 27KO UDAL-HAUTESKUNDEAK* / ELECCIONES MUNICIPALES DE 2007, MAYO 27*

ERROLDA / CENSO: 15.667
BOTO EMAILEAK / VOTANTES: 9.904 (63,06%)
ABSTENTZIOA / ABSTENCIÓN: 6.544 (41,77%)
TXURIAK / BLANCOS: 159 (1,74%)
BALIOGABEAK / NULOS: 80 (0,88%)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES		
EAE / ANV	4.187 (47,13%)	8
PSE-EE / PSOE	1.407 (15,84%)	3
EAJ-PNV	994 (11,19%)	2
EA	938 (10,56%)	2
EB / ARALAR	890 (10,02%)	1
PP	468 (5,27%)	1

* <http://www.euskadi.eus/www.euskadi.eus>. Hauteskundeetako emaitzak / Resultados elecciones.

idea-lehiaketa deitu zuen. Carlos López de Ceballosen *Argi-horma* lanak irabazi zuen lehiaketa.

2006ko azaroaren 8an inauguratu zen monumentua, birmoldatu berria zen hilerriko sarreran egin zen ekitaldi jendetsuan. Bertan izan ziren Juan José Ibarretxe lehendakaria, Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburua, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta Joxan Rekondo Hernaniko alkatea. Halaber, 70 urte lehenago Hernanin fusilatutako eta dokumenturik gabe lurperatutako pertsonen familiarteko ugari ere bertan ziren.

Handik hilabete batzuetara, 2007ko ekainean, “1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak” liburua aurkeztu zen, Mikel Aizpuru (zuzendaria), Urko Apaolaza, Jesus Mari Gómez eta Jon Odriozolaren lana. “Udazkena oraindik” dokumentala ere argitaratu zen, Sabin Egiliorren lana (Aranzadi Zientzia Elkarte).

2007ko maiatzaren 27an egindako tokiko hauteskunde berriek ahalbidetu zuten ezker abertzaleak alkatetza berreskuratzea, kasu honetan EAE-ANV siglekin (4.187 boto, zenbatuen %47,13). Marian Beitialarrangoitia Lizarralde izendatu zen alkate.

Herriko bizilagunek sortutako hondakin “mota” ugariren birziklapena sustatzeko eta horretan lan egiteko

un *Concurso de ideas para la realización de un monumento en memoria de los fusilados en Hernani en el contexto de la Guerra Civil de 1936*, del que resultó la obra *Argi-horma* de Carlos López de Ceballos.

Este es inaugurado en un multitudinario acto celebrado en la recién remodelada entrada al cementerio municipal, el 8 de noviembre de 2006, con presencia del Lehendakari Juan José Ibarretxe, el consejero de Justicia del Gobierno Vasco, Joseba Azkarraga, representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el alcalde de Hernani Joxan Rekondo, y la asistencia de numerosos familiares de las personas fusiladas e indocumentadamente enterradas en Hernani 70 años antes.

Unos meses más tarde, en junio de 2007 es presentado el libro “El otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los fusilamientos de Hernani”, obras de Mikel Aizpuru (director), Urko Apaolaza, Jesus Mari Gómez y Jon Odriozola. También se editó un documental, “Udazkena oraindik”, obra de Sabin Egilior (Sociedad de Ciencias Aranzadi)

entorno del cementerio municipal (ampliación de urbanización de la plaza de dicho entorno). 2006-2007.



2010eko maiatzaren 9an jarri zen abian Atez Ateko hondakinak Biltzeko Sistema.

El sistema de recogida de residuos Puerta a Puerta (PaP) se puso en marcha el 9 de mayo de 2010.



helburuz, 2010eko maiatzaren 9an *Atez Ateko* hondakin-bilketa-sistema jarri zen martxan, urtebete lehenago Usurbilen ezarri ondoren⁹⁸. Hala, dibertsifikatu egin zen hondakin hauen bilketa: organikoa, plastikoa eta ontzi arinak, papera eta kartoia, eta birziklatu ezin direnak (*errefusa*).

Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu zentralaren bultzadari esker, Donostiako Parke Teknologikoa Hernaniko Galarretara zabalduko da 2011 eta 2013 artean (150.000 m² baino gehiago), eta aurrerantzean Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoa deituko da. Lanak hasita zeuden arren, 2011ko martxoan aurkeztu zuten, eta, besteak beste, Marian Beitialarrangoitia Hernaniko alkatea bertan izan zen.

Bertan dago ORONA IDeO proiektua (ORONA Fundazioa), hiri-mugikortasunean, igogailuetan eta eraikinen kudeaketa energetikoan espezializatutako berrikuntza-espazioa (fabrika-instalazioak Epele-Lastaola industrialdean ditu). Mondragon Unibertsitatearen hainbat espezialitate eta IKERLAN zentroaren egoitza bat ere han daude. Gainera, enpresa berriak bertan kokatzea espero da eta horren inguruko kudeaketa egiten ari dira, Hernaniko industria-ehuna bultzatzeko eta "berritzeko".

Hernaniko *I+G+b industrialdea* izango litzateke, 1960-1970eko hamarkadetan herrian finkatutako industrialdeekin batera: Ezia, Lastaola, Ibarluze, Ibaiondo, Zubiondo, Akarregi... Industrialde horietan dituzte haien instalazioak etorkizun ekonomiko handiagoa zein txikiagoa duten tailer eta enpresek (baita nazioarte mailakoak ere). Eta bertan lan egiten dute hernaniar ugari eta eskualdean bizi diren pertsona ugari.

El 27 de mayo de 2007, unas nuevas elecciones locales posibilitaron que la izquierda abertzale recuperara la alcaldía bajo las siglas de EAE-ANV (4.187 votos, el 47,13% de los escrutados). Es alcaldesa Marian Beitialarrangoitia Lizarralde.

Con el fin de fomentar y actuar en el reciclaje de los distintos "tipos" de residuos que produce la localidad, que generan los vecinos de Hernani, el 9 de mayo de 2010 se pone en marcha, tras su implantación en Usurbil un año antes, el sistema de recogida de residuos *Puerta a Puerta* (PaP)⁹⁸, diversificando la recogida de residuos orgánicos, plásticos y pequeños envases, papel y cartón, y aquellos que no se pueden reciclar (resto o *errefusa*).

Gracias al impulso de los gobiernos vasco y central el Parque Tecnológico de San Sebastián se ampliará entre 2011 y 2013 al área de Galarreta de Hernani (más de 150.000 m²), y pasará a denominarse a partir de entonces, Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa. Aunque ya se habían iniciado las obras, fue presentado en marzo de 2011, con presencia, entre otras autoridades, de la alcaldesa de Hernani, Marian Beitialarrangoitia.

En él tiene acogida el proyecto ORONA IDeO (Fundación ORONA), espacio de innovación especializado en el sector de la movilidad urbana, elevación y gestión energética de edificios (sus instalaciones fabriles se ubican en el polígono Epela-Lastaola), y aglutina también especialidades varias de Mondragon Unibertsitatea, y una sede del centro IKERLAN. Además, se espera y gestiona en torno a él, la ubicación de nuevas empresas que permitirán impulsar e "innovar" el tejido industrial de Hernani.

Vendría a ser el *polígono I+D+I* de Hernani, unido a los polígonos industriales ya asentados en la localidad desde las décadas de 1960 – 1970: Ezia, Lastaola, Ibarluze, Ibaiondo, Zubiondo, Akarregi..., polígonos estos donde tienen sus instalaciones talleres y empresas de mayor o menor proyección económica (incluso a nivel internacional) y en los que llevan a

98 Urrutibaskoa, 2010, 34-37. or.

98 Urrutibaskoa, 2010, pp. 34-37.

2011KO MAIATZAREN 22KO UDAL-HAUTESKUNDEAK / ELECCIONES MUNICIPALES DE 2011, MAYO 22*

ERROLDA / CENSO: 15.203
BOTO EMAILEAK / VOTANTES: 9.919 (65,24%)
ABSTENTZIOA / ABSTENCIÓN: 5.284 (34,76%)
TXURIAK / BLANCOS: 158 (1,59%)
BALIOGABEAK / NULOS: 120 (1,21%)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES		
BILDU	4.205 (43,62%)	9
EAJ-PNV	1.731 (17,95%)	3
PSE-EE / PSOE	1.613 (16,73%)	3
H1!	893 (9,26%)	2
PP	480 (4,98%)	--
ARALAR	418 (4,34%)	--
EB-B	301 (3,12%)	--

* <http://www.euskadi.eus/> www.euskadi.eus. Hauteskundeetako emaitzak / Resultados elecciones.

2015EKO MAIATZAREN 24KO UDAL-HAUTESKUNDEAK / ELECCIONES MUNICIPALES DE 2015, MAYO 24*

ERROLDA / CENSO: 15.286
BOTO EMAILEAK / VOTANTES: 9.301 (60,85%)
ABSTENTZIOA / ABSTENCIÓN: 5.985 (39,15%)
TXURIAK / BLANCOS: 202 (2,17%)
BALIOGABEAK / NULOS: 136 (1,46%)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES		
EH BILDU	4.182 (46,66%)	9
EAJ-PNV	2.071 (23,11%)	4
IND. HERNANI 15 (ORAIN HERNANI)	1.354 (15,04%)	2
PSE-EE / PSOE	1.077 (12,02%)	2
PP	283 (3,18%)	--
ARALAR	418 (4,34%)	--
EB-B	301 (3,12%)	--

* <http://www.euskadi.eus/> www.euskadi.eus. Hauteskundeetako emaitzak / Resultados elecciones.

2011ko maiatzaren 22an beste udal-hauteskunde batzuk egin ziren, eta EH Bildu koalizioak irabazi zituen, gehiengo osoarekin: 4.205 boto, emandako botoen % 43,62. 2011-2015 legegintzaldian Luix Intxauspe izan zen alkate, eta hurrengo legegintzaldian ere hark errepikatu zuen (2015-2019), orduan ere gehiengo osoarekin (4.182 boto, emandako botoen % 46,66).

2011ko uztailaren 3an modu tragikoan esnatu zen Hernani. Egun horretan hilketa matxista bat gertatu zen Hernanin, ordura arte herrian bizitako indarkeria matxistaren kasurik larriena. Mutil-lagun ohiak Charo Román hil zuen, alabaren aurrean. Sei labankada eman zizkion; horietako bat bihotzeraino iritsi zen eta heriotza eragin zion.

Mende berrian hirigintza arloko garapen berriak egi-ten joan ziren, horixe da, hain zuzen ere, ehun (100) urtean baino gehiagoan hainbat erabilera izandako lursail batzuen kasua (*Trinchera gaina*): herri-hilerria izan zen hasieran, futbol-zelai bat gero (*Txantilla* famatua, urbanizazio berriari izena eman ziona), aparkaleku bat eta, azkenik, Txantxilla auzoa...

Parte-hartze prozesuak hasi ziren, Hernaniko udalak berak kudeatuta, hainbat udal arlotan hernaniarrei ahotsa emateko helburuz. Prozesu horiek goia jo zuten *Hernani era-baki!* prozesuarekin; hurrengo ekitaldiko udal-aurrekontuko

cabo su actividad laboral numerosas y numerosos hernaniarros y personas de la comarca.

Unas nuevas elecciones municipales se celebraron el 22 de mayo de 2011, resultando ganadora la coalición EH Bildu, obteniendo la mayoría absoluta con 4.205 votos, el 43,62% de los emitidos. Es alcalde en la legislatura 2011-2015, Luix Intxauspe Arozamena, que repetiría también en la siguiente (2015-2019), de igual manera, con mayoría absoluta (4.182 votos, el 46,66% de los emitidos).

De forma trágica se despertó Hernani un 3 de julio de 2011. Aquel día se produjo en Hernani un asesinato machista, el caso de violencia sexista más grave vivido en la localidad. Charo Román fue asesinada en presencia de su hija por su exnovio, que le propinó seis cuchilladas, una de las cuales le alcanzó el corazón, lo que le provocó la muerte

Con el nuevo siglo se van produciendo nuevos desarrollos urbanísticos, caso, en esta ocasión, de un espacio, unos terrenos (*Trinchera gaina*), que en algo más de cien (100) años fueron ocupados por el cementerio municipal, un campo de fútbol (el legendario *Txantxilla*, del que toma su nombre la nueva urbanización), un aparcamiento, y finalmente... Txantxilla auzoa...

Se da inicio a procesos participativos, gestionados por el propio Ayuntamiento de Hernani, en busca de dar voz a las y los hernaniarros en distintas áreas municipales... procesos que

2019KO MAIATZAREN 26KO UDAL-HAUTESKUNDEAK / ELECCIONES MUNICIPALES DE 2019, MAYO 26*

ERROLDA / CENSO: 15.788
BOTO EMAILEAK / VOTANTES: 10.208 (64,66%)
ABSTENTZIOA / ABSTENCIÓN: 5.580 (35,34%)
TXURIAK / BLANCOS: 136 (1,33%)
BALIOGABEAK / NULOS: 119 (1,17%)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES		
EH BILDU	4.631 (46,53%)	11
EAJ-PNV	2.643 (26,55%)	6
PODEMOS-IU-EQUO Berdeak	1.250 (12,56%)	2
PSE-EE / PSOE	1.236 (12,42%)	2
PP	193 (1,94%)	--
ARALAR	418 (4,34%)	--
EB-B	301 (3,12%)	--

* <http://www.euskadi.eus/www.euskadi.eus>. Hauteskundeetako emaitzak / Resultados elecciones.

300.000/500.000 euro zertara bideratuko ziren erabaki zuten hernaniarrek prozesu haren bidez.

Beste gauza batzuen artean, herri mugakideekin elkar-lana bultzatzeko proiektuak jarri ziren martxan, hurrengo urteetan gauzatzen joan zirenak. Gizarte, ekonomia eta kooperatiba arloetan ekintzak eta jarduerak garatzea eta ezartzea zen helburua, betiere BETERRI-BURUNTZAKO herrietako biztanleen ongizate orokorra hobetzeko asmoz, bereziki, behartsuenena. Hala, Florida auzoko 28 zenbakiko instalazioetan dauden ITUROLA *Sorgunea* eta beste jarduera batzuk nabarmendu behar dira.

2019ko maiatzaren 26ko udal-hauteskundeetarako Hernanik 20.000 biztanle baino gehiago zituen. Ondorioz, 21 zinegotzi aukeratu behar izan ziren (ordura arte 17 zinegotzi zituen Hernanik). Hauteskunde horietan EH Bilduk jaso zituen boto gehien. Gehiengo osoa eskuratu zuen, eta 11 zinegotzi. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra (EH Bildu) izendatu zen alkate.

2019ko ekainaren 15ean hasi zen legegintzaldia, eta SARS-CoV2 (Covid 19 / Koronabirusa) gaixotasunak eragindako osasun-krisiak (eta ekonomikoak) markatu zuen.

Itxialdiaren lehen hilabeteen ondoren, Hernanik jarduera berreskuratu zuen pixkanaka, eta hainbat proiektu eta egitasmo jarri zituen martxan... *Hernani burujabe!* lortzeko.

tienen su último exponente en *Hernani erabaki / decide!* por medio del que la ciudadanía hernaniarra decide sobre el destino final de 300.000 / 500.000 euros en el presupuesto municipal del ejercicio siguiente.

Y, entre otros, también, se ponen en marcha proyectos de colaboración con municipios colindantes, que irían cuajando en años siguientes, con el objetivo de desarrollar e implantar acciones y realizaciones en áreas sociales, económicas (y cooperativistas) dispares, siempre en busca de mejorar el bienestar de los y las habitantes en general, y de las y los más necesitados, en particular, de los municipios de BETERRI-BURUNTZA. En este sentido, mencionar ITUROLA *Sorgunea*, y otras realizaciones, en las instalaciones del Florida auzoa 28.

Y Hernani, al superar los 20.000 habitantes, en las elecciones municipales celebradas el 26 de mayo de 2019, había de elegir 21 concejales (hasta entonces eran 17 los ediles hernaniarrras). En estas elecciones la fuerza más votada fue EH Bildu, que conseguiría la mayoría absoluta con 11 concejales. Fue nombrado alcalde Xabier Lertxundi Asteasuinzarra (EH Bildu).

Legislatura que dio comienzo el 15 de junio de 2019, y que vendría marcada por la crisis sanitaria (y económica) provocada por el SARS-CoV2 (Covid 19 / Coronavirus).

Tras los primeros meses de confinamiento, Hernani volvió, poco a poco, a recuperar su actividad, a poner en marcha proyectos e iniciativas en busca de... *Hernani burujabe!*



Hernani, ikuspegi orokorra. Hernani, vista general (2022).

1

**TESTUINGURU
HISTORIKOA**

**CONTEXTUALIZACIÓN
HISTÓRICA**

1960-1975

Diktadura frankistak iraun zuen artean, “errepresioa guztiz planifikatua, sistematikoa eta instituzionalizatua izan zen, errepresioa bera helburu bilakatzearaino”⁹⁹. Aurkaria fisiko-ki eta sinbolikoki deuseztatu zen¹⁰⁰, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako eskubide politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalak bertan behera uzteaz gain¹⁰¹. Deuseztatze fisikoaren ondorioz, diktadura-erregimenaren oposizioaren zati handi bat erbestean, kartzelan edo ehortzita zegoen 1940ko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Hori dela eta, Frankismoaren oposizioa, altxamenduaren aurka egin zuten alderdi politikoek ordezkaturik, desmobilizatuta geratu zen ia Bigarren Mundu Gerraren amaierara arte¹⁰².

Ondoren, 1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Espainiako diktadurak hainbat maniobra politiko hasi zituen, erregimena babestera bideratuta. Testuingurura egokitu zen, nazioartean emandako aldaketa koiunturalak zirela eta. Aldaketa horien ondorioz, potentzia handien etsaiak ez ziren jada erregimen faxistak, komunismoa eta Sobietar Batasuna baizik. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da 1953an Espainia NBE-n sartu zela¹⁰³. Hala, nazioarteko aitortzea lortzen joan zen pixkanaka, eta, ondorioz, aldaketa politikorako edozein aukera ameskeria bilakatzen zen¹⁰⁴.

Arrazoi horiek direla eta, nazioarteko egoera ezegonkorren aurrean, diktadurak hainbat urte zermatzan egoera egonkor eta baketsuan, oposizioa ahulduta edo erbestean zegoen bitartean. 1945ean *Unidad* egunkari falangistak “Y en España, paz” izenburua¹⁰⁵ (euskaraz, “Eta Espainian, bakea”) jarri zion urte hartan argitaratutako lehen aleari. 1964. urtean erregimenak eslogan hori berreskuratu zuen gerraren amaieraren 25. urteurrena oroitzeko¹⁰⁶. Dena den, 1964 dagoeneko

Durante la dictadura franquista la represión tuvo un carácter “absolutamente premeditado, sistemático, institucionalizado, hasta transformarse en un objetivo en sí mismo”⁹⁹. Supuso la eliminación física y simbólica del adversario¹⁰⁰, además de una supresión de derechos políticos, civiles, sociales, económicos y culturales recogidos en la Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948¹⁰¹. Una eliminación física que provocó que una parte considerable de la oposición al régimen dictatorial a partir de mediados de la década de 1940 se encontrara en el exilio, encarcelada o sepultada. En consecuencia, la oposición al Franquismo representada por los diferentes partidos políticos que se opusieron a la sublevación quedó desmovilizada hasta prácticamente el final de la Segunda Guerra Mundial¹⁰².

Posteriormente, desde mediados de la década de 1950, la dictadura española inició una serie de maniobras políticas encaminadas a la salvaguarda del régimen. Una adaptación al medio facilitada por los cambios coyunturales en el ámbito internacional, que habían motivado que el enemigo de las grandes potencias ya no fueran los regímenes fascistas sino el comunismo y la Unión Soviética. A este respecto, destaca la entrada de España en la ONU en 1953¹⁰³, y en consecuencia, el progresivo reconocimiento internacional que convertía en una quimera cualquier posibilidad de cambio político¹⁰⁴.

Por estos motivos, la dictadura llevaba varios años presumiendo de estabilidad, de paz frente a una situación internacional inestable y a una oposición debilitada o en el exilio. Ya en 1945 el diario falangista *Unidad* abrió su primer número de aquel año con el título “Y en España, paz”¹⁰⁵, eslogan que el régimen recuperará en 1964 para conmemorar el 25 aniversario del fin de la guerra¹⁰⁶. Sin embargo, 1964 ya no era 1945, y aunque

99 Juliá, 1999, 26. or.

100 Baby, 2018, 47. or.

101 Babiano *et al*, 2018, 8. or.

102 Barruso, 2005b, 309. or.

103 De pablo, 2002, 101-102. or.

104 Pérez, 2005, 328. or.

105 *Unidad*, 1945eko urtarrilak 1.

106 Preston, 1994, 883-889. or. Gerra Zibila amaitu zenetik, diktadura frankistak etengabe aipatzen zuen bakea. Erregimena gainbeheran zela ere, 1975eko terrorismoaren aurkako legearekin lotuta, honela hasten zen testu arautzailea: “Espainiak luzaroan izandako bakea ez dago guztiz babestuta mundua jasaten

99 Juliá, 1999, p. 26.

100 Baby, 2018, p. 47.

101 Babiano *et al*, 2018, p. 8.

102 Barruso, 2005b, p. 309.

103 De pablo, 2002, pp. 101-102.

104 Pérez, 2005, p. 328.

105 *Unidad*, 1 de enero de 1945.

106 Preston, 1994, pp. 883-889. Las alusiones a la paz por parte de la dictadura franquista fueron constantes desde el final de la Guerra Civil. Incluso en el ocaso del régimen, con motivo de la ley antiterrorista de 1975, el texto normativo comenzaba de la siguiente forma: “La larga paz de que viene disfrutando España



1967ko maiatzaren 1ean Donostia
(Argazkia: Arturo Delgado).

1 de mayo de 1967 en Donostia
(Fotografía: Arturo Delgado).

ez zen 1945, eta bide ofizialen bidez diktadura kontrol- eta segurtasun-itxura ematen saiatzen zen arren, bigarren frankismoan (1959-1975) eta, batez ere, frankismo berantiarrean (1968-1975), Espainiako estatuak giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoak egin zituen¹⁰⁷ oposizioko taldeen aurka. Talde horiek gero eta adierazgarritasun handiagoa hartzen joan ziren espazio publikoan.

“Euskal gizartearen eta diktaduraren arteko haustura-urteak izan ziren”¹⁰⁸. Erantzun gisa, estatu frankistaren errepresio-aparatuek, berriro ere, orokortu egin zituzten “gorria”, “gorri separatista” edo “euskaldun separatista” gisako salaketak, froga-elementu eta zigor-elementu ukaezin gisa¹⁰⁹. Errepresio hark hamarnaka hildako eta ehunka tortura-kasu eragin zituen. Bermerik gabeko sistema judiziala gehitu behar zaio horri. Edozein sistema demokratikotan oinarritzko eskubideen gauzatze gisa hartuko liratekeen oposizioaren jardueren kontra egiten zuen sistema hark. Horretarako, jurisdikzio militarra erabiltzen zuen, 1968an berriro aktibatu baitzen *Bidelapurrieriaren eta terrorismoaren dekretua*, 1960ko irailaren 21ekoa. Eta salbuespeneko jurisdikzio arrunta ere erabiltzen zuen, Ordena Publikoaren Auzitegiaren bidez (154/63 Legearen bidez sortua). Ordena Publikoaren Auzitegiaren bitartez, 24 hernaniarren aurkako errepresaliak hartu zituzten. Guztien artean, 60 urte, 6 hilabete eta 3 eguneko kartzela-zigorra batzen zuten, eta 105.000 pezetaren ordainketa¹¹⁰. Halaber, auzipetuetako zazpi salatuta zuten torturak jasan zituztela instrukzio-fasean¹¹¹.

Baina, gainera, diktadura frankistak maiz erabili zituen salbuespen-egoerak. Neurri horrek bereizi gabeko indarkerian oinarritutako egoera legal bat ahalbidetu zuen. 1962ko maiatzaren eta 1975eko apirilaren artean bederatzi salbuespen-egoera izan ziren Euskal Herrian, horietako hiru Gipuzkoan: 1968ko abuztuaren 3an dekretatutakoa; dekretu haren hiru hilabeteko luzapena, urte bereko urriaren 31n agindu zutena; eta 1970eko abenduaren 4an agindutakoa, Burgosko Prozesua hasi ondoren.

la dictadura intentará dar una imagen de control y seguridad a través de los medios oficiales, la etapa conocida como segundo franquismo (1959-1975), y sobre todo durante el tardofranquismo (1968-1975), se caracterizó por la grave y sistemática violación de los derechos humanos por parte del Estado español¹⁰⁷, contra unos grupos opositores que cada vez con más relevancia ocuparán el espacio público.

Fueron “los años de la ruptura de la sociedad vasca con la dictadura”¹⁰⁸. Y como respuesta, de nuevo, los aparatos represivos del Estado franquista volverán a generalizar las acusaciones de “rojo”, “rojo-separatista”, o “vasco-separatista” como elemento irrefutable de prueba y condena¹⁰⁹, en un ejercicio represivo que causó decenas de muertos y centenares de casos de torturas. A ello habría que sumar un sistema judicial sin garantías, actuando contra actividades opositoras que en cualquier sistema democrático constituían un simple ejercicio de derechos fundamentales, y valiéndose tanto de la jurisdicción militar con la reactivación en 1968 del conocido como *Decreto de Bandidaje y Terrorismo* del 21 de septiembre de 1960, como de la jurisdicción ordinaria de excepción a través del Tribunal de Orden Público (creado a partir de la Ley 154/63). A través del TOP, 24 hernaniarras fueron represaliados, sumando el conjunto de las condenas 60 años, 6 meses y 3 días de prisión, y el pago de 105.000 pesetas¹¹⁰. Asimismo, siete de los procesados han denunciado haber sido torturados durante la fase de instrucción¹¹¹.

Pero además, la dictadura franquista recurrió con asiduidad a los estados de excepción, una medida que permitió una situación legal de violencia indiscriminada. Entre mayo de 1962 y abril de 1975 hubo en territorio vasco nueve estados de excepción, tres de ellos limitados a Gipuzkoa: el decretado el 3 de agosto de 1968, la prórroga de este por otros tres meses el 31 de octubre del mismo año, y el dictado el 4 de diciembre de 1970 tras el comienzo del Proceso de Burgos.

El sentido de los estados de excepción era dar respuesta a las acciones consideradas subversivas. En efecto, el atentado mortal contra Melitón Manzanas en agosto de 1968 fue

ari den izurrite terroristaren aurrean. Aitzitik, ia berrogei urtez Espainiako bizitzaren bereizgarria izan den garapen baketsu eta progresibo horrek haserrearen eragin die haien helburu politikoetarako edo bulkada antisozialetarako tresna gisa indarkeria bultzatzen duten erakunde, talde eta banakoei”. 10/1975 Lege Dekretua, abuztuaren 26koa, *terrorismoaren prebentzioari buruzkoa*. BOE, 1975eko abuztuak 27, 205. zk.

107 Babiano, 2018, 9. or.

108 Fusi, 2018, 66. or.

109 1968 eta 1969 artean erbesteratutako pertsonen buruz Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan kontsultatutako espedienteetan oinarritzen da baieztapen hori: Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa, Guardia Zibila, 1969, Gobernu Zibila Funtsa, GC-530-GC-531.

110 Aranzadi Zientzia Elkartean artxiboan (Atotxako Abokatuen Funtsa) babestutako sumarioak, TOPDAT CD Rometik ateratakoak. Ustiatzeko dagoen datu-basea, José Gómez Alén eta Rubén Vega García koordinatua, eta 2007an Atotxako Abokatuen Fundazioak argitaratua.

111 KREIk emandako informazioa.

no podía ser totalmente inmune a la plaga terrorista que padece el mundo. Por el contrario, ese mismo desarrollo pacífico y progresivo que ha caracterizado a la vida española durante cerca de cuarenta años ha concitado la irritación de las organizaciones, grupos o individuos que preconizan la violencia como instrumento de sus propósitos políticos o de sus impulsos antisociales”: Decretoley 10/1975, de 26 de agosto, *sobre prevención del terrorismo*. BOE, 27 de agosto de 1975, nº 205.

107 Babiano, 2018, p. 9.

108 Fusi, 2018, p. 66.

109 Esta afirmación deriva de los expedientes consultado en el Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa relativos a personas desterradas entre 1968 y 1969: AHPG, GC, 1969, Fondo Gobierno Civil, c. GC-530-GC-531.

110 Sumarios custodiados en el Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi (Fondo Abogados de Atocha), extraídos del CD Rom TOPDAT. Una base de datos para explotar, coordinado por José Gómez Alén y Rubén Vega García y editado por la Fundación Abogados de Atocha en 2007.

111 Información aportada por el IVAC-KREI.



Juan Jose Rekondo eta bere bi seme (familiaren artxiboa).

Juan José Rekondo junto a dos de sus hijos (Archivo familiar).

Ekintza iraultzaileztat hartzen ziren horiei erantzutea zen salbuespen-egoera haien helburua. Hain zuzen ere, 1968an Melitón Manzanasen aurka egin zuten eta haren heriotza eragin zuen atentatuari erantzuteko, salbuespen-egoera deklaratu zuten eta, ondorioz, ehunka gipuzkoar atxilotu zituzten. Horien artean, gutxienez, sei hernaniar zeuden, horietako bi erbesteratuak: Jon Agirretxe Galarraga eta Juan José Recondo Múgica.

Agirretxe 1967ko uztailaren 9an atxilotu zuten lehen aldiz, Izaskungo (Tolosa) ermitatik bandera espainiarra kendu zuen nazionalista taldeko kide izateagatik. Gertakari horrenatik urtebeteko kartzela-zigorra jarri zion Ordena Publikoaren Auzitegiak. 1968ko abuztuaren 5ean berriro atxilotu zuten, salbuespen-egoera deklaratu ostean. Guardia Zibilaren aurrean egindako deklarazioan ukatu egin zuen ETako kidea zenik, baina *Herri Gaztedi* taldeko kidea zela aitortu zuen. Urtebete lehenago Izaskunen gertatu zenaren inguruko galdetara egin zioten berriro ere, eta 1967ko uztailean Tolosan jardun zuen taldearekin batera bilera politikoetan izandako parte-hartzeari buruz galdetu zioten. Abuztuaren 16an, Cortes de la Fronterara (Málaga) erbesteratzeko agindua eman zuen Gipuzkoako gobernadore zibilak. Errepresaliatua abuztuaren 25ean iritsi zen udalerrri horretara, eta bertan egotera behartu zuten abenduaren 23ra arte¹¹².

Recondori dagokionez, 1919an jaioetako hernaniar honek Eusko Gudarosteko *Saseta* batailoian borrokatu zuen 1936ko amaieratik aurrera. 1937an Limpiasen (Kantabria) atxilotu zuten eta zenbait kontzentrazio-esparrutan sartu zuten.

respondido con la declaración del estado de excepción y la posterior detención de centenares de guipuzcoanos, entre los que se encontraban al menos seis hernaniarras, dos de ellos desterrados: Jon Agirretxe Galarraga y Juan José Recondo Múgica.

Agirretxe había sido detenido por primera vez el 9 de julio de 1967, después de ser parte integrante del grupo de nacionalistas que arrancaron de la ermita de Izaskun (Tolosa) una bandera española. Por este hecho fue condenado a un año de prisión por el TOP. El 5 de agosto de 1968 volvió a ser detenido tras declararse el estado de excepción. En su declaración ante la Guardia Civil negó formar parte de ETA, pero sí reconoció pertenecer a *Herri Gaztedi*. De nuevo fue interrogado por lo sucedido un año antes en Izaskun, e interpelado sobre su participación en reuniones de carácter político junto al grupo que actuó en julio de 1967 en Tolosa. El 16 de agosto el gobernador civil de Gipuzkoa emitió la orden de destierro a Cortes de la Frontera (Málaga), población a la que el represaliado llegó el 25 de agosto y en la que fue obligado a permanecer hasta 23 de diciembre¹¹².

Con respecto a Recondo, este hernaniarra nacido en 1919 combatió en el batallón *Saseta* del Ejército Vasco desde finales de 1936. En agosto de 1937 fue detenido en Limpias (Cantabria), siendo recluido en diferentes campos de concentración, hasta que en 1940 fue obligado a cumplir el servicio militar en Figueras (Girona). En 1949 trasladó su residencia a Venezuela, donde permaneció hasta 1963. El 30 de mayo de 1967 fue detenido por miembros de la Guardia Civil en Getaria (localidad en la que se había establecido tras su regreso) bajo la acusación

112 Buces *et al.*, 2018, 112-113. or.

112 Buces *et al.*, 2018, pp. 112-113.

1940an soldadutza egitera behartu zuten Figueresen (Girona). 1949an Venezuelara joan zen bizitzera, eta han bizi izan zen 1963ra arte. 1967ko maiatzaren 30ean Guardia Zibilak atxilotu zuen Getarian (han bizi zen itzuli zenez geroztik), “ETA erakunde klandestinoko kideei etengabe bere etxean babesa eta bizilekua” eman izana egotzita. Salbuespen-egoera indarrean sartu zela eta, 1968ko abuztuaren 5ean Guardia Zibila familiaren baserrira joan zen, eta Recondo eta haren 17 urteko alaba, Elixabete, atxilotu zituen. 1968ko abuztuaren 14an Gipuzkoako gobernadore zibilak errepresaliatua berehala Segoviako Cuellar herrira eramatea erabaki zuen, eta han egon zen azarora arte¹¹³.

Bi urte geroago, beste salbuespen-egoera bat deklaratu zuten Burgosko Prozesuaren aurkako protesten eta Alemaniako Eugenio Beihl kontsularen bahiketaren aterkipean. Horrek atxiloteta berriak, bermerik gabeko epaiketak eta torturak. Torturak izan ziren, hain zuzen ere, Antonio Goñiren ondorengo suizidioaren eragileak Donostiako Sagues auzoan. Gainera, manifestazioetan Poliziak hildako bat (Roberto Pérez Jauregi) eta gutxienez hiru zauritu utzi zituen balaz, horietako bi Hernanin, Jose Manuel Arrondo Ecnarro eta Inaki Errazkin Izaguirre.¹¹⁴

Ondoren, 1972ko abuztuan, ETAk bonba bat jarri zion Hernaniko hilerrian zegoen monumentuari, 36ko gerran hildako kolpistei eskainia, eta “gutziz suntsituta geratu zen”¹¹⁵. Gainera, uhin hedakorak zauri arinak eragin zizkien E. M. M. eta S. B. G emakumeei. Hura izan zen ETAk Hernanin ondasun materialen aurka lehergailuekin egindako lehen atentatua. Lau hilabete geroago, Sindikatu Bertikalaren egoitzan zeuden pertsonak eraikinetik ateratzera behartu zituzten ETako hainbat kidek. Ondoren, eraikina likido suharberaz busti eta su eman zioten¹¹⁶.

1972. urte hartan bertan, ETAk Hernanin indarkeriaz egindako lehen lapurreta erregistratu zen, *Orbegozo* fabrikari. Bi langilek maleta bat zeramaten 3.975.021 pezetarekin. Pertsona bat haiengana hurbildu zen pistolaren kanoia zuzentzen zien bitartean, eta dirua kendu zien. Ondoren, kide batek gidatutako ibilgailu batean ihes egin zuen¹¹⁷. 1973ko abuztuan, Hernaniko enpresetako *Ekonomatu Kolektibo*-ko bi langile (R.A.A. eta E.I.O.) suzko armekin mehatxatu zituzten ETako militanteek, zeramaten dirua kentzeko helburuz. Guardia Zibilaren bertsioaren arabera, mehatxatu arren, R.A.A.-k

de haber dado “cobijo y alojamiento de forma ininterrumpida en su domicilio a los miembros de la organización clandestina ETA”. Con motivo de la entrada en vigor del estado de excepción, el 5 de agosto de 1968 la Guardia Civil se personó en el caserío familiar, siendo detenidos tanto Recondo como su hija Elixabete de 17 años. El 14 de agosto de 1968 el gobernador civil de Gipuzkoa acordó el traslado inmediato del represaliado a la localidad segoviana de Cuellar, donde permaneció hasta el mes de noviembre¹¹³.

Dos años más tarde, un nuevo estado de excepción bajo el paraguas de las protestas contra el Proceso de Burgos y el secuestro del cónsul alemán Eugenio Beihl, trajo consigo nuevas detenciones, casos de juicios sin garantías y torturas, causando estas últimas del posterior suicidio de Antonio Goñi en el barrio donostiarra de Sagues. Además, la actuación policial en manifestaciones dejó un muerto (Roberto Pérez Jauregi) y al menos tres heridos de bala, dos de ellos en Hernani, Jose Manuel Arrondo Ecnarro e Inaki Errazkin Izaguirre.¹¹⁴

Posteriormente, en agosto 1972, ETA colocó una bomba en el cementerio de Hernani al monumento dedicado a los golpistas fallecidos en la guerra del 36, “quedando éste completamente destruido”¹¹⁵. Además, la onda expansiva provocó heridas leves a las mujeres E. M. M. y S. B. G. Fue este el primer atentado de ETA con explosivos contra bienes materiales en Hernani. Cuatro meses más tarde, varios miembros de esta misma organización obligaron a las personas que se encontraban en la sede del Sindicato Vertical a abandonar el edificio, para posteriormente darle fuego tras rociarlo con líquido inflamable¹¹⁶.

Ese mismo año de 1972 se registra el primer robo con violencia en Hernani llevado a cabo por ETA, en la factoría *Orbegozo*. Dos empleados que transportaban una maleta con la cantidad de 3.975.021 pesetas fueron abordados por un individuo que les encañonó con una pistola y le sustrajo el dinero, para posteriormente huir en un vehículo conducido por un compañero¹¹⁷. Ya en agosto de 1973, los trabajadores amenazados con armas de fuego por militantes de ETA, con el objetivo de sustraerles el dinero que portaban, fueron dos empleados del *Economato Colectivo* de empresas de Hernani (R.A.A. y E.I.O.). Según la versión de la Guardia Civil, a pesar de la amenaza, R.A.A. persiguió a los atracadores hasta Astigarraga mientras estos continuaban disparándole desde el coche en el que huían¹¹⁸.

Entre los años 1973 y 1975 aumentaron significativamente los secuestros y las víctimas mortales causadas por ETA y otros grupos armados contestatarios. Por su relevancia política

113 Buces *et al*, ídem, pp. 164-167. or.

114 Buces, 2021.

115 Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua, 1972, Gobernu Zibilaren Funtsa, 3677/0.

116 *Ibidem*.

117 *Ibidem*

113 Buces *et al*, ídem, pp. 164-167.

114 Buces, 2021.

115 AHPG, SIGC, 1972, Fondo Gobierno Civil, c. 3677/0.

116 *Ibidem*.

117 *Ibidem*

118 AHPG, SIGC, 1973, Fondo Gobierno Civil, c. 3678/0.

TORTURA KASUEN ZENBAKETA / RECUENTO DE CASOS DE TORTURA (1960-1975) ¹⁴

	GUARDIA ZIBILA GUARDIA CIVIL	POLIZIA NAZIONALA POLICÍA NACIONAL	BESTE BATZUK OTROS	GUZTIRA TOTAL
KREI / IVAC ¹⁵	424	368	n.c.	792
Euskal Memoria ¹⁶	467	498	n.c. / 25	990
HERNANI	17	9	0	26

* Tauletako oharra argitalpen honen amaieran agertzen dira, 218. orrialdean. Las notas de las tablas aparecen al final de esta publicación, en la página nº 218.



Luis Javier Arrieta Berecibar, 1968ko uztailean torturatua (Bilduma partikularra). Luis Javier Arrieta Berecibar, torturado en julio de 1968 (Colección particular).

Espainako polizia indarren tortura metodoak (*La Tortureaux Pays Basque*, 1969). Métodos de tortura utilizados por los cuerpos policiales españoles (*La Tortureaux Pays Basque*, 1969).

lapurrei jarraitu zien Astigarragara arte. Bitartean, lapurrek tiro egiten jarraitzen zuten ihes egiteko erabili zuten ibilgailutik¹¹⁸.

1973 eta 1975 artean nabarmen ugaitu ziren ETAk eta beste talde armatu inkonformista batzuek egindako bahiketak eta haiek eragindako hildako biktimak. Izan zuen garrantzi politiko eta sozialagatik, 1973ko abenduaren 20an Luis Carrero Blanco militarren eta Espainiako gobernu diktatorialaren presidentearen aurka egindako atentatua garrantzi handiko efemeridea izan zen. Dena den, urte hartan bertan, zazpi egun lehenago, euskal gatazka politikoarekin lotutako lehen heriotza dokumentatu zen Hernanin. Juanita Lasa Goñi trafiko-istripuan hil zen, Martutenen preso zuen semea bisitatzetik bueltan zetorrela.

Lasaren heriotzatik urtebetera, 1974ko abenduan, Guardia Zibilak larri zauritu zuen Jesús María Irazu Garmendia, greba orokorreko deialdi batean parte hartu ondoren etxera zihoa-nean. EAEn 1960-1978 artean izandako motibazio politikoko indarkeriaren biktimei buruzko Balorazio Batzordeak jasotako

reconocimiento social similar al de las víctimas del derecho a la vida causadas por la violencia política estatal, si bien, al ser personas fallecidas oficialmente en enfrentamientos, no han recibido ningún tipo de reconocimiento institucional, a excepción de las distinciones y pronunciamientos auspiciados por el Ayuntamiento de Hernani²¹⁵.

Por tanto, existen respuestas diferenciadas en cuanto al reconocimiento institucional y social en función de estatus de la víctima, pero sobre todo del agente victimario. Sin embargo, en todos los casos, las entrevistas realizadas tanto por Aranzadi como por otros organismos y medios de comunicación, señalan una revictimización, un sufrimiento añadido, para los familiares de las personas fallecidas cuando el reconocimiento institucional o social (dependiendo del caso, tal y como se ha señalado en los párrafos anteriores) no ha existido o ha llegado trascurridas varias décadas.

215 *Ibidem*.

215 *Ibidem*.

Bizitzeko eskubidearen urraketaren biktimak, hernaniarrak edo Hernanin

Bizitzeko eskubidearen urraketaren 16 biktimei dagokienez, guztiak, Aurelia Jimenez izan ezik, 25 eta 54 urte arteko gizonak dira. Bat bomba-auto batekin egindako atentatu baten ondorioz hil zen, baina gainerako guztiak su-armek eragindako zaurien ondorioz hil ziren²¹⁶. Biktima horien estatusari dagokionez, Foronda Txostenak ezarritako parametroei jarraituz²¹⁷, 12 zibilak ziren (% 75), bi ETako militanteak (% 12,5) eta bi polizia-agenteak (% 12,5). Hildako 12 zibilen artetik, bost heriotza eskuin muturreko taldeek edo talde parapolizialek eragin zituzten, beste bost ETak²¹⁸ (egileek salatu zuten, horietako hiru isil-mandatariak ziren, bat narkotrafikatzailea eta bosgarrena estortsioak jasan zituen ostalari bat), bat Guardia Zibilak eta heriotza baten erantzulearen inguruan bertsio ezberdinak daude; ordura arte ezezaguna zen talde autonomo batek aldarrikatu zuen, Grupo Autonomo de Autodefensa de Euskadi (GAAE) taldeak, baina gerora ez zen talde haren gaineko berri gehiagorik izan. Hildako ETako militanteei dagokienez, GALEko kideak izan ziren biktimagileak. Polizia-agenteen heriotzen erantzulea, berriz, ETA izan zen²¹⁹.

Guztira, hildako 16 pertsonetatik 14 hernaniarrak ziren (lau bertan jaioak eta bertako bizilagunak, hiru bertan jaioak baina bertan bizi ez zirenak, eta zazpi bertan jaio ez arren herrian bizi zirenak). 14 horien artetik, zazpi Hernanin hil ziren eta sei Euskal Herriko beste herri batzuetan. Hernaniarrak ez diren bi biktimak Hernanin hil ziren, baina ez ziren udalerrian jaio eta ez ziren bertan bizi.

Egileta kontuan hartuz gero, bizitzeko eskubidearen urraketaren biktimak izan ziren 14 hernaniarren artetik, zortzi kasutan eskuin muturreko taldeen edo talde parapolizialena (estatuko indarkeria politiko bezala ere ezagutzen

Víctimas de violación del derecho a la vida hernaniarras o en Hernani

En cuanto a las 16 víctimas de violación del derecho a la vida, todos ellos, salvo Aurelia Jiménez, son varones con edades comprendidas entre los 25 y los 54 años; y a excepción de uno de los casos cuya causa de la muerte fue un atentado con coche bomba, el resto falleció por heridas de arma de fuego²¹⁶. Siguiendo los parámetros establecidos por el *Informe Foronda* en relación al estatus de estas víctimas²¹⁷, 12 eran civiles (75%), dos militantes de ETA (12,5%) y dos agentes policiales (12,5%). De los 12 civiles fallecidos, cinco fueron causados por grupos de extrema derecha o parapoliciales, otros cinco por ETA²¹⁸ (de los cuales tres fueron acusados por los autores de confidentes, uno de narcotráfico y un quinto era un hostelero extorsionado), uno por la Guardia Civil, y sobre la autoría de uno de los casos existen versiones diferentes; si bien fue reivindicado por un grupo autónomo desconocido hasta la fecha y del que en adelante no hubo más noticias, el Grupo Autónomo de Autodefensa de Euskadi (GAAE). En cuanto a los militantes de ETA fallecidos, los victimarios fueron miembros de los GAL; mientras que ETA fue la responsable de las muertes de los dos agentes policiales²¹⁹.

En total, 14 de los 16 fallecidos eran hernaniarras (cuatro naturales y vecinos de Hernani, tres naturales pero no vecinos y siete vecinos pero no nacidos en el municipio). De estos 14, siete fallecieron en Hernani y siete en otros municipios de Euskal Herria. Con respecto a las dos víctimas no hernaniarras, se trata de personas fallecidas en Hernani pero que no eran ni naturales ni vecinos de la localidad.

Si atendemos a la autoría, de los 14 hernaniarras víctimas de violación del derecho a la vida, en ocho ocasiones la responsabilidad recae sobre grupos de extrema derecha o parapoliciales (también denominada violencia política estatal) (57,14%)²²⁰.

216 Gogora, 2016.

217 López, 2014.

218 ETAm edo ETA. Bat ere ez zen izan ETApn-ren edo beste edozein talde armatu subertsiboren ardurapekoa.

219 López, 2014. Gogora, 2016.

216 Gogora, 2016.

217 López, 2014.

218 ETAm o ETA, sin que ninguno de ellos sean responsabilidad de ETApn o cualquier otro grupo armado de carácter subversivo.

219 López, 2014. Gogora, 2016.

220 Wihelmi, 2016, pp. 393-395.

dena) izan zen erantzukizuna (% 57,14)²²⁰. Bost kasutan egileak ETako militanteak izan ziren (% 35,71) eta, kasu batean, zalantzak badaude ere, GAAE izeneko talde autonomo batek eragin zuela uste da.

Gainera, 16 biktimetatik bederatzi Hernanin hil ziren (% 56,25). Bost ETak eragin zituen, hiru BVEk eta bat zehazteko dago.

Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiak 2016az geroztik herriz herri egindako argazkiak aintzat hartzen baditugu, Errenteria eta Hernani (bietan zazpi hildako) dira Euskal Autonomia Erkidegoan eskuin muturreko taldeek, talde parapolizialek edo polizia-kidegoek bizitzeko eskubidearen urraketa gehien eragin dituzten udalerriak, hiru hiriburuen atzetik. Halaber, Hernanin gehiago dira estatuko indarkeria politikoak eragindako hildakoak, talde armatu subertsiboetako biktimagileek eragindakoak baino (Eusko Jaurlaritzak bizitzeko eskubidearen urraketaren biktima gisa ait ortzen ditu). 5.000 biztanletik gorako hamar udalerrri dauka ezaugarri hori betetzen dutenak, eta horien artean dago Hernani²²¹. Udalerrri honetan, zazpi ETak hil zituen, zazpi estatuko indarkeria politikoaren biktima izan ziren eta kasu batek “egiletza zalantzarria” du²²².

Bestetik, heriotzak eragin zituzten atentatuak gertatu ziren aldi historikoei dagokionez, bakar bat gertatu zen Frankismoaren azken urteetan zehar, bederatzi trantsizioan (%56,25) eta sei gertatu ziren 1983 eta 2003 artean (%37,5). 1980an gertatu ziren trantsizio-aldian izandako sei kasuetatik bederatzi, hau da, aldi horretako kasuen %66,67a eta guztizkoaren %37,5a. Hortaz, Hernanin bizitzeko eskubidearen urraketak biktima gehien utzi zituen urtea izan zen hura.

1975eko lehen atentatuaren egiletza ETAm-ri egozten zaio. 1976 eta 1982 artean dokumentatutako bederatzi biktimen artean, sei estatuko eskuin muturreko taldeek edo talde parapolizialek eragin zituzten, bi ETAm-k eta bat GAAEk. Azkenik, 1983 eta 2003 arteko biktimetatik lau ETak eragin zituen eta bi GALEk²²³.

Heriotza eragin zuten 16 atentatu horien auzibide-egoerari dagokionez, gehienak epaitu dituzte (10, %62,5a), eta egileak zigortu²²⁴. Horien artean daude ETak egindako sei atentatu eta BVEk egindako lau. Gainera, bi kasu largetsita

En cinco casos los autores fueron militantes de ETA (35,71%) y en una ocasión, aunque existen algunas dudas, todo apunta a un grupo autónomo denominado GAAE.

Además, del total de 16 víctimas nueve fallecieron en Hernani (56,25%). Cinco causadas por ETA, tres por BVE y una sin determinar.

Si atendemos a los retratos municipales elaborados por la Secretaría General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco a partir de 2016, Errenteria y Hernani (ambas con siete fallecidos) son las localidades de la Comunidad Autónoma Vasca con mayor número de violaciones del derecho a la vida causadas por grupos de extrema derecha, parapoliciales o cuerpos policiales tras las tres capitales de provincia. Asimismo, Hernani se encuentra entre los diez municipios con más de 5.000 habitantes en los que el número de víctimas mortales (reconocidas por el Gobierno Vasco como víctimas de violación del derecho a la vida) causadas por la violencia política estatal es igual o superior a las producidas por victimarios pertenecientes a grupos armados de carácter subversivo²²¹. En este municipio, siete fallecieron a manos de ETA, siete son víctimas de la violencia política estatal y un caso figura con “autoría confusa”²²².

Por otra parte, en cuanto a los períodos históricos en los que se producen los atentados mortales, tan solo uno sucedió durante los últimos años del Franquismo, nueve durante la transición (56,25%) y seis entre 1983 y 2003 (37,5%). Seis de los nueve casos producidos en el período de la transición fueron en el año 1980, lo que supone el 66,67% de los casos para ese período y el 37,5% del total; siendo, por tanto, el año en el que más víctimas de violación del derecho a la vida se dieron en el caso de Hernani.

La autoría del primer atentado se atribuye a ETAm, en 1975. De las nueve víctimas documentadas entre 1976 y 1982, seis fueron causadas por grupos de extrema derecha o parapoliciales, dos por ETAm y una por el GAAE. Por último, de las víctimas del período comprendido entre 1983 y 2003, cuatro fueron causadas por ETA y dos por los GAL²²³.

En cuanto a la situación procesal de estos 16 atentados con resultado de muerte, la mayor parte de ellos (10, el 62,5%) han sido juzgados y sus autores condenados²²⁴. Entre estos se incluye seis atentados perpetrados por ETA y cuatro por el BVE. Además, hay dos casos sobreesidos, los correspondientes a las víctimas causadas por el GAL, uno archivado, un caso amnistiado

220 Wihelmi, 2016, 393-395. or.

221 Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak herriz herri egindako txostenekin egiaztatutako datuak. Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri 1960-2010. Astigarragan, Leioan, Derion eta Ortuellan baino ez zituen eragin hildako gehiago estatuko indarkeria politikoak, talde subertsiboek baino. (2021eko maiatzaren 31n kontsultatuta): <https://www.euskadi.eus/retratos-municipales/web01-s1lehbak/es/>

222 Gogora, 2016.

223 *Ibidem*.

224 Fonseca, 2014.

221 Datos contrastados con los informes por municipios elaborados por la Dirección de Víctimas y derechos Humanos del Gobierno Vasco *Retratos municipales de las vulneraciones del derecho a la vida en el caso vasco 1960-2010*. Solo en Astigarraga, Leioa, Derio y Ortuella se cuantifican más fallecidos la violencia política estatal que por grupos subversivos. (Consultado: 31 de mayo de 2021): <https://www.euskadi.eus/retratos-municipales/web01-s1lehbak/es/>

222 Gogora, 2016.

223 *Ibidem*.

224 Fonseca, 2014.

HILDAKO BIKTIMEN ZENBAKETA / RECuento DE VÍCTIMAS MORTALES⁴⁶

	ETAM	ETAPM	KA	BESTE BATZUK OTROS	BVE	GAE	GAL	TRIPLE A	BESTE BATZUK OTROS	ESI / FSE	GRAPO	FRAP
Barne Ministerioa Ministerio del Interior ⁴⁷	829 ⁴⁸										82	
Biktimen arretarako zuzendaritza nagusia (Barne Ministerioa) Dirección general de atención a las víctimas (Ministerio de Interior) ⁴⁹	855 ⁵⁰ 856 ⁵¹ 853 ⁵²											
Eusko Jaurilaritza (Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritza) Gobierno Vasco (Secretaría de Paz y Convivencia) ⁵³	760 ⁵⁴	23	44 ⁵⁵	10	19	7	24	5	18	94		
Valentín Foronda Institutua Instituto Valentín Foronda ⁵⁶	782 ⁵⁷	21	32	10	16	6	27	8	5			
Covite ⁵⁸	584 ⁵⁹		25	8	9	5	2	6	2		41 ⁶⁰	
AVT ⁶¹	923		23			1			1		78	4
FVT ⁶²	856										86	
Euskal Memoria ⁶³										484 ⁶⁴		
HERNANI	7			1⁶⁵	4		2	1		1		

daude, GALEk eragindako biktimei dagozkienak; kasu bat artxibatuta dago; kasu bat 1977ko Amnistiaren Legeak amnistiaturik dago²²⁵; eta bi kasuren gainean ez dago daturik. Beraz, ETak eragindako kasuen % 100etan gertakariak epaituta eta zigortuta daude. Aldiz, eskuin muturreko taldeek, talde parapolizialek eta Estatuko terrorismoak heriotza eragindako atentatuen kasuan, emaitza % 57ra murrizten da²²⁶.

Azkenik, aipatzekoa da Aurelia Jimenezen heriotzari buruzko kasuaren espezifikotasuna. Hernaniko ijitoen kolektiboan, Aureliak 30 urte zituen Nafarroako Cortes udalerriaren Guardia Zibilaren tiroen ondorioz hil zenean. Gertaera 1980ko abuztuaren 24ko goizaldean izan zen, 05:15etan. Hildakoa, beste bi pertsonarekin batera, eztaizuzko eta aluminiozko materiala lapurtzen ari omen zen Funansa lantegian. Komunikabideei helarazitako bertsio ofizialaren arabera, bertaratu ziren Guardia Zibileko agenteek hainbat tiro egin zituzten, tartean zeuden hiru pertsonak ez baitzituzten altu-seinaleak bete. Tiro horietako batek trakean jo zuen Aurelia Jimenez, eta heriotza eragin zion.

Beste bi pertsonak ihes egitea lortu zuten, baina ondoren atzeman eta atxilotu egin zituzten²²⁷. Kasu horri buruzko aurretiazko eginbideak ireki ziren Tuterako Epaitegian. Tiroak

por la Ley de Amnistía de 1977²²⁵ y sobre dos no existen datos al respecto. Por tanto, el 100% de los casos en los que la autoría corresponde a ETA los hechos han sido juzgados y sentenciados, mientras que con respecto a los atentados mortales cometidos por grupos de extrema derecha, parapoliciales y el terrorismo de Estado, este resultado se reduce al 57%²²⁶.

Por último, cabe señalar la especificidad del caso relativo a la muerte de Aurelia Jiménez. Perteneciente al colectivo gitano de Hernani, Aurelia tenía 30 años cuando falleció por disparos de la Guardia Civil en el municipio navarro de Cortes. Los hechos sucedieron sobre 05:15 horas de la madrugada del 24 de agosto de 1980, cuando la fallecida, junto a otras dos personas, se encontraba supuestamente cometiendo un robo de material de estaño y aluminio en la factoría Funansa. Según la versión oficial transmitida a los medios de comunicación, los agentes de la Guardia Civil que se acercaron al lugar realizaron varios disparos, al desobedecer las tres personas implicadas las señales de alto. Uno de estos disparos alcanzó en la tráquea a Aurelia Jiménez, causándole la muerte.

Las otras dos personas consiguieron huir, si bien posteriormente fueron interceptadas y detenidas²²⁷. Sobre este caso se abrieron diligencias previas en el Juzgado de Tudela. El guardia

225 46/1977 Legea.

226 Fonseca, 2014.

227 *Punto y Hora*, 1919. zk., 64. or. *Diario Vasco*, 1980ko abuztuaren 26a, *El País*, 1980ko abuztuaren 26a

225 Ley 46/1977.

226 Fonseca, 2014.

227 *Punto y Hora*, nº 1919, p. 64. *Diario Vasco*, 26 de agosto de 1980, *El País*, 26 de agosto de 1980

BIZITZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETEN BIKTIMEN ZERRENDA / LISTADO DE VÍCTIMAS DE VIOLACIÓN DEL DERECHO A LA VIDA

IZENA / NOMBRE	JAIO TERRIA NATURALEZA	BIZILEKUA VECINDAD	ADINA EDAD	ESTATUSA ESTATUS	EGILETZA AUTORÍA	DATA FECHA	LEKUA LUGAR ⁶⁶	AUZIBIDE-EGOERA SITUACIÓN PROCESAL
1960 - 1975								
Lesmes Martín, Demetrio	Salamanca	Hernani	55	Zibila / Civil*	ETAm	1975.08.08	Hernani	Amnistiatuta / Amnistiado
1976 - 1982								
Salvador Bernardo Jonio, David	Bilbao	Hernani	45	Zibila / Civil	Triple A	1977.10.07	Andoain	Ez dago daturik / Sin datos
Artola Goikoetxea, José Fernando	Hernani	Antzuola	54	Zibila / Civil	ETAm	1979.01.30	Antzuola	Epaitua / Sentenciado
Sagarna Ormazabal, Felipe	Hernani	Hernani	42	Zibila / Civil	BVE	1980.04.19	Hernani	Epaitua / Sentenciado
Jiménez García, Aurelia		Hernani	30	Zibila / Civil	Guardia Zibila Guardia Civil	1980.08.24	Cortes	Epaitua / Sentenciados
Arbelaitz Etxeberria, Miguel	Hernani	Hernani	33	Zibila / Civil	BVE	1980.09.07	Hernani	Epaitua / Sentenciado
Elizondo Arrieta, Luis	Hernani	Hernani	34	Zibila / Civil	BVE	1980.09.07	Hernani	Epaitua / Sentenciado
Pérez López de Orueta, José María	Bilbao	Donostia	30	Zibila / Civil	ETAm	1980.10.31	Hernani	Epaitua / Sentenciado
Altimasbere Escos, Joaquín	Irun	Hernani	31	Zibila / Civil	BVE	1980.11.14	Urnieta	Epaitua / Sentenciado
Murillo Chacón, Antonio	Badajoz	Hernani	25	Zibila / Civil	GAAE	1981.06.26	Hernani	Artxibatuta / Archivado
1983 - 2003								
Quintanilla Salas, Arturo	Burgos	Hernani	44	Zibila / Civil	ETA	1983.09.05	Hernani	Epaitua / Sentenciado
Pulido Pavón, Juan José	Cáceres	Hernani	32 ⁶⁷	Zibila / Civil	ETA	1983.10.08	Hernani	Epaitua / Sentenciado
Goikoetxea Errazkin, Rafael	Hernani	Baigorri	30	ETako militantea / Militante de ETA	GAL	1984.05.03	Arrosa	Largetsita / Sobreseído
Astiasuinzarra Pagola, Inaxio	Hernani	Hernani	35	ETako militantea / Militante de ETA	GAL	1985.09.25	Baiona	Largetsita / Sobreseído
Totorika Vela, Iñaki	Portugalete	Portugalete	25	Ertzaina / Policía autonómica	ETA	2001. 03.09	Hernani	Epaitua / Sentenciado
Pagazaurtundua Ruiz, Joseba	Hernani	Andoain		Udaltzaingo / Policía local	ETA	2003. 02.08	Andoain	Epaitua / Sentenciado

Liburu honetan agertzen diren gainerako koadroetan bezala, biktimei lotutako estatusa gertakariaren aurrekoa izan daiteke, eta, beraz, ez dago indarrean gertaera hori gertatu zenean. Kasu horietan estatusa gehitu egin da, gertaeran izan zuen garrantziagatik. / Al igual que en el resto de los cuadros que aparecen en este libro, el estatus asociado a las víctimas puede ser anterior al suceso y por tanto no estar vigente cuando este sucedió. En estos casos el estatus se ha añadido debido a la trascendencia que tuvo en el suceso.

* Francoren Guardia erakunde paramilitarreko kidea / Miembro de la organización paramilitar Guardia de Franco (AHPG; SIGC, 1975).

egin zituen guardia zibila (José López Barranquero) zazpi hilabeteko espetxe-zigorrrera eta kalte-ordain batera kondenatu zuen Iruñeko Probintzia Auzitegiak, giza hilketaren ondoriozko zuhurtziagabekeria ausartegiko delitu baten egilea izateagatik²²⁸.

Beraz, heriotza hori polizia-agenteei eragindako bizitzeko eskubidearen urraketaren kasua da, eta, Eusko Jaurlaritzak aplikatutako gidalerroei eta terminologiari jarraiki, botere-abusutzat edo poliziaren indarkeriaren erabilera ez-legitimotzat har daiteke²²⁹. Hala ere, gertaera horrek ez du a priori motibazio politiko argirik.

civil que efectuó los disparos (José López Barranquero) fue condenado por la Audiencia Provincial de Pamplona a siete meses de prisión y al pago de una indemnización, como autor de un delito de imprudencia temeraria con resultado de homicidio²²⁸.

Por tanto, esta muerte constituye un caso de violación del derecho a la vida causado por agentes policiales, en lo que puede considerarse, siguiendo las directrices y la terminología aplicada por Gobierno Vasco, un “abuso de poder o uso ilegítimo de la violencia policial”²²⁹. No obstante, este suceso no tiene a priori una clara motivación política.

228 *Diario Vasco*, 1980ko abuztuaren 26a; Ballester, 2022

229 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen

228 *Diario Vasco*, 26 de agosto de 1980. Ballester, 2022

229 Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999.

BIKTIMAK LAS VÍCTIMAS

Azpiatal honetan, bizitzeko eskubidearen biktimak baino ez dira aipatzen, baldin eta haien heriotza, zalantzarik gabe, motibazio politikoko indarkeria-ekintza batekin lotzen bada, hargatik eragotzi gabe abian diren ikerketek dokumentu honetan aipatutako biktimen kontsiderazioa aldatzea.

En este subapartado únicamente se hace mención a aquellas víctimas del derecho a la vida cuya circunstancia de muerte se asocia de manera inequívoca a un acto de violencia de motivación política, sin perjuicio de que las investigaciones en curso varíen la consideración de las víctimas citadas en este documento.

Salamanca jaio zen eta Hernanin bizi zen. Ez-konduta zegoen, 55 urte zituen eta lau seme-alaba zituen. Orbegozo enpresako zinpeko zaindari gisa lan egiten zuen, Hernaniko Florida auzoan. Isilpeko mandataria zela adierazi zuen ETAk, seguraski ezaguna zelako Francoren Guardiara atxikita zegoela. Egitura paramilitar frankista hori Mugimenduaren Buruzagitza Nazionalaren mende zegoen, eta 1977ra arte ez zuten desegin. 1975eko uztailaren 15ean jasan zuen lehen atentatua; zauritu egin zen ordukoan²³⁰. Guardia Zibilaren txostenak honela kontatzen du gertatutakoa:



“Demetrio Lesmes Martín, Orbegozo enpresako zinpeko zaindaria, lanera zihoan. Lantokitik gertu zegoen Caravel gasolindegia parera iritsi zenean, martxan zihoan ibilgailu bateko hiru pertsonak tiro egin zioten, beste ondorioz gabe. Dena den, aipatutako gizonak salaketan adierazi zuenez, autoa urruntzen ari zela, tiro egin zuen pertsonak metraileta astindu zuen atzeko beiratik”²³¹.

Gerora, handik hilabete ingurura, zehazki, abuztuaren 8ko 14:00etan, berriro ere tiro egin zioten enpresako atarian. Kasu honetan ere Guardia Zibilaren txostenak gerturatzen gaitu gertakirara:

“Hilaren 8ko arratsaldean, ETA euskal erakunde terroristako kideek, Morris-MG ibilgailu batean zihoazela, metrailetaz tiro egin zioten 55 urteko Demetrio Lesmes Martini, Florida auzoan. Orbegozo enpresako zinpeko zaindaria zen, eta laneguna amaitu eta lantokitik etxera zihoala egin zioten tiro. Berehala hil zen, eragindako zaurien ondorioz. ETAk salataria izatea egozten zion aipatutako gizonari, eta horregatik hil zuen (Frankoren Guardiako kidea zen)”²³².

Kasu hori amnistiatu egin zuten 1977ko Amnistiaren Legearen bidez²³³. Halaber, terrorismoaren biktimatzat aitortu dute, eta haren senideek kalte-ordaina jaso dute, 13/1996, 32/1999 eta 29/2011 legeen babespean²³⁴.

Natural de Salamanca y vecino de Hernani. Estaba casado, tenía 55 años y era padre de cuatro hijos. Trabajaba como vigilante jurado en la empresa Orbegozo, situada en el barrio de La Florida (Hernani). Fue señalado como confidente por parte de ETA, probablemente por ser conocida su adscripción a la Guardia de Franco, una estructura paramilitar franquista dependiente de la Jefatura Nacional del Movimiento no disuelta hasta 1977. El 15 de julio de 1975 sufrió un primer atentado en el que resultó herido²³⁰. El informe de la Guardia

Civil relataba el suceso de la siguiente manera:

“Cuando el guarda jurado de la empresa Orbegozo Demetrio Lesmes Martín se dirigía a su trabajo, al llegar a la altura de la gasolinera Caravel, sita en las inmediaciones de dicha factoría, fue tiroteado por tres individuos que ocupaban un vehículo en marcha sin más consecuencia, si bien dicho señor en su denuncia señaló que cuando el coche se alejaba el individuo que disparó agitó la metralleta a través de la luna trasera”²³¹.

Posteriormente, prácticamente un mes más tarde, concretamente el 8 de agosto sobre las 14:00 horas, fue de nuevo tiroteado a las puertas de la empresa. Otra vez es el informe de la Guardia Civil el que nos acerca a lo sucedido:

“En la tarde del día 8, elementos pertenecientes a la organización terrorista-vasca ETA, ocupantes de un vehículo Morris-MG ametrallaron en el barrio de La Florida a D. Demetrio Lesmes Martín, de 55 años, guarda jurado de la factoría Orbegozo, cuando se dirigía desde la misma a su domicilio después de haber terminado la jornada laboral, falleciendo acto seguido a consecuencia de las heridas producidas, obediendo esta ejecución a que el citado señor era tachado por ETA de chivato (pertenecía a la Guardia de Franco)”²³².

Este caso quedó amnistiado por la Ley de Amnistía de 1977²³³. Asimismo, Lesmes ha sido reconocido y los familiares indemnizados como víctimas del terrorismo al amparo de las leyes 13/1996, 32/1999 y 29/2011²³⁴.

urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa)

230 Gogora, 2016, 10. or. Alonso, 2010, 59-60. or.

231 Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua, 1975.

232 *Ibidem*.

233 Fonseca, 2014. 46/1977 Legea.

234 13/1996 Legea.

230 Gogora, 2016, p.10. Alonso, 2010, pp. 59-60.

231 AHPG; SIGC, 1975.

232 *Ibidem*.

233 Fonseca, 2014. Ley 46/1977.

234 Ley 13/1996.

Bilbon jaio eta Hernani bizi zen. Taxi-gidari gisa lan egiten zuen, 45 urte zituen eta bi seme-alaba zituen, 8 eta 10 urtekoak. Haren ibilgailu barruan aurkitu zuten gorpua 1977ko urriaren 7an, 07:30 inguruan, Kaletxikin, Renfeko geltokitik gertu (Andoain). Gutxienez, balaz egindako bi zauri zituen buruan, baina 9 mm-ko sei bala-zorro topatu zituzten.



Nacido en Bilbao y vecino de Hernani. Taxista de profesión, tenía 45 años y era padre de dos hijos de 8 y 10 años. Su cuerpo fue hallado en el interior de su vehículo sobre las 07:30 horas de la mañana del 7 de octubre de 1977 en Kaletxiki, en las cercanías de la estación de Renfe (Andoain). Presentaba al menos dos heridas de bala en la cabeza, si bien fueron hallados hasta seis casquillos de bala 9mm.

Atentatuaren zergatien eta zirkunstanzien gainean polizia-kidegoek emandako bertsioak kontraesankorrak ziren. Zergatiari dagokionez, hasiera batean pentsatu zuten lapurtzeko asmoz hilko zutela, baina taxiaren barruan topatu zuten diru-zorroa. Gertakariei dagokionez, bi aukeraren gainean espekulatu zuten. Batetik, Salvador Hernaniko Foruen plazako geltokitik atera zela bezero bat hartzeko; eta, bestetik, geltoki horretan bertan bezero bat sartu zela taxian, gazte bat, “26 urte ingurukoa, lau hilabeteko bizarrarekin eta jaka ilun bat jantzita”. Dena den, lekuko batzuek adierazi zutenez, gorpua topatu zuten leku berean aparkatuta zegoen autoa 01:00etatik, hau da, identifikatu baino zortzi ordu lehenagotik, ia²³⁵.

Bestetik, kontsultatutako iturri guztiek adierazi zuten Salvadorrek ez zuelako inolako lotura politikorik, baina Triple A-k “ETArentzat lan egitea” leporatu zion²³⁶.

Hala, Andoain, Astigarraga eta Hernani udalerriek osatzen duten eta “heriotzaren triangelua” izenez ezagutzen den eremuan eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek egindako eta heriotza eragindako lehen atentatua izan zen. Dena den, nabarmentzekoa da kasu hau ez dagoela Gipuzkoako Gobernu Zibilaren memorian txertatuta, ezta polizia-kidegoen txostenean ere. Horrekin lotuta, gehien hurbiltzen den aipamena Espainiako Polizia Nazionalea (Poliziaren Kidego Nagusia, PKN) txostenaren azpialde batean egiten da. Bertan, “eskuin muturra” izenburupean, beste erakunde batzuen artean, Triple A aipatzen da, eta honakoa dio guztien gainean: “lehen aldiz, 1977. urtean zehar, mehatxutik ekintzara edo delitu-egintzak egitera pasatu dira alderdi terrorista horren baitan”²³⁷.

Halaber, aipatu beharrekoa da ez dagoela gertakari horrekin lotuta prozesu judizialik martxan jarri izanaren gainera daturik²³⁸.

Terrorismoaren biktimatzat aitortu dute, eta haren senideek kalte-ordaina jaso dute, 13/1996, 32/1999 eta 29/2011 legeen babespean²³⁹.

Las versiones de los diferentes cuerpos policiales fueron contradictorias respecto al móvil y a las circunstancias que rodearon el atentado. Con respecto al móvil, en un primer momento se especuló con la posibilidad de que la intención fuera el robo, sin embargo parece ser que la cartera fue encontrada en el interior del taxi. En cuanto al acontecer de los hechos, se especulaba entre la salida de Salvador de la parada de la Plaza de los Fueros en Hernani para recoger a un cliente y la subida al taxi de un cliente en la misma parada, un joven de “unos 26 años, con barba de cuatro meses y cazadora oscura”. En cualquier caso, algunos testigos declararon que el coche se encontraba aparcado en el lugar en el que se encontró el cadáver a partir de la 01:00 horas, es decir, prácticamente ocho horas antes de ser identificado²³⁵.

Por otra parte, todas las fuentes consultadas apuntan a que Salvador no tenía ninguna vinculación política, sin embargo la Triple A lo acusó de “trabajar para ETA”²³⁶.

Con todo, se trata del primer atentado mortal perpetrado por grupos de extrema derecha y parapoliciales ocurrido en el conocido como “triángulo de la muerte”, formado por las localidades de Andoain, Astigarraga y Hernani. No obstante, destaca la ausencia de este caso en la memoria anual del Gobierno Civil de Gipuzkoa, así como en los informes de los diferentes cuerpos policiales. A este respecto, la alusión más cercana es un subapartado del informe del Cuerpo General de Policía (CGP) en el que, bajo el título “extrema derecha”, se cita entre otras organizaciones a la Triple A, haciendo constar de todas ellas que “por primera vez, durante el año 1977, se ha pasado de la amenaza a la acción o comisión de hechos delictivos bajo esta vertiente terrorista”²³⁷.

Asimismo, es preciso señalar la falta de datos sobre la puesta en marcha de un proceso judicial al respecto²³⁸.

Salvador ha sido reconocido y los familiares indemnizados como víctimas del terrorismo al amparo de las leyes 13/1996, 32/1999 y 29/2011²³⁹.

235 Egin, 1977ko urriak 8. *Diario Vasco*, 1977ko urriak 8. La Voz de España, 1977ko urriak 8. Gogora, 2016, 18. or.

236 Agirre (koordinazioa eta erredakzioa), 2010, 578. or.

237 Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa, Poliziaren Kidego Nagusiaren Probintziako Komisaria, 1977.

238 Fonseca, 2014.

239 13/1996 Legea.

235 Egin, 8 de octubre de 1977. *Diario Vasco*, 8 de octubre de 1977. *La Voz de España*, 8 de octubre de 1977. Gogora, 2016, p. 18.

236 Agirre (coord. y redacc.), 2010, p. 578.

237 AHPG, Comisaría Provincial del Cuerpo General de Policía, 1977.

238 Fonseca, 2014.

239 Ley 13/1996.

Hernanin jaio zen eta Antzuolan bizi zen hil baino 15 urte lehenagotik, gutxi gorabehera. ETA-ren atentatu batean hil zen, 1979ko urtarrilaren 30ean. 54 urte zituen, saltzailea zen ogibidez, ez-konduta zegoen eta bi seme-alaba zituen. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiak Hernaniko eta Antzuolako “herriz herriko argazkietan” jasotzen duenez, Artola UCDko kidea zen²⁴⁰. Halere, “eskuineko ideologia” zuela eta UCDko Luis Candendo Pérez militantearen “lagun mina” zela baino ez zuten aipatu garai hartako prentsak. 1978an hil zuen ETAk Candendo²⁴¹.



Heriotza eragin zuen atentatua 22:00ak inguruan gertatu zen Antzuolako Antigua auzoan, biktima Ongi etorri tabernatik atera eta lagun batekin etxera zihoanean. *Diario Vasco*ko kronikaren arabera, hainbat pertsonak tiro egin zioten martxan zihoan ibilgailu batetik²⁴²; hainbat tiro jaso zituen, eta gibela eta diafragma zulatu zizkioten²⁴³. Bergarako ambulatoriora eraman zuten eta han hil zen. Antza denez, ETAm erakundeak atentatua justifikatu zuen, biktimari poliziaren isil-mandataria izatea egotzita²⁴⁴.

Aurrez, “Artolak eta bere kuadrillako kide batzuek heriotza-mehatxuak jaso zituzten, betiere, haien eskuin muturreko ideologia zela eta”²⁴⁵. Eta, Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA liburuak jasotzen duenez, heriotza eragin zion atentatua bano bi egun lehenago arrakastarik gabeko beste saiakera bat egin zuten komando horretako kide berberak²⁴⁶.

Atentatuaren egileak epaitu eta zigortu egin zituzten²⁴⁷. Halaber, terrorismoaren biktimatzat aitortu dute, eta haren senideek kalte-ordaina jaso dute, 13/1996, 32/1999 eta 29/2011 legeen babespean²⁴⁸.

Natural de Hernani y residente en Antzuola desde aproximadamente unos 15 años antes del atentado de ETA que acabó con su vida el 30 de enero de 1979. Tenía 54 años, de profesión comercial, y estaba casado y era padre de dos hijos. Según recoge la Secretaría General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco en sus “retratos municipales” en los casos de Hernani y Antzuola, Artola era miembro de UCD²⁴⁰. Sin embargo, en la prensa de la época se señala que únicamente era de “ideología derechista” e “íntimo amigo” del militante de

UCD Luis Candendo Pérez, contra quien ETAm había atentado mortalmente en noviembre de 1978²⁴¹.

El atentado contra Artola se llevó a cabo alrededor de las 22:00 horas en el barrio Antigua de Antzuola, cuando la víctima se dirigía a su domicilio acompañado de un amigo tras abandonar en bar Ongi etorri. Según la crónica del *Diario Vasco*, fue disparado por varias personas desde un vehículo en marcha²⁴², siendo alcanzado por varios disparos que le perforaron el hígado y el diafragma²⁴³. Fue trasladado al ambulatorio de Bergara, donde falleció. Al parecer, ETAm justificó el atentado acusando a la víctima de ser confidente de los cuerpos policiales²⁴⁴.

Con anterioridad, “Artola y algunos otros miembros de su cuadrilla habían recibido amenazas de muerte, referidas siempre a su ideología derechista”²⁴⁵. Y según se recoge en el libro *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, dos días antes del atentado mortal hubo un intento fallido por parte de los mismos miembros del comando²⁴⁶.

Los autores fueron juzgados y condenados²⁴⁷. Asimismo, la víctima ha sido reconocida y los familiares indemnizados como víctimas del terrorismo al amparo de las leyes 13/1996, 32/1999 y 29/2011²⁴⁸.

240 Gogora, 2016, 11. or. Gogora (Antzuola), 2016, 26. or.

241 *Diario Vasco*, 1979ko urtarrilak 31. Alonso, 2010, 188-189. or. Gogora (Antzuola), 2016, 26. or.

242 *Diario Vasco*, 1979ko urtarrilak 31.

243 Alonso, 2010, 188. or.

244 Alonso, 2010, 189. or.

245 *Diario Vasco*, 1979ko urtarrilak 31.

246 Alonso, 2010, 188. or.

247 Fonseca, 2014.

248 13/1996 Legea.

240 Gogora 2016, p. 11. Gogora (Antzuola), 2016, pp. 26.

241 *Diario Vasco*, 31 de enero de 1979. Alonso, 2010, pp. 188-189. Gogora (Antzuola), 2016, pp. 26.

242 *Diario Vasco*, 31 de enero de 1979.

243 Alonso, 2010, p. 188.

244 Alonso, 2010, p. 189.

245 *Diario Vasco*, 31 de enero de 1979.

246 Alonso, 2010, p. 188.

247 Fonseca, 2014.

248 Ley 13/1996.

Lanbidez zapataria zen Felipe Sagarna, eta *Los Incansables* txarangako musikaria zen. Hernanin jaio zen hil baino 42 urte lehenago, eta Kardaberaz ka-lean bizi zen.

1980ko apirilaren 19an, 05:00ak inguruan, etxera sartzera zihoala, Kardaberaz kaleko 36. atarian, kontrako noranzkoan zihoan auto bat Sagarnaren aurrean geratu zen. Autoan zihoazen BVEko kideek bi tiro egin zizkieten, eta hil egin zen. Tiro batek lokian jo zion, eta besteak garondoa. Sagarnari etxe ingurura lagundu zioten lagunak, berehala, laguntza ematera joan ziren. Donostia ospitalera (lehen Arantzazuko Erresidentzia zena) eramán zuten, baina medikuek haren heriotza baieztatu baino ezin izan zuten egin²⁴⁹. Hil aurretik, Urnietako ostalaritza-establezimendu batean mehatxatu egin zuten gero hil zuten pertsona berberrek. “Frankoren hilobian danborra jotzen amaituko duzu” esan zioten²⁵⁰.

Gertakariaren ondoren, hiru eguneko greba orokorrerako deialdia egin zuten Hernanin. Halaber, hilaren 21ean, astelehenean, ezohiko osoko bilkura egin zuten; bertan, atentatua gaitzetsi zuten eta herriko kale bati Felipe Sagarna “Zapa” izena jartzea erabaki zuten, baita haren oroimenez plaka bat jartzea ere²⁵¹.

Guardia Zibilaren txostenaren arabera, BVEren “Luis Berasategui” komandoak aldarrikatu zuen gertakaria. Gerora, 1985ean, 231 urteko espetxe-zigorra ezarri zieten atentatuaren egileei, baina 11 urteren buruan hirugarren gradua eskuratu zuten.

Halaber, Felipe Sagarna terrorismoaren biktimatzat aitortu dute, eta haren senideek kalte-ordaina jaso dute, 13/1996, 32/1999 eta 29/2011 legeen babespean²⁵². Dena den, elkarrizketatutako familiartekoei nabarmendu dutenez, zailtasunak izan zituzten Sagarna terrorismoaren biktima gisa aitor zezaten. Zehazki, aitortza hori eragingarria izan zedin 36 urte pasatu behar izan zirela salatzen dute; aurretik ukatu egiten zieten aitortza, hildakoa ETako militantea zela arrazoituz, argumentu hori gezurrezkoa izanik. Familiakoak, prozesu horren ondorioz, “bigarren mailako biktima” sentitu dira²⁵³.

Felipe Sagarna ez zen inolako alderdi politiko edo sindikatutako militantea, baina prentsako hainbat artikulutan aipatzen da “Herri Batasunaren jarraitzailea”²⁵⁴ edo “HBko botoemailea”²⁵⁵ zela. Halaber, hil baino hiru urte lehenago, ikastolen aldeko manifestazio batean Armadun Poliziako polizia-agenteei jaurtitako gomazko pilota baten kolpearen ondorioz larri zauritu zen²⁵⁶.



Zapatero de profesión y músico de la txaranga *Los Incansables*, Felipe Sagarna residía en la calle Kardaberaz de Hernani, localidad en la que había nacido 42 años antes de su fallecimiento.

El 19 de abril de 1980 sobre las 5:00 horas, cuando se disponía a entrar en el portal de su domicilio en el número 36, un coche que avanzaba en dirección contraria se situó ante Sagarna y los miembros del BVE que se encontraban en su interior dispararon dos tiros que acabaron con su vida. Uno de los tiros impactó en la sien y el otro en la nuca, e inmediatamente los amigos que acompañaron a Sagarna a las inmediaciones de su domicilio fueron a socorrerle. Trasladado al hospital de Donostia (antigua Residencia Sanitaria Nuestra Señora de Aránzazu), los médicos no pudieron más que certificar su fallecimiento²⁴⁹. Con anterioridad a su muerte, fue amenazado en un establecimiento hostelero de Urnieta por los mismos que luego le mataron. Al parecer, los victimarios se dirigieron a Sagarna amenazándole con que acabaría “tocando el tambor en la tumba de Franco”²⁵⁰.

Tras el suceso, se convocaron en Hernani tres días de huelga general, llamamiento ampliamente secundado. Asimismo, el lunes 21 un pleno municipal extraordinario condenó el atentado y decidió la colocación de una placa en su recuerdo, así como designar con el nombre de Felipe Sagarna “Zapa” una calle del municipio²⁵¹.

Según el informe de la Guardia Civil, el hecho fue reivindicado por el comando “Luis Berasategui” del denominado BVE. Posteriormente, en 1985, los autores del atentado fueron condenados a 231 años de prisión, si bien 11 años después obtuvieron en tercer grado.

Por otra parte, los familiares de Sagarna han sido indemnizados y el fallecido reconocido como víctima del terrorismo al amparo de las leyes 13/1996, 32/1999 y 29/2011²⁵². No obstante, los familiares entrevistados recalcan las dificultades que tuvieron para que Sagarna fuera reconocida víctima del terrorismo. En concreto, denuncian que tuvieron que pasar 36 años para que este reconocimiento se hiciera efectivo, tras denegaciones anteriores bajo el falso argumento de la militancia en ETA del fallecido. Para la familia, este proceso les ha hecho sentirse “víctimas de segunda categoría”²⁵³.

Felipe Sagarna no militaba en ningún partido político ni sindicato, si bien en varios artículos de prensa figura como “simpatizante de Herri Batasuna”²⁵⁴ o “HBko botoemaile”²⁵⁵. Asimismo, tres años antes de su muerte fue herido de gravedad a consecuencia de un proyectil de goma lanzado por agentes de la Policía Armada en el transcurso de una manifestación en apoyo a las ikastolas²⁵⁶.

249 Isabel Sagarna Ormazabal eta Marijose Aizpurua Sagarnaren lekukotza. Gogora, 2016, 19. or. *Kronika*, 1980 (Felipe Sagarnari buruzko erreportajea). *Egin*, 1980ko apirilak 20. *El País*, 1980ko apirilak 20. *Diario Vasco*, 1980ko apirilak 20.

250 Familiako lekukotza.

251 *Kronika*, 1980 (Felipe Sagarnari buruzko erreportajea). HUA, 1980-1981, Akten liburua 1980-1981. Ezohiko osoko bilkura, 11/80 zk.

252 13/1996 Legea.

253 Familiako lekukotza.

254 *El País*, 1980ko apirilak 20.

255 “Euskadi 1977-1982”. *Egin*, 83. or.

256 *El País*, 1980ko apirilak 20.

249 Testimonio recabado a Isabel Sagarna Ormazabal y Marijose Aizpurua Sagarna. Gogora, 2016, p. 19. *Kronika*, 1980 (reportaje dedicado a Felipe Sagarna). *Egin*, 20 de abril de 1980. *El País*, 20 de abril de 1980. *Diario Vasco*, 20 de abril de 1980.

250 Testimonio familiar.

251 *Kronika*, 1980 (reportaje dedicado a Felipe Sagarna). AMH, 1980-1981, Libro de actas 1980-1981. Pleno municipal extraordinario nº 11/80.

252 Ley 13/1996.

253 Testimonio familiar.

254 *El País*, 20 de abril de 1980.

255 “Euskadi 1977-1982”. *Egin*, p. 83.

256 *El País*, 20 de abril de 1980.

Miguel Arbelaiz Donostian jaio zen 1946ko abenduaren 26an. Hernanin bizi zen, *Cintas adhesivas Ubis SA* enpresako langilea zen eta LAB sindikatu-ko militantea. Enpresa berean lan egiten zuen Trini Cuadrado emazteak. 1978an ezkondu ziren eta 1979an alaba bat izan zuten²⁵⁷.

1980ko irailaren 7an, 05:30 inguruan, Miguel Arbelaiz eta Luis Mari Elizondori tiro egin zioten BVEko kideek Hernaniko Balantzako aldapan, Zikuñagako jaietatik bueltan zetozela. Biak hil ziren. Arbelaizen kasuan, heriotza-aktaren arabera, garuneko “nerbio-zentroen suntsipena” izan zen heriotzaren kausa²⁵⁸, hiru bala-inpaktuen ondorioz²⁵⁹.

Unean bertan hil ziren bai Arbelaiz eta bai Elizondo. Hurrengo egunean greba orokorrerako deialdia egin zuten eta hiletak egin zituzten. Guardia Zibilak kontrolak jarri zituen errepi-dean, herrira sartzeari galarazteko, baina ehunka lagun joan ziren hiletara. Bost apaizek parte hartu zuten hiletan. Apaiz horietako batek baieztatu zuenez, Sagarnaren heriotzaren ondoren esan zuen moduan, horrelako ekintzek “Hernaniko herritarrak are gehiago elkartzea” lortzen zuten; eta honakoa gehitu zuen: “gure artean hiltzeko tresnak erabiltzen jarraitzen dugun bitartean ez da bakerik egongo”²⁶⁰.

Ondoren, herri-batzarrak eta manifestazioak egin zituzten, eta horietan polizia jotzen zuten arduraduntzat edo estaltzaile-tzat. Horrekin lotuta, Hernaniko udalean egindako ezohiko osoko bilkura batean “terrorismo instituzionalaren eta errepresio ofizial eta paraofizialaren hazkundea” gaitzetsi zuten. Halaber, “Guardia Zibilaren jarrera susmagarria” salatu zuten. Izan ere, kuartela gertakaritik 500 metrora egon arren, ez ziren bertaratu udaltzainek jakinarazi eta handi ordubetera arte. Gainera, aipatu zuten Hernanira sartzeari zailtzeko baino ez zituztela jarri kontrolak hurrengo egunean, jendeak hiletan eta mobilizazioetan parte har ez zezan, eta ez biktimagileak topatzeko²⁶¹.

Atentatuan senarra hil ondoren, Trini Cuadradori telefono bidezko heriotza-mehatxuak egin zizkioten hainbat aldiz. Hala-ber, dei horietan haren heriotzaz poztzen ziren²⁶².

Arbelaiz terrorismoaren biktimatzat aitortu dute, eta haren senideek kalte-ordaina jaso dute, 13/1996, 32/1999 eta 29/2011 legeen babespean²⁶³. Egileak epaitu eta zigortu egin zituzten²⁶⁴.



Miguel Arbelaiz nació en Donostia 26 de diciembre de 1946. Residía en Hernani, siendo trabajador de la empresa *Cintas adhesivas Ubis S.A.* y militante del sindicato LAB. En esta empresa trabajaba también Trini Cuadrado, con la que estaba casada desde 1978 y con la que tenía una hija nacida en 1979²⁵⁷.

El 7 de septiembre de 1980, en torno a las 5.30 horas, miembros del BVE dispararon contra Miguel Arbelaiz y Luis Mari Elizondo en la cuesta de Balantz en Hernani cuando regresaban de fiestas de Zikuñaga, causando la muerte a ambos. En el caso de Arbelaiz el acta de defunción señala que la causa de la muerte fue “la destrucción de centros nerviosos” del cerebro²⁵⁸, a consecuencia de tres impactos de bala²⁵⁹.

Tanto Arbelaiz como Elizondo murieron en el acto. Al día siguiente se declaró una huelga general y se dio inicio a los funerales, asistiendo cientos de personas, a pesar de los controles de carretera de la Guardia Civil que impedían el acceso a la localidad. En el funeral participaron cinco sacerdotes. Uno de ellos afirmó que este tipo de actos, al igual que dijera tras la muerte de Sagarna, lo que conseguían era “que el pueblo de Hernani se una aún más”; y añadía que “mientras se sigan utilizando entre nosotros los instrumentos de muerte, no habrá paz”²⁶⁰.

Posteriormente, se celebraron asambleas populares y manifestaciones en las que se señalaba a la policía como responsable o encubridora. A este respecto, un pleno extraordinario del Ayuntamiento de Hernani condenó “el incremento del terrorismo institucional y la represión oficial y paraoficial”. Asimismo, se denunciaba “la sospechosa actitud de la Guardia Civil”, ya que a pesar de estar acuartelada a 500 metros del lugar del suceso, no se personaron hasta una hora después de que les fuera notificado por parte de la policía municipal. Además, se señalaba que únicamente se pusieron controles al día siguiente para dificultar el acceso de personas a Hernani para participar en el funeral y las movilizaciones, y no con el objetivo de localizar a los victimarios²⁶¹.

Tras el atentado mortal, Trini Cuadrado fue amenazada de muerte telefónicamente en varias ocasiones. En esas llamadas, los interlocutores también solían mostrar su alegría por la muerte de su marido²⁶².

Arbelaiz ha sido reconocido y su familia indemnizada al amparo de las leyes 13/1996, 32/1999 y 29/2011²⁶³, y los autores fueron juzgados y condenados²⁶⁴.

257 Trini Cuadradoren lekukotza. GOGORA, op. cit., 2016, 20. or. *Diario Vasco*, 1980ko irailak 9. *Egin*, 1980ko irailak 9. *Naiz*, 2020ko azaroak 14.

258 Heriotza-akta

259 *Diario Vasco*, 1980ko irailak 9.

260 *Egin*, 1980ko irailak 9.

261 *Diario Vasco*, 1980ko irailak 9. / HUA, 1980-1981, Akten liburua. Ezohiko osoko bilkura 21/80 zk.

262 Trini Cuadradoren lekukotza. *Naiz*, 2020ko azaroak 14.

263 13/1996 Legea.

264 Fonseca, 2014.

257 Testimonio de Trini Cuadrado. GOGORA, op. cit., 2016, p. 20. *Diario Vasco*, 9 de septiembre de 1980. *Egin*, 9 de septiembre de 1980. *Naiz*, 14 de noviembre de 2020.

258 Acta de defunción

259 *Diario Vasco*, 9 de septiembre de 1980.

260 *Egin*, 9 de septiembre de 1980.

261 *Diario Vasco*, 9 de septiembre de 1980. / AMH, 1980-1981, Libro de actas. Pleno municipal extraordinario nº 21/80.

262 Testimonio de Trini Cuadrado. *Naiz*, 14 de noviembre de 2020.

263 Ley 13/1996.

264 Fonseca, 2014.

Luis Elizondo ere unean bertan hil zen. Arbelaitez 3 tiro jaso bazituen ere, Elizondoren gorpuak bi bala-zauri zituen, garezurraren zati ezberdinetan.

Hernanin jaio eta bertan bizi zen Elizondo. 34 urte zituen, eta harakina zen lanbidez. Ez zuen seme-alabarik. Aurrez aipatu moduan, Arbelaitez eta Elizondo hil zituen atentatu honen egileta BVEko kideei leporatu zieten²⁶⁵. 1980ko irailaren 9ko (asteartea) *La Vanguardia* egunkariak jaso zuenez, komunikatzaile anonimo batek Radio Bilbao irratira deitu zuen talde armatu horren izenean, eta honako hau esan zuen:

“Monzonek gerra nahi badu, guk ere bai. Bergarako gure burkide Luis Bergaretxeren hilketaren erantzuna da hau. Gora Espainiaren batasuna!”²⁶⁶.

Ez da inon ageri Elizondo alderdi politiko edo sindikaturen batean afiliatuta zegoenik edo militatzen zuenik, baina Herri Batasunaren jarraitzailezt hartzen zuten²⁶⁷.

Hau ere terrorismoaren biktima gisa aitortu eta indemnitatu dute, 13/1996, 32/1999 eta 29/2011 legeen babespean²⁶⁸. Hala ere, Eskuin muturreko taldeen eta talde parapolizialen biktimen senide gehienek bezala, Elizondokoek ere uste dute ez dituztela beste biktima batzuen moduan tratatu. Naiz egunkariari emandako elkarrizketa batean, honako hau esan zuen Ana Isabel Elizondok, Luis Mari Elizondoren arreba.

“Hilketak 1980an gertatu ziren. 2001ean jaso genuen indemnizazioa, hogeitaz urtera. Terrorismoaren biktima gisa indemnizatzen gintuzten, teoriarik. ETAk armak utzi zituenean, badirudi terrorismoaren biktima guztiak berdin tratatzen saiatzea izan zela Gobernuaren lehen ideietako bat, nolabait normalizazioaren bila. Antza denez, gainerakoei ordaindu zietenaren erdia ordaindu ziguten. Eta hogeitaz urtera, falta zen zatia eman digute. Arraro samarra da. Berrogei urte pasatu dira hilketak gertatu zirenetik, eta hogeitaz hamar urte baino gehiago behar izan ditugu indemnizazioa jasotzeko”²⁶⁹.



Luis Elizondo también falleció en el acto. No obstante, a diferencia de Arbelaitez, que recibió tres tiros, el cuerpo de Elizondo presentaba dos heridas de bala, en diferentes partes del cráneo.

Elizondo era natural y vecino de Hernani, tenía 34 años, y era carnicero de profesión. No tenía hijos. Como se ha citado anteriormente, la autoría de este atentado mortal contra Arbelaitez y Elizondo recayó en miembros del BVE²⁶⁵. Según recogía el periódico *La Vanguardia* el martes 9 de septiembre de 1980, un comunicante anónimo en nombre de este grupo armado telefonó a *Radio Bilbao* y dijo lo siguiente:

“Si Monzón quiere la guerra nosotros también. Esta es la respuesta del asesinato de nuestro camarada, Luis Bergareche, de Vergara, ¡Viva la unidad de España!”²⁶⁶.

No consta que Elizondo estuviera afiliado o fuera militante de ningún partido político o sindicato, sin embargo, era considerado simpatizante de Herri Batasuna²⁶⁷.

También ha sido reconocido como víctima del terrorismo bajo el amparo de las leyes 13/1996, 32/1999 y 29/2011²⁶⁸. Sin embargo, al igual que la mayoría de los familiares de víctimas de grupos de ultraderecha y parapoliciales, los de Elizondo también consideran que el tratamiento recibido es diferente al de otras víctimas. En este sentido, en una entrevista concedida a Naiz, Ana Isabel Elizondo, hermana de Luis Mari Elizondo, señalaba lo siguiente.

“Los asesinatos fueron en 1980. Recibimos una indemnización en 2001, veinte años después. Supuestamente nos indemnizaban como víctimas del terrorismo. Cuando ETA dejó las armas, una de las primeras ideas del Gobierno parece ser que fue intentar tratar a todas las víctimas del terrorismo por igual para buscar cierta normalización. Resulta que nos habían pagado la mitad de lo que habían pagado a todos los demás. Y veinte años después nos han dado la parte que faltaba. Es un poco extraño. Han pasado cuarenta años de los asesinatos y hemos tardado treinta y pico en recibir la indemnización”²⁶⁹.

265 Gogora, 2016, 20. or. *Diario Vasco*, 1980ko irailak 9. *Egin*, 1980ko irailak 9.

266 *La Vanguardia*, 1980ko irailak 9.

267 *Diario Vasco*, 1980ko irailak 9. *La Vanguardia*, 1980ko irailak 9.

268 13/1996 Legea.

269 Naiz, 2020ko azaroak 14.

265 Gogora, 2016, p. 20. *Diario Vasco*, 9 de septiembre de 1980. *Egin*, 9 de septiembre de 1980.

266 *La Vanguardia*, 9 de septiembre de 1980.

267 *Diario Vasco*, 9 de septiembre de 1980. *La Vanguardia*, 9 de septiembre de 1980.

268 Ley 13/1996.

269 Naiz, 14 de noviembre de 2020.

Bilbon jaio zen Pérez López de Orueta, eta Donostiako Azpeitia kalean bizi zen. 30 urte zituen, ezkongabea zen eta abokatu kriminalista gisa lan egiten zuen Gipuzkoako hiriburuan, ETAm-k haren aurkako atentatua egin eta hil baino bi urte lehenagotik, gutxi gorabehera²⁷⁰.

